



**GIPUZKOAK
AURRERA
EGITEKO**

**GIPUZKOAK ETORKIZUNERA BEGIRA
ETA ELKARLANEAN AURRERA EGITEKO**

HAUTESKUNDE EGITASMOA. Foru hauteskundeak. 2023ko maiatza.

Aurrera, batera!
Gipuzkoa
Mira al futuro



AURKIBIDEA

I. Sarrera: Elkarlanean eta norabide argi batekin.	5
II. Oinarri sendoak, egungo eta etorkizuneko desfioak.	6
III. Aurrera egiteko ardatzak, pertsona erdigunean.	10
IV. Bisioa, misioa, balioak eta helburuak.	16
V. 2023-2027 egitasmoa: aurrera egiteko bide-orria.	18

Aurrera, batera!
Gipuzkoa
Mira al futuro





SARRERA: ELKARLANEAN ETA NORABIDE ARGI BATEKIN

Azken zortzi urte hauetan, elkarlana erdigunean jartzen asmatu du Gipuzkoak, iraganeko paralisia eta eztabaida antzuak gaituztu. Lurraldea etengabeko polemiketan eta iraganeko arazoetan iltzatuta utzi zutenen arduragabekeriaren aurrean, EAJ-PNVk gidatutako Aldundiak eta udalek lurraldearen modernizaziorako eta herritarren ongizaterako funtsezkoak diren hainbat eta hainbat egitasmo gauzatu dituzte azken bi legealdietan. Eta, ez hori bakarrik, lidergo partekatu bat bideratu du Aldundian, guztion artean lurralde sendo bat eraiki ahal izateko. Horri esker, gure lurraldea etorkizunera begira lankidetzan buru-belarri ari da eta aitzindaria da etorkizuneko ekonomiari eta gizarteari forma emango dioten proiektuak abiarazteko garaian.

Gipuzkoak oinarri sendoak ditu. Lurralde txikia gara, baina lehiakorra, berritzailea eta mundura irekia; gizarte kohesionatua gara, desberdintasunei aurre egiteko elkar hartu eta antolatzeke gaitasuna dugu, komunitate izaera indartsu baten jabe gara. Hori horrela da, batetik, badugulako gauzak egiteko modu propio bat, lankidetzarako joera bat. Bestetik, baita ere, gure aurreko belaunaldiak eta herri ordezkariak erabaki estrategikoetan asmatu izan dutelako. Trantze gogorrenetan ere, euskal autogobernua eta erakundeak eraikiz eta defendatuz, giza eskubide guztien errespetua aldarrikatuz eta akordioa lehenetsiz, pausoz pauso eraiki ditugu Gipuzkoa eta Euskadi demokratikoak, gure erakunde sistema, gihar ekonomikoa, ongizatea eta elkarbizitza.

Oinarri sendo horri esker, erantzun irmoa eta solidarioa eman diegu 2020tik hona bizitako une oso gogorrei; erantzun sendoa, pandemiari edota Ukrainak pairatutako inbasioaren ondorioei, behar gehien zeukaten herritar eta sektoreen ondoan egonez, hartu beharreko neurriak hartuz eta herritarren ekonomia babestuz. Akatsak akats, arazoei aurre egin eta konponbideak bilatzen gure onena eman dugu, konpromiso etiko, politiko eta demokratikoari leial mantenduz.

Ziurgabetasun garaia bizi ditugu gaur egun ere. Mundu osoan bezala, zailtasunak nabarmenak dira gipuzkoarrentzat ere, zalantzarik gabe. Baina ez da nahikoa arazoak azaleratzea, gipuzkoarrok ez gara horrekin konformatzen. Ezkortasunaren aurrean, konponbideak nahi ditugu; itxurakeriaren eta populismoaren aurrean, proposamen argiak eta eraginkorrak. Azaleko proiektuen aurrean, etorkizunera begira landutako norabide argi bat.

Ziur nago Gipuzkoan eta Euskadin prest gaudela. Bidegileak garelako gauza askotan. Industria indartsu bat daukagulako eta, berrikuntzan ere, herrialde aurreratuenen pare garelako. Eta ez hori bakarrik: desberdintasun sozial gutxien duen lurraldeetako bat garelako Europan.



Gipuzkoak oinarri sendoak ditu. Azaleko proiektuen aurrean, etorkizunera begira landutako norabide argi bat.

Orain, Gipuzkoari bultzada berri bat emateko garaia da, pertsonak erdigunean jarrita aurrera egiteko garaia. Gure enpresak etorkizunera begira indartzeko eta kalitatezko lanpostuak sortzeko; herritar guztien ongizatea babesteko eta adineko pertsonak zaintzeko; gero eta lurralde euskaldun, berdinzale eta berdeago bat eraikitzeko.

Etorkizunera begira egin beharreko bultzada berri hori, elkarlanean eman nahi dugu, gaur egungo eta etorkizuneko Gipuzkoa eraikitzen jarraitzeko. Ambizioz, baina apaltasunez eta lankidetzan, EAJ-PNVk beti egin izan duen bezala. Eginez eta ekinez, hartuz eta emanez, gogor lan eginez, beti Gipuzkoaren eta Euskadiren alde.

Eider Mendoza Larrañaga

EAJ-PNVren hautagaia diputatu nagusi izateko

II.

OINARRI SENDOAK, EGUNGO ETA ETORKIZUNEN DESAFIOAK

Azken urte hauetan munduak izan duen bilakaerak argi erakusten digu XX. mendeko paradigmeak jada ez dutela balio gero eta azkarrago eraldatzen ari den gizartearen eta ekonomiaren pultsua hartzeko. Are eta konplexuagoa eta aldakorragoa den mundu baten aurrean, harreman sozial, politiko eta ekonomikoaren ziklo-aldaketa urrats bizkorrez gertatzen ari da.

Horren aurrean beharrezkoa da, batetik, egungo une historikoaren garrantziaz jabetzea. Bestetik, eraldatze teknologiko, ekonomiko, sozial eta kultural horiei erantzuteko –eta aurrea hartzeko– egitasmo sendoak martxan jartzea, epe labur, ertain eta luzean ere herritarren ongizatea bermatu ahal izateko. Hori izan da, hain zuzen ere, azken zortzi urte hauetan Gipuzkoan EAJ-PNVk gidatu duen ahalegin irmoa, aurrera begira indartu beharrekoa.

OINARRI SENDOAK

Ez dira makalak azkenaldian munduko eta Europako agendan, eta horrekin batera Euskadikoan, bete-betean sartu diren gai berriak: bizkortze teknologikoa eta horrek mundu mailako prozesu eta zerbitzuen digitalizazioan eta robotizazioan duen eragina, klima aldaketa, iraunkortasuna eta trantsizio energetikoa, hiri kontzentrazioarako joera, eraldatze demografikoa eta migrazio mugimendu globalak, lan munduaren eraldaketa eta enplegarritasuna, nahiz gizarte desberdintasunen edo segurtasunaren inguruan bizi ditugun aldaketak.

COVID-19 pandemiak eta Errusiaren Ukrainako inbasio bidegabeak eraldatze horiek bizkortu egin dituzte eta, horrekin batera, gizartean dagoeneko hedatua zegoen ziurgabetasun sentipena zabaldu dute. Baina, zalantzarik gabe, mende hasierako finantza krisian zehar gertatu bezala, gure herriak zutik eutsi dio desafiari.

Osasun larrialdiari arduraz aurre egin diote euskal erakundeek, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak ere. Gizarte babeseko eta ekonomiako eragileekin elkarlanetik abiatuz, pertsona zaurgarrien babesa lehenetsi da, sektore kaltetuenak ahalik eta modu eraginkorrenean lagundu dira, eta ekonomia aktibitatea eta enpleguak babestu dira.

Pandemiaren ondorio sozial eta ekonomikoak gainditzen ari ginenean, baina, desafio berri baten aurrean jarri gaitu berriro Ukraina jasaten ari den inbasioak. Lurrikara geopolitikoaz aparte, ezegonkortasun eta zailtasunen areagotzea ekarri du, izan ere. Larrialdi humanitario berri bat, alde batetik,

eta energia krisia, lehengaien eta industriako hornigaien garestitzea, bestetik. Horrekin batera, gainera, eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren alor askoren garestitzea jasaten ari gara herritarren poltsikoetan: argi indarraren, elikagaien eta hipoteken gorakada, kasu.

Prezioen igoera nabarmen honen aurrean, beste behin ere, Gipuzkoako eta EAeko erakundeek ezohiko neurriak hartu dituzte familien eta norbanakoen ekonomiari ahalik eta gehien laguntzeko, gure industria eta enpresa-ehuna babesteko.

Dela pandemian, dela Errusiak eragindako gerraren ostean, funtsezkoak izan dira autogobernuak ematen dizkigun tresnak eta, orohar, euskal erakundeen ardura eta ahalegina. Baita ere, dagoeneko esan bezala, erakundeek nahiz lurraldeko gizarte eta ekonomia eragileek, gipuzkoar komunitateak oro har, elkarlanean jarduteko erakutsi duten prestutasuna eta gaitasuna.

Azken urteotako trantze zail horietan argi geratu da **oinarri sendoak** ditugula lurralde gisa. Gipuzkoa eta gipuzkoarrok aitzindariak gara babes sozialeko eremuan, desberdinkeria aurkako borrokan, ezagutza aurreratuaren, berrikuntzan, etorkizuneko sektore industrialen garapenean eta komunitatearen partaidetzan oinarritutako soluzioetan, besteak beste.

Pasa den bi legegaldi hauetan, bidegileak garela erakusten duten makina bat gertaera eta datu azaleratu dira. Horien artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

Gipuzkoa gizarte kohesionatua da. Europan gizarte desberdinkeria gutxien duen lurraldeetako bat gara:

1) Gehien eta gutxien irabazten duten herritarren arteko soldata arrakala %23,3 jaitsi da azken bost urteotan (2017-2021); 2012-2016 tartean, arrakala hau %10,2 igo zen. (datua: Foru Ogasuna)

2) Desberdintasun soziala neurtzen duen GINI indizea Gipuzkoan: 25,3 (2018). Europako neurketatik behera (30,8) kokatzen gara, zer esanik ez Estatuko datuetatik (33,2). Kontinenteko herrialde berdinazaleen artean, aurrelari talde horretan kokatzen gaitu datu honek.

3) Elkar Ekin Lanean enplegarritasun estrategiaren bitartez (Elkar Ekin Lanean - Etorkizuna Eraikiz), lurralde osoko garapen agentziak, enpresak, erakundeak eta gizarte eragileak aktibatuz ditugu bazterkeria arriskuan eta kale gorrian geratzeko arriskuan dauden herritarrei lanpostu duin bat eskaintzeko.

- > 2022an 5.000 herritarri eman zaie arreta, lan munduan txertatze ibilbide pertsonalizatu baten bitartez, horietatik % 60,7 emakumezkoak. Urte horretan bakarrik 1.118 lan kontratu sinatzea lortu du.

Gizarte babesean punta-puntako eredia dugu, erakundeen eta irabazi asmorik gabeko elkarleen elkarlanean oinarritzen dena.

Horri esker, **aitzindariak gara gizarte politiketan, pertsonak zaintzeko konpromisoan:**

4) Mendekotasun laguntzak jasotzen dituzte Gipuzkoan 18.765 lagunek (2022), 2019an baino % 20 gehiago (15.531).

- > Estatu guztian mendeko bati etxean zaintza profesionala eskaintzeko diru-laguntzen % 66 Gipuzkoan ematen dira.

5) Gipuzkoako zaharren egoitzetan 5.423 adineko pertsonari kalitatezko zaintza eskaintzen zaio, horietatik % 92 plaza publikoak dira.

- > Zaintza eredu etxekoiago, berritzaile eta pertsonalizatuago batera begirako obrak egiteko prozesua gauzatzen ari gara dagoeneko 30 egoitzetan (**Agenda 2030 - Etorkizuna Eraikiz**).

6) Gizarte politiketan, gipuzkoar bakoitzeko Foru Aldundiak egiten den inbertsioa 701 eurokoa da gaur egun, inoizko zifrarik altuena.

- > Gaur egun (495M) 2015ean baino %32,5 gehiago (161M gehiago, alegia) inbertitzen da gizarte zerbitzuetan.

7) Azpiegitura aitzindariak martxan jarri ditugu gaixotasun mentalak dituzten pertsonen arreta eta gizarte inklusioa sustatzeko:

- > 234 laguni errehabilitazio psiko-soziala eskaintzen zaio lurraldeko hainbat zentrotan.
- > Gaixotasun mentala duten gazteentzako egoitza berria zabaldu berri dugu Arrasaten, 365 egun / 24 ordu zabalik dagoena. Horrelako lehena da EAEn.

Urtetan egindako lanari eta azken urteotan enpresa ehunak egindako ahaleginari esker, ekonomia sendoa, lehiakorra eta berritzailea daukagu:

8) Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren % 2,69 bideratzen da I+Gra,

- > 13.392 lagun ari dira I+G lanetan Gipuzkoan, horietatik 4.700 emakumezkoak.

9) Etorkizuneko sektore industrialak (zibersegurtasuna, smart mobility, gastronomiaren digitalizazioa, 4.0 industria, zilarrezko ekonomia), ikerkuntza eta berrikuntza teknologikoa sustatzeko 2.076 proiektu aurreratu diruz lagundu ditu Aldundiak azken bost urte hauetan. (Etorkizuna Eraikiz)

10) Gipuzkoako 817 enpresari lagundu diegu bere produktuak eta azpiegiturak ziberseguruagoak bilakatzeko, ZIUR Zibersegurtasun Industrialeko Zentroaren bitartez. (ZIUR - Etorkizuna Eraikiz).

11) Gipuzkoaren BPG industrialaren %40 automozioari lotuta dago. Azken urte honetan dagoeneko 300 enpresa ingururekin harremana izan dugu, mugikortasun jasangarrian eta adimentsuaren eraldatzera egokitzen lagundu asmoz. (MUBIL - Etorkizuna Eraikiz)

12) Gure inguruko lurraldeen artean langabezia tasarik baxuena duen lurraldea da gurea: % 7 (Eustat, 2023ko lehen hiruhilekoa).

- > 2016tik hona 9.000 lanpostu industrial sortu dira lurraldean, aurreko urteetako beherako joera gaindituz.

13) Gipuzkoa mundu mailako erreferente da ekonomia sozialean. 44.000 lanpostu ditugu ekonomia sozialean eta lurraldeko enplegu industrialaren %20 baino gehiago suposatzen du honek.

- > Langileen partaidetzan ere punta-puntakoa da gure ekonomia ehuna (**Langileen partaidetza - Etorkizuna Eraikiz**). 2016an helburu honekin sortutako pizgarri fiskalak indarrean sartu zirenetik 2.315 langile sartu dira 432 enpresaren jabegoan.

Horrez gain, **indar komunitario paregabea** duen lurraldea da Gipuzkoa, **orekatua lurralde ikuspegitik eta berritzailea herri politikak elkarlanean** garatzeko garaian. Indibidualismoak gero eta presentzia handiagoa duen garai hauetan, izugarriko balioa dute ezaugarri horiek:

14) Boluntario gisa beren denbora librea eskaintzen dute Gipuzkoan kirol ekintzetan nahiz egitasmo kulturalen eta sozialen antolakuntzan 40.800 lagunek.

15) Herritarren %64,4k Lanbide Heziketa edo Unibertsitate mailako ikasketak ditu, Europa mailan punta-puntakoa datua da hori.

16) Euskal erakundeen, Lanbide Heziketako zentrozen eta enpresen arteko elkarlanari esker, gaur egun Gipuzkoako 2.700 lantoki baino gehiagotan Lanbide Heziketa Duala euskaraz egiten duten ikasleek.

17) Gipuzkoako herri txikiak etxebizitza eta baserrien %90 baino gehiagotan jada banda ultra azkarreko Internet konexioa daukate (Donostiako Avenidan izan dezaketen pareko abiaduran), azken urte hauetan Landagipuzkoa programaren bitartez egindako ahaleginagatik (Etorkizuna Eraikiz) –ia 3.000 etxe eta baserriaraino banda ultra azkarra eraman dugu–.

18) Foru Aldundiaren lankidetzazko gobernantza egitasmoaren bitartez, 68.800 lagunek eta 1.500 eragile baino gehiagok parte hartu dute herri politiken proposamen eta sorkuntzan (Etorkizuna Eraikiz); 150 herritarren proiektu diruz lagundu dira.

Zutabe indartsu horietatik abiatuz, Gipuzkoak jakin du, egungo eta etorkizuneko desfioei erantzuteko garaian, eraldaketa teknologiko-digitala, sozio-sanitarioa eta klimatiko-energetikoari lankidetzatik ekiten.

Herri politikak garatzekoan ere, lankidetzazko gobernantzaren bitartez, berrikuntza aplikatu dugu lurraldean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz egitasmoari esker. 2016az geroztik, elkarlanetik aritu gara etorkizuneko erronkak zehaztu eta agenda publiko eraldatzailea bideratzen. Eta espermentaziotik abiatuz, politika publikoak lankidetzaz oinarri hartuta sustatu ditugu, guztion artean eraikitzeke Gipuzkoaren etorkizuna. Erronka globalei herri ikuspegitik erantzuten ari gara. Alegia, eragile, unibertitate eta arlo ezberdinetako ordezkariekin batera, gai izan gara etorkizunera begira nuklearrak diren eraldatzeei erantzun bateratuak emateko. Herritarrak ahaldunduz, erabakimena zabalduz eta gobernantza eredu berri bat garatuz. Horrela, Euskadi indartzeko ekarpen garrantzitsua eginez.

Horren guztiaren ondorioz, oinarri sendoak eta tresna eraginkorrak ditugu, Gipuzkoako industria eta lanpostuak babesteko eta bultzatzeko, gure gizarte babeseko sistema etenik gabe hobetzen jarraitzeko eta etorkizun gero eta berdeagoa eraikitzeko.

GAUR EGUNGO ETA ETORKIZUNEKO DESAFIOAK

Ez dira autokonplazentzian erortzeko garaiak, ordea. Arazoak eta desfioak sakonak dira; gizartearen, ekonomiaren eta politikaren alorreko eraldatzeek eta zailtasunek hor diraute. Erronka horietako asko ez dira agortuko datozen urteetan; berriak ere iritsiko zaizkigu, ziur asko.

Aldaketa horien artean nabarmenenak jaso ditugu ondoko lerro hauetan, gipuzkoarron ongizate ekonomikoan eta gizarte kohesioan izan dezaketen eragina dela eta. Gipuzkoako Foru Aldundiko erakunde jardunean, EAJ-PNV konprometitzen da aldaketa hauetara guztietara egokitu eta berme guztiak eskainiko dituzten erantzunak lantzeraz. Soluzio errazetan eta itxurakerian erori beharrean, gizartearekin bat irtenbide partekatua lantzeraz eta martxan jartzera, alegia.

1. ERALDATZE DEMOGRAFIKOA

Euskadi osoan, baita Gipuzkoan ere, gizartearen zahartze nabarmena ari gara bizitzen. Jaiotze tasaren jaitsierak, amatasun adinak gora egiteak eta bizitza itxaropena zabaltzeak eragindako fenomeno da hori. Epe luzean bizirik egongo diren hainbat erronkaren aurrean kokatzen gaitu honek guztiak. Datozen hamarkadetan biziko dugun aldaketa handienetako baten hastapenetan gaude, beraz, kontuan izanez gero baby-boom delakoaren belaunaldia erretiro garaira iritsi dela dagoeneko.

Gai kritiko batez ari gara. Ongizate sistemari eusteko formulak bilatu beharko direlako, lehenik; modu nabarmenean zahartzen

ari den gizarte baten zaintza eta arreta beharrak bermatu beharko direlako, bigarrenik; eta gizarteari eta ekonomiari eutsiko dioten pertsonak eta langileen beharra areagotu egingo delako, azkenik.

2. ZAINITZA LANETAN DESOREKA

Nagusiki familia izan da gurean zaintza lanei eutsi dien egitura eta, horren ondorioz, ardura hori emakumeen gain egon da tradizionalki. Alabaina, gure gizartea aldatzen ari da eremu honetan ere. Emakumeak lan merkatuan bete-betean txertatu dira eta berdintasunerantz urrats garrantzitsuak eman ditugu, oraindik egiteko asko dugun arren; bakarrik bizi nahi duten herritar kopuruak ere gora egin du, baita zahartzarora ailegatzean ere; familia egiturak, berriz, gero eta anitzagoak dira eta, gainera, unitateko kide gehienak lan egiten dute; gure eta gure senitartekoen zaintzarekiko dugun ikuspegia ere aldatu da.

Lehen aipatu bezala, errealitate hau gizartearen zahartze trinko batekin batera ari da gertatzen. Gizarte eta familia harremanen ikuspegitik honek guztiak dakarren transformazioarekin bat, gizarte babeseko sistemari hainbat desfio eragiten dion errealitatea da hau. Hala nola, zaintza lanetan emakumeek jasaten duten desoreka gaintzeko premia, ardura partekatua sustatzeko eta lan horien errekonozimendu sozialean sakontzeko; etorkizunean ere pertsona orori kalitatezko zaintza bermatzeko erronka; edota ahalegin horretan komunitatearen partaidetza indartzeko.

Errealitate honi aurre egiteko garaian bidegileak izanik ere, norabide horretan erantzun eta aurrerabide berriak landu beharko ditu Gipuzkoak.

3. ANIZTASUNA ETA MIGRAZIOAK

Aurreko desfioarekin lotuta, inmigrazioa dagoeneko egiturazko elementu soziala bilakatu da Gipuzkoako gizartearen, Euskadi osoan bezala. Datu pare bati erreparatze aldera, dagoeneko mundu osoko 130 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira gure lurraldean eta, gipuzkoar gizarte osoa kontuan izanda, dagoeneko biztanleriaren %8,6k jatorri atzerritarra du. Herrigune batzuetan, gainera, portzentaje hori %20tik gertu kokatzen da.

Aurreikuspenen arabera, errealitate horrek gero eta pisu handiagoa izango du gipuzkoarron artean. Balio partekatuei eta gizarte kohesioari eustea, gipuzkoar berriak euskarara gerturatzea, formazioa, inklusioa eta lanaren bidezko gizartratzea bezalako erronkak areagotu egingo dira datozen urteotan.

4. DIGITALIZAZIOA ETA ERALDATZE TEKNOLOGIKOA

Dagoeneko hainbat urte daramagu 4.0 industriaz edota laugarren industria iraultzari buruz hitz egiten. Pandemiaren eraginez, digitalizazioa are eta bizkorrago hedatzen ikusi dugu azken urte hauetan bizitzako alor guztietan. Horrez gain, adimen artifizialaren ahalmenaz eta garatze maila harrigarriaz jabetzeko aukera izan dugu azken hilabeteotan, baita ere. Garatzen hasi besterik ez diren teknologia kuantikoek ere,

aukera berriak zabalduko dizkiote zientziari eta ekonomiari, datozen urteetan.

Gipuzkoako industrian eta, oro har, enpresetan, indarrez sartu dira 4.0 industriaren babespean garatutako teknologiak. Digitalizazioan aurrerapauso nabarmenak eman dira eta horrek aurrerakada nabarmena dakar berekin eraginkortasunaren, lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik, besteak beste. Baina, aldi berean, erronkak ere eragiten dituzte prestakuntzaren, talentuaren edota enpresa kulturaren ikuspegitik.

Egokitu ez ezik, maila horietan guztietan digitalizazioak zabalitzen dituen aukerak probestu eta bere espazioa bilatzea, horixe da Gipuzkoako ekonomia ehunaren desafioa, enpresa bakoitzaren sektorea eta tamaina edozein izanda ere.

5. DESBERDINKERIEN GORAKADA GLOBALA

Lehenago aipatu den moduan, gizarte kohesioa da Gipuzkoaren balio nagusietako bat. 2008ko krisialditik hona, baina, munduko ekonomiaren bilakaerak eta hainbat joera globalek Gipuzkoara eta Euskadira mehatxu hau ekarri dute: gizarte desberdintasunen gorakadaren mehatxua, alegia. Pandemiaren ondorio sozio-ekonomikoez eta gaur egun bizi ditugun zailtasun ekonomikoez arrisku hori areagotu egiten dute.

2008ko krisialdiak utzitako arrastoaren ondoren, Gipuzkoak lortu du azken urteotan ezaugarri duen gizarte kohesioari eustea. Egungo testuinguruak eta ziurgabetasunek ahalegin berri bat eskatzen dute alor honetan. Errealitate honekin batera, kontuan izan behar da lanpostu prekarioek eta lanaldi mugatuko lanpostuek izan duten gorakada eta, oro har, lanpostu bat edukita ere hilabete amaierara iristeko zailtasunak dituzten herritarren errealitatea.

6. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN FALTA

Emakumeen eta gizonen berdintasun falta egiturazko arazo bat da. Azken urteotan asko aurrera egin badugu ere, berdintasun falta horrek bizirik dirau eta emakumezkoen bizitza pertsonala eta profesionala zigortzen jarraitzen du, tamalez. Gizartean hain hedatuta dauden estereotipoekin hasi, soldata arrakalarekin eta zaintza lanen banaketan desorekarekin segi eta bortizkeria matxistaraino, azken hau izanik berdintasun faltaren ondorio lazgarriena. Berdintasun erreala lortzeko bidean asko dago egiteko eta, gizartearekin bat, ahalegin horretan aurrerapausoak ematen jarraitzeko momentua da.

7. INDIBIDUALISMOA ETA BALIO SISTEMAREN ALDAKETA

Globalizazioarekin batera, balioen aldaketa esanguratsua gertatu da gipuzkoar herritarren artean, Europa osoan bezala. Kontsumoaren gizarte batean bizi gara eta, gainera, gero eta inbibidualistagoak gara; kontsumo ohiturak bilakatu dira norbere izaeraren ikur eta erakusle.

Honekin guztiarekin batera, Gipuzkoak berezko duen izaera komunitarioa ere kaltetua izan liteke. Gure lurraldean milaka lagun boluntario konprometitzen dira hainbat eta hainbat



gizarte, kultura, kirol eta politika ekimenetan, baina dagoeneko nabarmena da hainbat lan burutzeko boluntarioak lortzeko zailtasuna. Baita elkartegintzan konprometituta daudenen arazoa ere, belaunaldi berritzea gauzatzeko garaian.

8. ALDAKETA KLIMATIKOA

Hainbat eta hainbat ahotsek ohartarazitako arazoa dagoeneko etxeko atarian daukagu eta nabaritzen ari da gure lurraldeko ingurunearen bilakaeran eta errealitate meteorologikoan. Muturreko fenomenoek kopurua areagotzea aurreikusten dute adituek, nahiz gure biodibertsitatean eragina izatea, baita lehen sektoreko jardunean ere.

Erronka honen tamainak eskatzen du lurralde aurreratu eta berde gisa gure ekarpena egitea aldaketa klimatikoaren aurkako borrokari eta haren ondorioen eragina murrizteko lanari. Lurraldeak bere osotasunean urrats berriak eman behar ditu ekonomia eta gizartea deskarbonizatzeke konpromisoan, ekonomiaren eta gizartearen trantsizio energetikoan. Eta gizarteak orohar bere bizitza eta garraio ohituretan ere ekarpena egin beharko du norabide horretan. 🌱

III.

AURRERA EGITEKO ARDATZAK, PERTSONA ERDIGUNEAN

EAJ-PNVren ereduak betidanik arreta berezia eskaini dio Euskadiren eraikuntza sozialari. Izaera humanista sakon batetik abiatuz, gizarte desberdintasunei mugak jarri eta pertsona ororen gizarte babesa bermatzeko neurri eraginkorrak eta aurrerakoiak martxan jarri ditugu azken hamarkadetan. Etenik gabe testuinguru berrietara egokituz, krisialdien aurrean euskal erakundeen arteko erantzun partekatuak bideratuz, herritar ororen bitzta proiektuak eta ongizatea lehenetsiz.

Euskadi osoan bezala, hala izan da Gipuzkoan ere. Ongizate eredu horri esker lortu dugu, gainera, Europa mailan gizarte desberdintasun gutxien duen lurraldeetako bat izatea.

Lorpen hori ez da soilik erakundeen meritua, bistan da. Gipuzkoarrok, aurretik esan den moduan, zailtasunen aurrean komunitate gisa jokatzeko dugu, erantzun partekatuak eta kolektiboak bilatzen ditugu. Horren lekuko, Gipuzkoak irabazi asmorik gabeko hirugarren sektore sozial dinamikoa eta bizia du, hamarkada askotan gure lurraldeko desafio sozialei erantzuten jakin duena, erakundeekin elkarlanean. Eredu hori zaindu eta garatzen jarraitzeko momentua da, erronka demografiko eta sozialei aurre egiteko gure lurraldeak duen indargune nagusietako bat izango baita, zalantzarik gabe.

Horri guztiari esker, Europa mailan erreferentziazkoa den ongizate ereduak daukagu. Baina kohesio soziala bermatzeko ahaleginak ez du etenik. Are gutxiago eraldatze ekonomiko, sozial eta demografiko nabarmenak bizi ditugun garai hauetan.



Horri guztiari esker, Europa mailan erreferentziazkoa den ongizate ereduak daukagu. Baina kohesio soziala bermatzeko ahaleginak ez du etenik. Are gutxiago eraldatze ekonomiko, sozial eta demografiko nabarmenak bizi ditugun garai hauetan.

Gizarte ongizateko sistema zabal eta sendoa baten emaitza da kohesio soziala, finean. Alegia, politika publiko eta ekimen multzo baten ondorioa da. Besteak beste, pertsona orori lanpostu duin bat, hezkuntza sistema berdinzale eta aurreratu bat, kalitatezko osasun zerbitzuak, kalitatezko garraio publikoa eta kultura jardueretara sarbidea bermatzean datza, nagusiki. Baina ez hori bakarrik, izan ere, ongizatea herritarrek sortzen duten kapital soziala ere bada; gizarteko dinamiketan parte hartzean, pertsonak sortzen duten balioa ere bada kohesioa.

Kohesioak ez du zerikusirik uniformitatearekin, gizarte anitz eta plural batek elkarrekin bizitzeko eta komunitate gisa garatzeko gaitasunarekin baizik. Gizarte kohesionatu bateko herritarrek komunitate bateko partaide izatearen nortasuna eta izaera batekiko atxikimendua partekatzen dute. Horrez gain, gizarte kontzientzia komuna dute eta, horri esker, hainbat eragileren arteko akordioak gauzatzen dira, epe luzera begirako politikei bidea emanez.

Pertsonak erdigunean jarrita, giza duintasunaren eta bizitzaren balioak oinarri nagusi hartuta, ziurgabetasunari ekimena hartuz aurre egin eta gipuzkoarrok ongizatea sei ardatz nagusiren inguruan babestu eta indartzea proposatzen du EAJ-PNVk datozen foru hauteskundeetan:

- Egungo eta etorkizuneko lana
- Herritar ororen gizarte babesa
- Pertsonen ongizate osoa
- Ingurumena eta lurralde oreka berdea
- Euskara eta kultura, lurralde eta herri gisa izan eta hazteko
- Herritarren eta erakundeen arteko lankidetzak, etorkizuneko gizarte digitalean pertsona guztiak berdintasunez garatzeko.



1. EGUNGO ETA ETORKIZUNEKO LANA

Gipuzkoar eta euskal gizarteak partekatzen dituen balio nagusietako bat da lana eta, batez ere, **ondo egindako lana**. Hamarkadaz hamarkada, belaunaldiz belaunaldi, lan onarekiko atxikimendua eta konpromisoa transmititu izan da gure etxeetan, aiton-amonengandik gurasoengana, gurasoengandik seme-alabengana. Eta, transmisio horren babesean, gure gizartean bizi-bizirik dirauten beste hainbat balio garatu dira gure herrian eta, noski, gure lurraldean: hala nola, talde-lanaren garrantzia, ekintzailetasuna, berrikuntza, kalitatezko enpleguaren aldeko jarrera, interes komunaren aldeko konpromisoa, partaidetza eta elkartasuna.

Pertsonen bizitza proiektua garatzeko garaian, lanak eta lan onak berebiziko garrantzia dute. Lehenik, kalitatezko lanpostu bat ezinbestekoa delako norberaren eta gertuko familiaren ongizatea bermatzeko; bigarrenik, nabarmenki pertsona gazteen eta emakumeen kasuan, hurrenez hurren emantzipaziorako eta berdintasunerako giltzarri den independentzia ekonomikoa

eskaintzen digulako; hirugarrenik, baita ere, lan onaren bitartez gizarteari gure ekarpena egiten diogulako eta, aldi berean, pertsona bezala lan inguru batean auto-errealizatu egiten garelako.

Hein handi batean, gure ekonomia eta enpresa ehuna lan onari lotutako balioen gainean eraiki izan da, bere jatorrian. Eta balio horien gainean garatu eta eraldatu da azken hamarkadetan, baita ere, unean uneko testuingurura eta egoeretara egokituz. Horren lekuko, batetik, gure lurraldean hain sustraituak dauden **balio kooperatiboak eta ekonomia soziala**, munduko talde industrial kooperatibo handiena eratzeko gaitasuna izan duena; bestetik, lurralde osoan zehar jabeen eta langileen arteko konpromiso partekatuaren gainean garatu diren familia enpresak. Zer esanik ez belaunaldiz belaunaldi, eguneroko lan gogorrari esker, ekonomiaren gorabeherei eutsi dioten tokiko denda, negozio eta langintzak, nahiz arrantzale, baserritar eta nekazari familiak.

Balio horiei eutsiz, gaur egun ere gure lurraldean hedatua dago enpresa eredu propio bat, lehiakorra eta munduko merkatu

zailenetan ere lehiatzen dena, berritzailea eta parte-hartzailea, inguruan duen gizartearekin eta ingurumenarekin bete-betean konprometitua, eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasunari eutsi diona azken urteotan.

Mundu osoan abian diren eraldatze teknologiko-digitalak, demografikoak eta sozialak, **ekonomia lehiakorren aldeko apustua** indartzera garamatza. Gizarte kohesionatu baten oinarrian dago, izan ere, ekonomia sendo bat eta enpresa sare aurreratu bat, Gipuzkoan sendo erroturik jarraituko duena, **kalitatezko enplegua** sortuko duena, langileen partaidetzan, berrikuntzan eta nazioartekotzean sakonduko duena. Izan enpresa traktorea, enpresa txiki edo ertaina, digitalizazioan urratsak emango dituena, eraldatze teknologikoak pertsonen lanarekin bateragarri eginez.

Norabide horretan, lurralde gisa **fiskalitate eraginkor eta aurreratu bat** edukitzea ezinbestekoa da eta, horretan ere, orain arteko norabideari eutsiko diogu. Azken hamarkadetan eraikitako zerga sistema justu eta progresiboari eutsiz, justizia sozialaren alde eginez eta familien ekonomia babestuz, batetik. Gure ekonomia eta industria sustatzen laguntzeko tresna bezala eraginez, eta kalitatezko enpleguari bultzada bat emanez, bestetik.

Ekonomia lehiakor baten alde eta, gurea bezalako lurralde industrial batean, bereziki industriaren lehiakortasunaren alde egitea da lan eta enplegu ona bermatzeko elementu nagusia. Etorkizunera begira ere enpresa sare dinamikoa eta indartsua edukitzeko, gure egitura ekonomikoa sendotu eta **ekintzailetasuna** sustatuko duen ekosistema publiko eta soziala indartuko dugu. Ahalegin berezia egingo dugu oinarri teknologikoa duten eta berritzaileak diren enpresen sorrera gauzatzeko, hauek baitira gerora begira industria trakzionatzeko gaitasuna izango dutenak.

Aldi berean, Euskadi mailan indarrean dagoen **espezializazio adimentsuko** estrategia jarraituz, Gipuzkoan etorkizuneko industria garatzeko estrategiari eutsiko diogu, honako sektoreak lehenetsiz: mugikortasun berriari lotutako industria, zibersegurtasuna eta fabrikazio aurreratuak, biozientziak eta terapia aurreratuak, ekonomia zirkularra, zilarrezko ekonomia eta gastronomiaren alorreko ekonomia eta industria.

Pausoz pauso baina geldialdirik gabe, **Zientzia eta Berrikuntza Sare aurreratu bat** indartzen jarraituko dugu, oinarritzko ikerkuntza babestu eta lurraldeko berrikuntza zentroen eta zentro teknologikoen lana are eta determinazio handiagoz sustatuz, sortzen den adimena eta ezagutza aurreratu enpresa ehunera –batez ere enpresa txiki eta ertainetara– igaro dadin eraginez. Gainera, gainontzeko euskal erakundeekin elkarlanean, Gipuzkoan teknologia kuantikoen polo aurreratu bat sortzeko hasitako bideari gogotsu eutsiko diogu eta gune horretan sortuko den jakintza lurraldeko enpresen, ezagutza zentroen eta eragileen esku jarriko dugu.

Gisa honetan, gaur eta bihar, pertsona orok lan eta enplegu ona izan dezan bermatzeko ekarpena egiteko konpromisoa dugu, ekonomia alorreko eragile eta enpresengandik gertu elkarlanean jarraituz eta horien guztien arteko elkarlana sustatuz. Bertako nahiz kanpoko **talentua** garatu, finkatu eta

erakartzeko tresnak indartuko ditugu, atzerrian beren ibilbide profesionala garatu duten gipuzkoarrak nahiz gure lurraldeari ekarpena egin nahi dioten ikerlari eta profesionalak erakarriz. Bizitza osoan zehar formazioa eta Lanbide Heziketa ahalbidetu eta eskaintza indartzeko ekarpen garrantzitsua egiten jarraituko dugu.

2. GIZARTE BABESA: PERTSONAK ERDIGUNEAN

Gizarte kohesionatu baten muinean edo erdigunean pertsonak daude. EAJ-PNVren konpromisoa, beti egin izan dugun moduan, herritar guztien ongizatea babestu eta garatzea da, kontuan izanda **giza duintasuna eta bizitza** direla gauza ororen gaindi dauden balioak. Eta balio horien gainean eraiki behar dela Gipuzkoa, gauza guztien gainetik. Orain arte bezala gizarte desberdintasunei aurre eginez, gizartean behar gehien duten pertsonen lagunduz eta babestuz, inor bazterrean utzi gabe eta zailtasun gehien duten pertsonen lan munduratzea eraginez.

Helburu hori jomugan, gizarte zerbitzuak indartuko ditugu. Gipuzkoa lurralde aitzindaria da gizarte politiketan eta, egungo eraldatze sozial eta demografikoei erantzuteko, **gizarte politikei bultzada berri bat** ematea da gure konpromisoa, pertsona guztien kalitatezko zaintza eta babesa bermatuz.

Horretarako, dagoeneko lurraldeko gizarte zerbitzuetan abian den **zaintza eredu berrirantzako trantsizioa** azkartu eta hedatuko dugu. Eredu honek hiru oinarri nagusi ditu. Lehena, arretaren pertsonalizazioa, erakundeen gizarte eta osasun zerbitzuak pertsona bakoitzaren beharrezanetara egokitu daitezen, koordinazioa eta informazio partekatzea indartuz. Bigarrena, berrikuntza, aurrerapen teknologikoen eta digitalizazioak lagundu dezaten erabiltzaileen eta familien ongizatea areagotzen. Hirugarrena, komunitatearen partaidetza gizarte babesean, zerbitzuen onuradunek inguruko gizarte bizitzan parte hartu dezaten, horrek dakartzan onura guztiekin.

Eredu horrekin jarraituz, Gipuzkoa osoan, menpekotasuna, desgaitasuna edota bazterkeria arriskuan daudenentzat arreta pertsonalizatua garatzen jarraituko dugu, gizarte zerbitzuen onuradunek beren etxetik ahalik eta gertuen jaso ditzaten.

Era berean, gaur egun eta etorkizunean, **adineko pertsonen kalitatezko zaintza** bermatuko dugu, kontuan izanda adituen arabera 2040ko hamarkadan iritsiko garela gizartearen zahartzeak goia joko duen denbora tartera: egoitza berriak eraikiz eta egoitza guztietan eredu etxekoiago baterantz aurrera eginez, berrikuntza, pertsonalizazioa, komunitatea eta bizitza unitate txikiagoak sustatuz. Baita ere, etxeko zaintza profesionalizatua indartzen jarraituz. Horrela, adineko pertsona orok kalitatezko zaintza jaso dezan bermatuko dugu, etxean ez bada, etxean bezala sentitu daitezen.

Kalitatezko zaintza eredu berritzailea hedatu eta bermatzeaz gain, gizarte zerbitzuen **jasangarritasuna** bermatuko dugu, baita ere. Gipuzkoako gizarte ongizateko ereduaren oinarriak sendotuko ditugu, hirugarren sektore sozialarekin elkarlanean.

Babesik gabeko adingabekoen kasuan, berriz, bereziki **familia harrera** sustatuko dugu.

Aurreko puntuan esan bezala, lanpostu duin bat, ogibide bat, beharrezkoa da pertsona gisa garatu, bitziza proiektu bat aurrera atera eta gizartean integratzeko. Horregatik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta pertsonalizatua eskaintzeko ahaleginaren testuinguruan, lan munduan txertatzeko formazio ibilbide bat eskainiko diegu, ibilbide hori lan kontratu batekin gauzatu dadin. **Lan inklusiboaren** bitartez, gizarte desberdintasunei aurre egin eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonen bitziza proiektu bat eskaintzeko.

Familien eta norbanakoen ekonomia babestuko dugu, dela fiskalitatea, dela eskura ditugun bestelako erremintak erabiliz, gaur egungo gorabehera ekonomikoek ahalik eta inpaktu txikiena izan dezaten herritarren ongizatean eta gizarte desberdintasunetan.

3. ONGIZATE OSOA

Pertsona ororen ongizatea zaindu eta bermatzeaz hitz egiten dugunean, ez dugu herritarren oinarrizko beharrak asetzeaz bakarrik hitz egiten. Horregatik, EAJ-PNVk gipuzkoarren **osasuna eta ongizate integrala** bilatuko du momentu oro, berariaz abian jarritako ekimen berriekin, alor horretan diharduten erakunde, eragile eta elkarrekin elkarlanean.

Ongizate oso hori ahalik eta gipuzkoar gehienek bizi dezaten, berebiziko garrantzia du emakumezkoek ere beren bitziza pertsonala eta profesionala berdintasunez garatu ahal izatea. Horretarako, **berdintasun erreala** gizarteko alor guztietan errealitate bilakatu dadin urrats berriak emango ditugu, oraindik tamalez emakumeak zigortzen dituzten estereotipo eta desorekak gainditzeko.

Emakumeen eta gizonen arteko desoreka nagusietako bat da haurren eta adineko senitartekoen zaintzan ematen dena. Horregatik, neurri berritzaileak sustatuko ditugu zaintzak berdintasunez partekatu daitezen eragiteko eta **kontziliazio erantzunkidea** gure gizartean errealitate bilakatu dadin. Emakumeen ahalduntzea sustatuko dugu alor guztietan, soldata arrakala murrizten jarraitzeko eragin eta, berdintasun ezaren ondorio larrienari, biolentzia matxistari, determinazioz aurre egingo diegu, gainontzeko erakundeekin elkarlana estutuz, prebentzioa indartuz eta biktimen arreta pertsonalizaturako zerbitzu berriak abiatuz.

Gizarte bitzitan garatzen gara pertsonok eta horrek ere badu zerikusirik herritarren ongizatean. Pandemiak modu gordinean azaleratu duen errealitate bat da bilatzen ez den bakardadea. Errealitate sozial gero eta zabalagoa. Horren aurrean, **bakardadearen aurkako lurralde estrategia** garatzen eta indartzen jarraituko dugu, komunitate osoa inplikatzu bakarrik bizi diren pertsonen ongizatean.

Puntu honetan berebiziko garrantzia du **belaunaldi artekotasuna** sustatzeak, gizarte zerbitzu berritzaileak martxan jarritz, adineko pertsonen eta gazteen arteko elkarbitzita eta

hartu-emanak errazteko eta, gisa horretan, gizarte bitziza osasuntsu eta gizatiarrago bati bidea emateko.

Buru osasunaren arretan ere gure alea jarriko dugu, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen –zahar eta gazte– ongizatean lagundu eta haien arreta sozio-sanitarioan aurrera egiteko egitasmo eta zerbitzu berritzaileak martxan jarritz, gainontzeko erakundeekin eta, batez ere, Osakidetzarekin elkarlanean.

Honetarako guztirako berebiziko garrantzia izango du ongizate emozionalari arreta eskaini eta **bitziza ohitura osasungarriak eta orekatuak** hedatu eta gai honi garrantzia emateak, alor honetan ere egitasmo berriak martxan jarritz. Batetik, kirol zaletasuna oro har –kirol profesionala eta amateurra– bultzatuko ditugu, horretarako instalazioen eta zerbitzuen hobekuntza sustatuz eta kirol elkarten lana indartuz. Bestetik, herritarren artean **elikadura jasangarria eta osasuntsuaren** aldeko neurriak bultzatuz.

4. ENERGIA TRANTSIZIOA ETA LURRALDE OREKA BERDEA

Aldaketa klimatikoari aurre egiteko konpromisoari lotuta, Gipuzkoak gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik bere ekarpena egin dezan lan egingo dugu. Besteak beste, ekonomiaren, energiaren, gizartearen, lehen sektorearen, mugikortasunaren eta natur inguruneen alorretatik ingurumenaren zaintzarako eta aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egiteko ekimenak martxan jarriko ditugu.

Energiaren eta erregaien alorreko krisialdiari aurre egiteko, Gipuzkoak **energia berriztagarrien sorreran jauzi bat** ematea sustatuko dugu. Ahalegin hori tamaina txikiko, ertaineko eta handiko instalazioen bitartez gauzatu beharrezkoa da. Gainera, energia komunitateen sorrera bultzatzen jarraituko dugu, herritarrek argi indarra prezio justu batean lortu dezaten eta, aldi berean, berriztagarrien sorrerari guztion artean bultzada bat eman diezaiogun.

Europaren Itun Berdean ezarritako norabideari jarraituz, gizartearen eta ekonomiaren **trantsizio energetikoa** bultzatuko dugu. Horretarako, berriztagarrien hedatzeaz gain, oinarrizko faktorea da energia efizientzia sustatzea gure etxeetan, erakundeetan eta enpresetan, eta horretan ere ekarpena egiteko determinazioa dugu.

Norabide berean, **ekonomia zirkularra** izango da beste lehentasunetako bat. Gure enpresen produktu eta zerbitzuen diseinuan eta fabrikazioan zirkularitatea hedatu dadin lan egingo dugu, ekonomia zirkularri lotutako proiektuak sustatuz eta, maila guztietan, hondakinen birziklapena eta berrerabiltzea bultzatuz.

Aldaketa klimatikoaren aurkako borroka eskatzen du, baita ere, **mugikortasun jasangarria eta konektatua** aurrera egitea. Horretarako, eskualde guztietan garraio publiko eraginkorra bermatu eta hobetuko dugu. Aldi berean, errepide sarearen jasangarritasuna, segurtasuna eta erosotasuna indartu eta

mugaz gaindiko errepide adimentsuen lotura bideratzeko lan egingo dugu, Gipuzkoako gaitasun handiko errepideen sareak osatzen duen biribilgunea –Gipuzkoako errotonda– digitalizatuz, adimentsu eginez eta etengabeko berrikuntzaren bidez iraunkorragoa, erosoagoa eta seguruagoa bilakatuz.

Ingurumenaren eta biodibertsitatearen babesak zerikusi zuzena du, baita ere landa ingurunearekin. Izan ere, historikoki izan den moduan, lurraldeko azaleraren eta naturaren zuzeneko kudeaketa baserritar, nekazari eta abeltzainen esku dago gaur egun ere. Horregatik, funtsezkoa da **lehen sektorearen aldeko apustu garbiari** eustea, baserriko ustiapenen errentagarritasuna eta belaunaldi berritzea sustatuz, kudeaketa modu berritzaileetan sakonduz, **lurralde oreka berde** baten alde egiteko.

Lurraldearen %60 baino gehiago zuhaitzez estalia egonik, behar-beharrezkoa da **basoen kudeaketa jasangarrian** ere aurrera egitea. Horretarako, basoen jabeagoa errespetatuz, bultzada publiko berri bat proposatzen dugu baso jabe txikien jarduna errazteko eta, modu berean, lurraldeko basoen papera indartzeko CO2 xurgatzaile gisa eta bioekonomiaren alorrean duten garrantziaren ikuspegitik.

Izan ere, lurralde oreka berdea gauzatzeko bidean, ezinbestekoa da **landa ingurune bizi bat eta herri txiki dinamikoak**, non belaunaldi berriek ere bere bizitza proiektuak ongizate eta erosotasun osoz eraikiko dituzten, gaur egungo gizarte bizitzak eta ekonomiak eskatzen dituen zerbitzu eta azpiegiturak lurralde osoan berdintasunez hedatuz eta orekatuz. Landa ingurunean eta herri txikietan ekonomia aktibitate berria sortu dadin baldintzak sortu eta dagoeneko dauden aukerak sendotzea izango da gure egitekoa.

Honekin guztiarekin lotuta, babestutako natur **inguruneen eta, oro har, ingurunearen eta biodibertsitatearen babesean urratsak** ematen jarraituko dugu. Ere mu urbanoetako eta landa inguruneetako herritarrek naturarekin harremanean modu orekatuan bizi daitezten. Mendiarekin eta naturarekin gozatzeko gogoari bidea emanez, baina aldi berean ingurumenaren kontserbazioan eta natur ingurunea zaintzen duten baserritar eta abeltzainen lanean aurrera eginez, ondorengo belaunaldiak ere goza ahal izan dezaten. Gure paisajea eta izaera errespetatuz, klima aldaketaren aurkako neurriak posible eginez, eta elikadura osasungarria eta tokikoa produzitzeko aukerak garatuz, alegia.

5. ELKARLANEAN: BUROKRAZIA ARINA ETA ADMINISTRAZIO DIGITALA

Gipuzkoa **elkarlanaren lurraldea** da, gure izaeran txertatutako balioa baita auzolana, egitasmoak talde lanean aurrera ateratzea. Politika publikoetan ere, azken zortzi urte hauetan, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bidez jakin dugu lankidetzaren erdigunean jartzen eta **lankidetzazko gobernantza** lurraldearen erakundearen jardunean txertatzen. Baina alor honetan ere aurrera egiteko garaia da. Horregatik, egungo eta etorkizuneko desafioen aurrean hartu beharreko gogoetak partekatu eta erabakiak elkarlanean hartzen jarraitzeko

konpromisoa dugu. Politika publikoak ekonomia eta gizarte alorreko elkarrekin eta, oro har, herritarrekin elkarlanean diseinatu eta aurrera egiteko konpromisoa. Honetan ere lurralde aitzindaria da Gipuzkoa eta hala izaten jarraitu dezan gogor lan egingo dugu, Etorkizuna Eraikiz lankidetzazko gobernantza ereduaren sakontzen jarraituz.

Horrela, **Gobernantza onean sakontzea, gardentasunean eta eredu garritasunean erreferentzia** izango den Foru Aldundi bat osatzen jarraitzea, lehenetsutako eremuetako bat izango da datorren legegaldian ere, jardueraren publikorako kode etikoak egokitzen jarraituz, eta gardentasuneko protokolo eta neurriak areagotuz. Aldi berean, baliabide publikoen erabilera egokia eta neurrikoa egiteko konpromisoa berresten dugu, nahiz politika publikoen eraginkortasuna ebaluatzeko moduak garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.

Europa osoan eta munduan zehar indartzen ari diren ezkerreko zein eskuineko populismoen aurrean, **balio demokratikoak** aldarrikatu, zaindu eta indartzeko unea da. Lankidetzazko gobernantzatik eta, oro har, lankidetzazko demokraziatik Gipuzkoak norabide horretan ekarpena egiten jarraitzea nahi dugu. **Europa demokratiko, lehiakor eta sozialki kohesionatu** baten ekarpena egingo dugu.

Honekin bat, Administrazioaren kudeaketa eredu garri baterako ezinbesteko baldintza betetzeko lan egingo dugu, herritarrek Foru Aldundiarekin harremanak izateko, bai eta izapideak egiteko moduak errazteko eta garatzeko ere. Horretarako, batez ere, **desburokratizazioan** jarriko dugu azpimarra, herritar soilek nahiz hainbat sektoretako eragileek ahalik eta modu erraz eta azkarrenean osatu ditzaten beren harremanak Foru Aldundiarekin.

Horretarako, ezinbestekoa izango dugu foru erakundeak **digitalizazioaren** alorrean egindako ibilbidean aurrera egiten jarraitzea eta, baita ere, **erakundeen arteko elkarlana** estutzea, herritarrei arreta gaurkotu, eroso eta eraginkor bat eskaintzeko helburuarekin.

Azken urteotan **Foru Ogasunaren digitalizazio prozesuan** egindako aurrerapausoak, baita ere, ate berriak zabaldu dituzte herritarrekin harremanak hobetu, erraztu eta oraindik eta arreta eraginkorragoa emateko. Ahalegin horri esker, zerga iruzurraren aurkako borrokan sakontzeko aukera izango dugu eta, baita ere, herritar, enpresa eta autonomoek arreta pertsonalatuagoa eta erosoagoa eskaintzeko aukerak biderkatuko dira.

6. IZAN ETA HAZI

Pertsonen eta herri baten garapenean berebiziko garrantzia duen beste elementuetako bat da **kultura**, munduan kokatzen laguntzen digulako, gogoetarako, gozameneko eta elkarbizitzarako edukiak eta espazioak sorrarazten dituelako. Horregatik, gipuzkoarren behar artistiko eta kulturari bide emango diegu, eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiko diegu.

Gipuzkoako **kultur sortzaileen lana** babestuko dugu, beren lanaren izaera propioaren ezaugarriak erreparatuz eta Foru



Aldundiaren ekarpena horretara egokituz, eta **industria kulturalen aldeko apustua** landuko dugu. Atal honetan berebiziko garrantzia daukate ikus-entzunezkoek; hori dela eta, alor honetako sektorearen eta profesionalen lana lagunduko dugu, bereziki euskarazko lanak eta euskarazko bideo-jokoen sorrera bultzatuz. Eduki kultural globalen garaian, kultura ekoizpen propioa sustatuko dugu, fikzioan eta entretenimenduan oinarritutako euskal ikus-entzunezkoen industria garatzeko, lehiakortasun baldintzetan nazioarteko merkatuetara ateratzeko eta berritzeko asmoarekin.

Modu horretan, gipuzkoar eta euskal herritar gisa, euskal kulturaren, nortasunaren eta hizkuntzaren transmisioa gauzatzeko bide berriak zabalduko ditugu. Euskara da, hain zuzen ere, izaera partekatu horren ardatz nagusietako bat eta komunitate osoaren kohesiorako tresna ezinbestekoa. Horregatik, **euskararen erabilera indartzeko lanean** jarraituko dugu administrazioan, bizitzako alor guztietan eta esparru sozioekonomikoan, euskalgintzarekin elkarlana, gizarte aktibazioa eta berrikuntza ardatz hartuta. Lan munduan erabilerak jauzi bat eman dezan eragingo dugu, berrikuntza indartuko dugu Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Laborategiaren bitartez eta, Euskaraldian ikasitakoei jarraituz, etorkizunean eta urte osoan zehar Aldundia eta Gipuzkoa arigune –euskaraz lasai aritzeko espazio– izan daitezen lan egingo dugu.

Administrazioarekin harremanetan jartzeko garaian ere, herritarren hizkuntza eskubideak defendatu eta errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu, azken hamarkadetan euskararen berreskuratzean egindako ibilbidea ezbaian jar dezaketen erabakiei aurre eginez.

Ahalegin hori gero eta gizarte anitzago batean gauzatu beharrekoa da eta, hori dela eta, aniztasunarekiko errespetuak (kultura,

jatorria, erlijioa, generoa, sexu orientazioa) gidatuko ditu gure politikak. **Lurralde anitza eta inklusiboa** eraikitzen jarraitzeko proposamenak landuko ditugu eta, horretarako, eskubide berdintasuna eta diskriminazio eza bermatzeko ekarpena egingo du Foru Aldundiak, giza eskubideen eta aniztasunaren alorrean lanean diharduten eragile eta elkarteekin elkarlanean, beti ere. Era berean, bazterkeria arriskuan dauden pertsonen lan munduratzea eta gizarteratzea sustatzen segiko dugu, helburu hori lortzeko lurralde osoaren aktibazioa eraginez.

Lurralde eta herri gisa izan eta hazi nahi badugu, baita ere, ezinbestekoa dugu elkarbizitzan aurrera egitea gure urruneko eta hurbileko iraganean izandako gertaera gogorren inguruko memoria etikoa sustatzea. Memoria historikoan sakontzeaz gain, ahalegin honek eskatzen du ETaren bortizkeriaren eta bestelako Giza Eskubideen urraketak jasan dituzten biktimen inguruko **memoria bermatzea, bizikidetzeta eta kultura demokratikoa indartzeko** beharrezko baldintza gisa.

Belaunaldi gazte dira gazteak eta, norabide horretan, gazteen emantzipazioa eta famili-proiektuen eraikuntza errazteko konpromisoa dugu, gazteen lan munduratzea eta aisialdi aukerak aberastuz eta herri politiken diseinuan duten partaidetza areagotuz.

Lan lerro horien guztien bitartez, etorkizuneko Gipuzkoaren eta, oro har, **Euskadiren izana, oraina eta geroa, hazi arazi** nahi dugu. Herri bakoitzean eta lurralde osoan, XXI. mendeko herri gisa sendotzen joan gaitezen ekarpena egiteko ilusioa eta indarra dugu. Ekarpene partekatua, herritar guztiekin elkarlanean egin beharrekoa, baina herritar oroengizatea eta herri oso baten garapena bilatzen duena. Zentralizazio saiakeri baliabide guztiekin tinko aurre eginez eta, azaleko planteamenduen aurrean, gure eskumenak eta erakundeak gogor defendatuz. 🌱

IV.

BISIOA, MISIOA, BALIOAK ETA HELBURUAK

BISIOA

Elkarlanean eta etorkizunera begira aurrera egiten duen Gipuzkoa, gaur eta bihar herritar orori kalitatezko lana, gizarte babesa eta bizitza proiektu orekatu bat eskainiko diona; ekonomia lehiakor batetik abiatuz, pertsona guztiei ongizate osoa eskainiko dien lurralde kohesionatua, desberdintasun gutxikoa, integratzailea eta jasangarria.

MISIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, mundu zabalean nagusi diren ziurgabetasun eta eraldatzen testuinguruan, egungo eta etorkizuneko desfioei gipuzkoar guztiekin elkarlanean erantzungo die, datozen hamarkadetako gipuzkoarren ongizatearen oinarriak jarritz lurralde eta herri gisa aurrera eginez:

- Ekonomia sendo, berritzaile eta lehiakor bat garatuz, kalitatezko lanpostuak sortu eta familien ekonomia babestuko duena.
- Pertsona erdigunean jarrita, berrikuntzaren eta komunitatearen partaidetzarekin, herritar orori gaurko eta etorkizuneko gizarte babesa bermatuko diena.
- Dagoeneko gurean ditugun eraldaketa sozial, teknologiko eta ingurumenekoei lankidetzazko gobernantzaren bidez, modu aitzindariari eta berritzailean erantzungo dien erakundea gidatuz.

BALIOAK


Konfiantza: Gipuzkoak hamarkada luzez landu dituen oinarri sendoetan eta gipuzkoarren konfiantza erabatekoa dugu. Pertsonen, erakundeen, eragileen eta herritarren arteko konfiantza lantzen jarraitzea ezinbestekoa da lurraldeak aurrera egiteko.

Proiektua: hamarkada luzez Gipuzkoa eta Euskadi aurreratu eta justu bat eraikitzeke egindako lana eta ekarpena da EAJ-PNVren jardunaren eta proiektuaren lekuko. Gipuzkoak aurrera egiteko proiektu sendoa da gurea, errealista eta benetakoa, arazoan aurrean proposamen egingarri eta orekatuetan oinarritzen dena.

Eredua: Gipuzkoa gaur egungo ongizate mailara iritsi bada, hori eredu sendo baten eskutik izan da: ekonomiaren eta enpresen lehiakortasuna defendatu eta, aldi berean, gizarte kohesioa lehentasun nagusi gisa hartzen duen eredu baten eskutik, alegia.

Elkarlana: Gipuzkoa elkarlanaren lurraldea da eta horixe da gure lurraldearen indargune nagusia. Iraganeko eztabaida amaigabeak gaiztatu, azken urteotan jakin dugu elkarlana erdigunean jartzen. Horixe delako egungo testuinguruan aurrera egiteko modu bakarra: arazoei eta desfioei ilusioz eta talde lanean erantzunez.

Berdintasuna: gizarte desberdintasunak onartzen ez dituen gizartea da gurea, emakumeen eta gizonen berdintasunean urrats ausartak eman nahi dituen, lurralde oreka defendatzen duena.



HELBURUAK

1. EKONOMIA SENDO ETA LEHIAKOR BAT ERAIKITZEA: familien ekonomia babestu eta kalitatezko enpleguaren sorreran eragiteko, Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna indartzea, etorkizuneko sektore industrialak garatzeko, ekonomia sareak beharrezko dituen eraldaketak laguntzeko eta lurraldean ekonomiaren aldeko baldintza egokiak sortzeko. Ekonomia sarearen lehiakortasuna eta herritarren ongizatea bermatuko duen fiskalitate politika garatzea.

2. PERTSONA ERDIGUNEAN JARRITA, GIZARTE POLITIKEI BULTZADA BERRI BAT EMATEA: gizartearen zahartzearen eta egungo munduan sortzen diren gizarte premia berrien aurrean, herritar zaugarrienei etxetik ahalik eta gertuen zaintza pertsonalizatua eskaintzeko, berrikuntzan eta komunitatearen partaidetzan sakonduz eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duen zerbitzuen bideragarritasuna bermatuz.

3. DEMOKRAZIAN ETA LANKIDETZAZKO GOBERNANTZAN SAKONTZEA: etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bitartez Gipuzkoan abiarazitako lankidetzazko gobernantza ereduan aurrera egiteko; administrazioa desburokratizatu, gizartera gerturatu eta herri politiken diseinuan gipuzkoarren partaidetzari bidea emateko, eta euskal erakundeak eta autogobernua babesteko.

4. KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEA, komunitate, udalerrri eta lurralde mailan eragingo duen estrategia sistemiko baten bitartez: energia trantsizioa sustatuz eta berriztagarriak hedatuz, ekonomia zirkularra eta birziklapena indartuz.

5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERREALA GAUZATZEA, gizarte justu eta berdinzaleago bat egiteko, emakumeak bizitza pertsonal eta profesionalean zigortzen dituzten estereotipo eta desorekak gaituz eta bortizkeria matxistarik gabeko lurraldea eraikiz.

6. EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEA, bizitzako alor guztietan, batez ere esparru sozioekonomikoan eta erabilera sozialean, euskalgintzarekin elkarlana, gizarte aktibazioa eta berrikuntza ardatz hartuta.

7. MUGIKORTASUN JASANGARRIAN ETA KONEKTATUAN JAUZI BAT EMATEA, eskualde guztietan garraio publikoa hobetu eta erabilera indartzeko, eta errepide sare seguru, iraunkor eta adimentsua garatzeko.

8. GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA SAREA SENDOTZEA, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko, ekonomiaren lehiakortasunean eragiteko eta enpresa txiki eta ertainetan digitalizazioa eta berrikuntza sustatzeko.

9. KULTURA DEMOKRATIKOAN OINARRITUTAKO LURRALDE ANITZA ETA INKLUSIBOA ERAIKITZEA, giza eskubideetan oinarritutako memoria eta elkarbizitza indartzeko, eta pertsona orori berdintasuna eta bizitza proiektu aske eta orekatu bat eskaintzeko.

10. KULTUR SORKUNTZA BABESTU ETA SUSTATZEA, eskaintza eta kontsumoa indartuz, gure kultura propiotik munduari ekarpena egiteko eta gazteen artean bereziki euskarazko edukien kontsumoa areagotzeko.

11. HERRITARREN BIZITZA OHITURA OSASUNTSUEN ALDE EGITEA, gipuzkoar guztiak modu orekatuan lan eta bizi gaitetzen, buru osasuna, bakardadea eta adikzioena bezalako errealitateen prebentzioan sakonduz, elikadura jasangarria, kirola eta ariketa fisikoak egiteko ohiturak zabalduz.

12. LURRALDE OREKA BERDEA, herri txiki eta landa inguruneen geroa bermatzeko, lehen sektore bizi baten alde eginez, basoen kudeaketa jasangarria garatuz eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zainduz.

2023-2027 EGITASMOA:

AURRERA EGITEKO BIDE-ORRIA

1. HELBURUA: Ekonomia sendo eta lehiakor bat eraikitzea

Ekonomia sendo eta lehiakor bat eraikitzea, familien ekonomia babestu eta kalitatezko enpleguaren sorreran eragiteko. Gipuzkoako enpresen lehiakortasuna indartzea, etorkizuneko sektore industrialak garatzeko, ekonomia sareak beharrezko dituen eraldaketak laguntzeko eta lurraldean ekonomiaren aldeko baldintza egokiak sortzeko: fiskalitatea, azpiegiturak, berrikuntza, finantziarioa, talentua eta partaidetza, besteak beste.

1.1. KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATZEA

Lanaren eremua eraldatzen ari den honetan, gure lehentasun nagusia izango da sektore eta eskualde guztietan pertsonak eta enplegua babestu eta finkatzea, bereziki lanpostu bat lortzeko zailtasun gehien dutenei bide horretan lagunduz. Gainera, lanpostuen sorrera eta bizitza osoan zeharreko formazioa sustatzeko lan egingo dugu etenik gabe. Beti ere, argi edukita kalitatezko enplegua bermatzeko modu bakarra enpresa lehiakorrek edukitzea dela, egungo eta etorkizuneko gako eta eraldatzei aurre egingo dien ekonomia sare sendo eta aurreratua, alegia.

Aurrerapen teknologikoen –adimen artifiziala, digitalizazioa edo robotizazioa, hala nola– eta ekonomia berdearen eraginez, enplegu berriak sortzen ari dira. Era berean, profil tekniko espezializatu berriak eskatzen ari dira eta, horrek etenik gabeko prestakuntzan eta trebakuntzan arreta jartzera garamatza. Ezin ahaztu, ezta ere, “enplegatu pobreen” errealitatea, gaur egun kasu askotan lanpostu bat edukitzeak, berau kalitatezkoa ez bada, ez duelako bermatzen pertsona baten ongizatea.

Horregatik, ekonomiaren alorreko desafio nagusietako biri erantzun diogu atal honetan. Batetik, enpleguaren beraren ezaugarriari eta kalitateari eta, bestetik, bizitza osoko formazioari eta talentuaren garapenari, pertsonak direlako gure ekonomia ehunaren lehiakortasunaren aktibo nagusia.

1.1.1. ERALDATZE TEKNOLOGIKOEN AURREAN, PERTSONEN GAITASUNAK INDARTZEA

- Enpresetan, bereziki enpresa txiki eta ertainetan, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren aldeko testuingurua sustatzea, eguneroko lanarekin uztartu daitezkeen formazio programen bitartez, pertsonak funtsezko gaitasunak eskuratu eta etenik gabe berriro ditzaten, egungo eta etorkizuneko eraldatzeetara egokitzen jarraitzeko.
- Gipuzkoako enpresen eraldaketa sustatzea, enplegarritasunean aurrera egin eta etorkizuneko

enpleguaren erronkek sortuko dituzten aukera berriak probestu eta kalitatezko enpleguan aurrera egin dezaten.

- Lanbide Heziketako sarearekin eta lurraldeko unibertsitateekin elkarlanean, hurrenez hurren, Lanbide Heziketa duala eta Unibertsitate formazio duala sustatu, bereziki eraldatze teknologikoei sortutako eremu profesional berrietan.
- Lan inklusiboa: Elkar-Ekin Lanean egitasmoaren bitartez, gizarte bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonak enplegura gerturatzeko politikak indartzea.
- Lanpostuen hutsuneak osatu eta belaunaldi berritzea gauzatzeko politikak: zahartzeak eta espezializazioak eraginda, hainbat lanpostu betetzeko dagoen giza kapital eskasiari aurre egiteko.

1.1.2. KALITATEZKO ENPLEGUA

- Enpresetan antolakuntza eta kudeaketa sistema parte-hartzaileak garatzea, langileen parte hartzea sustatzeko sistema oso bat bultzatuz. Langileek emaitzetan eta jabegoan parte hartu dezaten sustatuko dugu, enpresen errotzea eta lurraldearekiko konpromisoa areagotzeko elementu garrantzitsu gisa.
- Gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasunak ekiditeko neurriak indarrean jartzea, enpleguaren kalitatea hobetzeko prozesuen baitan genero ikuspegia ere txertatuz.
- Pertsona gazteen laneratze ibilbideak sustatzea, enplegarritasuna hobetu eta kalitatezko lanpostuetara sarbidea errazteko.
- Kontzilio erantzunkiderako politikak zabaltzea, jardun profesionala eta bizitza pertsonala bateragarriagoak eta orekatuagoak izan daitezkeen. Erantzunkide Sarearen bitartez, berdintasunean eta kontziliozko eredugarriak diren esperientziak enpresa sarean hedatzea.

- Enpresa antolaketa berriak sustatzea. Ingurune aldakorretara modu jasangarri batera egokitzen diren enpresa antolaketa berriak bultzatuko ditugu.

1.2.3. TALENTUA SORTU, FINKATU ETA ERAKARTZEA

- Gainontzeko euskal erakundeekin elkarlanean, talentua sortu, erakarri eta errotzeko estrategia integrala indartzea, Gipuzkoa nazioarteko ikuspegitik ere lanerako eta bizitzeko lurralde erakargarri bihurtuz.
- Beren ibilbide profesionala nazioartean garatu duten gipuzkoarren itzulera ahalbidetuko dugu, lurraldeko enpresek beren proiektuetarako dituzten beharretarako loturak eginez.
- STEAM bokazioen bultzada eta emakumeen presentzia areagotzea. STEAM ikasketak sustatuko ditugu (zientzia, teknologia, ingenieritza, artea eta matematikak), arlo horretan emakumeen presentzia eskasa handitu nahian.
- Goi mailako ikertzaile eta talentuaren erakarpen eta errotzea Zientzia eta Berrikuntza Sarea indartzeko. Zientzialarien ibilbide profesionalak bultzatuko ditugu epe ertain eta luzera, Fellows Gipuzkoa eta Ikerbasque-ren arteko lotura eta osagarritasuna bilatuz.

1.2 ENPRESEN LEHIAKORTASUNA INDARTZEA

Gure lurraldeko enpresen lehiakortasuna urte luzez egindako lanaren emaitza da; besteak beste, berrikuntzan, nazioartekotzean, formazioan eta kudeaketa aurreratuan egindako ahaleginaren emaitza. Etenik gabe, anbizioz landu beharreko gaia da, ordea, are gehiago gurean ditugun eraldatzeen aurrean. Aukera berriak probestu, beharrezko inbertsioak egiten jarraitu eta datozen erronka eta beharrei modu eraginkor eta lehiakorren erantzuteko gai izan daitezen nahi dugu. Bidelagun izango gara ahalegin horretan, batez ere enpresa txiki eta ertainak testuinguru berrietara egokitu daitezen.

1.2.1. TEKNOLOGIAREN GARAPENA, ERALDATZE TEKNOLOGIKO-DIGITALA ETA ENERGETIKOAN AURRERA EGITEKO

- Digitalizazioa eta eraldaketa teknologikoa azkartzea, bereziki enpresa txiki eta ertainen kasuan. Lurralde mailako eta eskualdeetako eragileekin elkarlanean, enpresen egoeraren diagnosia egin eta digitalizazioan aurrera egiteko ibilbide eraginkorrak martxan jartzea.
- Ekoizpen prozesuetan nahiz eskainitako produktu eta zerbitzuetan sarean datuen erabilera aurreratua bultzatzea, enpresen abantaila lehiakorrak areagotzeko.
- Gipuzkoako industriaren produktu eta zerbitzuen zibersegurtasuna sendotzea, zibersegurtasun enpresen eta enpresa industrialen arteko elkarlana bultzatuz.
- Fabrikazio aurreratura eta 4.0 industriara bideratutako egitasmoak bultzatuko ditugu enpresatan.

- Zentro teknologiko eta enpresa sarearen arteko elkarlanari bultzada berri bat ematea, ezagutza aurreratua, ikerketa eta garapen teknologikoa duten proiektu berritzaileak merkatura iritsi daitezten.

- Enpresetan trantsizio energetikoa sustatzea, berriztagarrien erabilera eta energia efizientzia garatuko duten proiektuen bitartez.
- Enpresen produktu eta zerbitzuen zirkulartasunak dakartzan abantaila lehiakorrak baliatzeko egitasmoak sustatuko ditugu.
- Trantsizio energetikoa sustatzeko sortutako araudi berrietara egokitzeko gidak sortzea, eraldatze horretan enpresa txiki eta ertainen bidelagun izateko.
- Adimen artifiziala eta teknologia kuantikoen erabilera bultzatzeko estrategiak gauzatzea, lehiakortasunerako tresna eta pertsonen lanaren osagarri eta bateragarri izan daitezen.

1.2.2. LEHIAKORTASUNERAKO AZPIEGITURA EKOSISTEMA SENDOTZEA

- Gipuzkoako Parke Teknologikoak enpresa berritzaileei eskaintzen dizkien espazioak garatzea, modu berezian Zubietara (Hondarribia) parke hori zabaltzeko egitasmoa gauzatuz.
- Gipuzkoako Parke Teknologikoaren eremua zabaltzea Miramonen (Donostia), Galarretan (Hernani) eta Illunbeko eremua parkera gehituz.
- Azpiegitura teknologikoen indartzea, gure ekonomiaren berrikuntza eta lehiakortasuna sendotzeko.
- Biozientzien inguruko enpresen azpiegiturak eta terapia aurreratueta in kubategi aurreratu eta erreferentziazkoa bultzatzea.
- Ekintzailetasuna sustatzeko ekosistema indartzeko azpiegitura aurreratu eta espezializatuak. Ekintzailetasuna eta jarduera ekonomiko berriak sustatzeko azpiegitura aurreratu eta espezializatuak sustatuko ditugu Gipuzkoan.
- Enpresa eta industria poligonoen sarbideetako bide azpiegitura egokiak eraiki eta hobetzea.
- Eraldatze digitalak, energetikoak eta sozialak sortzen dituzten aukerak probestu eta beraruetara egokitzeko, erreferentziazko zentroak gauzatzea, enpresen arteko elkarlana eta ezagutza aurreratuaren sorrera indartzeko.
- Abiadura Handiko Trena eta Euskotrenen zerbitzuak lurperatzeak ekonomia jardueran edukiko dituen balizko onurak identifikatu eta horiek probesteko ekintzak diseinatzea.
- Pasaiako portua indartzea Portu Agintaritzarekin eta gainerako erakundeekin elkarlanean, portuaren jarduera ekonomikoa indartuko duten egitasmo berriak gauzatzen jarraitzeko.

- Hondarribiko aireportuan zerbitzuen hobekuntza bultzatu eta konexio berriak lantzea, Ortzibiarekin eta gainerako erakundeekin elkarlanean.
- FICOPA Gipuzkoako Erakustazokarekin elkarlanean, lurraldeko enpresentzako interesgarriak diren merkatu-nitxo berriak identifikatu eta azoka industrial berritzaileak antolatzea.

1.2.3. NAZIOARTEKO MERKATUETARA ZABALTzea

- Gainontzeko euskal erakundeekin elkarlanean, Arku Atlantikoa osatzen dugun herrialde, lurralde eta eskualdeen arteko harremana eta elkarlana sustatu, Gipuzkoako enpresentzat aukera berriak identifikatu eta probesteko.
- Misio enpresarialak bultzatzea intereseko merkatuetan. Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea indartzera zuzendutako enpresa misioak burutuko ditugu intereseko merkatuetan.
- Enpresa txiki eta ertainei (ETE) zuzendutako nazioarteko aholkularitza. ETEen nazioartekotzea erraztera zuzendutako aholkularitza espezializatua sustatuko dugu.
- Gipuzkoarentzat estrategikoak diren etorkizuneko alor industriak –mugikortasun berria, zahartze osasuntsua, zibersegurtasun industrial, kuantika, biozientziak eta gastronomia digitala– nazioarteko ezagutza aurreratuarekin konektatzea, erreferentziazko zentroen bitartez.

1.2.4 ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN ERALDATzea SUSTATzea.

- ETEen arteko, nahiz hauen eta enpresa traktoreen arteko elkarlana sustatuko duten espazioak sortzea eta babestea, beren jarduera eraldatzeko, berrikuntzan sakontzeko, proiektuak eskalatzeko nazioarteko merkatuetara zabaltzeko aukera gisa.
- Gipuzkoako enpresa sareak ‘bi eskuko kudeaketan’ sakondu dezan eragitea, momentuan momentuko beharrez gain epe luzearako begirada izan dezan, antizipazioa landu dezan eta bere aktibitatea dibertsifikatzeko negozio aukerak landu ditzan.
- Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainak indartzeko programa integrala bultzatuko dugu, enpresen errotzea, jarraipena eta errelebo prozesuak lagunduz, nazioartekotze eta finantziatorako aholkularitza eta instrumentuak garatuz eta balio erantsi handiagoko negozioen eraldaketak erraztuz.

1.2.5 ZAILTASUN EGOERAN DAUDEN ENPRESEI LAGUNTzea.

- Zailtasun egoeran egon daitezkeen enpresak identifikatzeko eta prebentziorako behatokia, atzera bueltarik gabeko egoerak aldeztu aurretik ekidin eta jasangarritasun egoerara bideratzeko.
- Finantziarioa eta bideragarritasun planak behar dituzten enpresei zuzendutako bitartekaritza zerbitzua.

- Langabetuen enpleagarritasuna hobetu eta jarduera ekonomikoaren jarraipena eta berrindartzea bideratutako neurriak abiatuko dira.
- Alorreko erakundeekin elkarlanean, finantzen inguruko aholkularitza eta sentsibilizazioa eskaintzea.

1.3. EKONOMIA JARDUERA ETA INDUSTRIA SEKTORE BERRIAK

Gipuzkoako ekonomiaren ezaugarri historiko nagusietako bat izan da ekintzailetasuna. Datorren legealdian jauzi bat eman nahi dugu alor honetan, gipuzkoarren artean enpresa proiektu bat edo negozio berri bat sustatzeko kultura indartu eta, baita ere, kanpotik ere ekintzailetasuna babesten duen lurralde gisa ikusi gaitzaten. Modu berezian, aukera eremuak zabaltzen dituzten sektoreetan ekonomia aktibitate berria eragingo duten ekosistema eta egitasmoak gauzatzeko ditugu, etorkizuneko lanpostuak eta ekonomiak bermatu ahal izateko, gaurtik hasita.

1.3.1. BARNE EKINTZAILETASUNA ETA EKINTZAILETASUNA SUSTATzea

- Produktu eta enpresa proiektu berrien sorrera bultzatzeko enpresatik bertatik sortzen den ekintzailetasuna (barne ekintzailetasuna) areagotzeko prozesuak indartuko dira.
- Oinarri teknologikodun jarduera ekonomiko berria bultzatzeko programa garatuko da.
- Emakumezkoek alor ekonomikoan jasaten duten soldata arrakalari aurre egin eta erabakigune ekonomikoetan duten presentzia areagotzeko, emakumezkoen autoenplegua eta enpresa proiektuak laguntzea, EMEKIN programaren bitartez.
- Ekintzailetasunera zuzendutako inbertsiorako eta finantziatorako instrumentuak ekonomiaren testuinguru berrietara egokitu eta hobetuko dira, Seed Gipuzkoa egitasmoa indartuko dugu.

1.3.2. ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUA, INDUSTRIA SEKTORE BERRIAK GARATZEKO

- Euskadiko espezializazio adimentsuaren estrategiari jarraituz, estrategikotzat jotzen diren alorretan eta dagoeneko Gipuzkoak dauzkan indarguneetan oinarrituz, etorkizuneko industriaren espezializazio gunetzat jotzen diren sektoreetan espezializazio adimentsua eta ekintzailetasuna sustatzea: zahartzaro osasuntsua, zibersegurtasun industrial, mugikortasun berria, gastronomiaren digitalizazioa, ikus-entzunezkoen produktzioa, ekonomia zirkularra, terapia aurreratuak eta biozientziak, eta teknologia kuantikoak.
- **Mugikortasun berria – Mubil poloa.** Donostiako Eskuzaitzeta industrialdean Mugikortasun Jasangarri eta Adimentsuko Mubil Zentroa eraikitzea, etorkizuneko mugikortasunean funtsezko izango diren eremuetan ezagutza aurreratu sortu eta prototipoak testeatzeko: energia biltegitratzea, power train eta hidrogeno pila. Lurralde osoan mugikortasun berriari lotutako jakintza

aurreratua sortuko duten enpresa eta zentro teknologikoez osatutako MUBIL poloa garatzea. Automozioko enpresa txiki eta ertainei mugikortasun berriak dakarren eraldatzeari egokitu eta aukera berriak probesteko elkarlan proiektuak sustatzea.

- **Terapia aurreratua eta biozientziak.** GANTT (Gipuzkoa Advanced New therapies Territory) proiektuaren bitartez, osasunaren eta bioteknologiaren alorreko eragileekin –Osakidetza, Biodonostia, bioteknologiaren eremuko enpresak– elkarlanean, Gipuzkoa posizionatzea etorkizuneko medikuntza eta gaixotasun larrien tratamendurako terapietan.
- **Teknologia kuantikoak.** Ikerbasque eta gainontzeko euskal erakundeekin elkarlanean, konputazio kuantikoko gune aitzindaria instalatzea Gipuzkoan. Gipuzkoa Quantum estrategiaren bitartez, sare ekonomikoaren eta ezagutza zentroen arteko lankidetzak eta esperimendazioak sustatzea teknologia kuantikoen alorrean, kalitatezko enplegua sortzen duten enpresa ekimen arrakastatsu berrien hazia erateko.
- **Zibersegurtasun industrialak – ZIUR.** Zibersegurtasun Industrialeko ZIUR zentroaren bitartez, lurraldeko industriari eta enpresa sarea zibererasoetatik babesteko formazio eta esperimendatze ekimenak martxan jartzea. Lurraldean zibersegurtasun industrialaren zertifikazioari lotutako sare edo hub bat eratzea. Lurraldeko industria eta enpresa sarearen produktu eta zerbitzuetan zibersegurtasunaren balioa txertatzeko elkarlan eta berrikuntza proiektuak sustatzea.
- **Zahartzar osasuntsua – Adinberri berrikuntza zentroa.** Zahartzar osasuntsuari eta etorkizuneko zaintzari lotutako adinekoren egoitza esperimentalak eta berrikuntza gunea eraikitzea Pasaian. Zentroa eraikitzearekin bat, dagoeneko martxan dagoen estrategia eta fundazioaren lana indartzea: silver economy alorrean lurraldean dugun berrikuntza gaitasuna maximizatzea, eta produktu, zerbitzu eta enpresa proiektu berritzaileak sustatzea.
- **Gastronomiari lotutako digitalizazioa – LABe.** Donostiako Tabakalera kokatutako Gastronomia Digitaleko Laborategiaren bitartez, gastronomia eta elikadurari lotutako industriaren digitalizazioa indartzea, eta sektore honetarako elkarlana eta lurralde estrategia bateratua gauzatzea alorreko eragileen –Ostalaritza elkarteak, ACEDE eta Basque Culinary Center– artean.
- **Euskarazko ikus-entzunezkoak – 2de.** Egungo kontsumo ohituretara egokituko diren euskarazko ikus-entzunezko produktuen ekoizpen berritzailea sustatuz, ikus-entzunezkoen alorreko sorkuntza eta industriaren garapenari ekarpena egitea.

1.4. SEKTORE NAGUSIAK, EKONOMIA SUSTAPENERAKO ARDATZ

Gipuzkoako ekonomiaren bizkarrezurra industria da, baina horrez gain lurraldean izaera, sektore, bilakaera eta tamaina

aldetik aniztasun handia duen enpresa eta jarduera multzo aberatsa ematen da. Guztiek ere, eraldatze teknologikoa, energetikoa eta sozialaren desfazioei aurre egiteko trantzean dira gaur egun. Horregatik, bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta abiaraziko ditugu ekonomia sustapenerako politikak.

1.4.1. INDUSTRIA

- Jasangarritasun hirukoitza eta industriaren eraldatze teknologikoa eta energetikoa sustatutako dugu, hurrenez hurren, digitalizazioa eta deskarbonizazioaren aldeko politiken bidez.
- Industriaren errotzea sendotzeko politikak bultzatuko ditugu, ehunaren jarraipena bermatzeko belaunaldien arteko erreleboa erraztera bideratutako neurriak martxan jarri, nahiz proiektuak eskalatzeko enpresen arteko elkarlana sustatuz.
- Industriara zuzendutako bokazio eta talentua indartuko dugu.
- Industriak gure gizarteari egiten dion ekarpena ezagutzera eman eta gazteak lanbide industrialetara gerturatzeko Industria Irekia egitasmoa martxan jarriko dugu.

1.4.2. TURISMOA

- Lurralde oreka eta urte guztiko turismoa bultzatuko dugu, jardura turistikoak ahalik eta gehien Gipuzkoa osora zabalduz.
- Turismoaren, gastronomiaren, kulturaren eta euskararen arteko zubiak indartuko ditugu, lurralde gisa dugun izaera eta benetakotasuna mantendu dezagun.
- Turismoaren irisgarritasunean eta inklusibitatean sakonduko dugu.
- Turismoaren digitalizazioa eta modernizazioa sustatzea. Adimen Turistikoko Sistema osatzea, datuen kudeaketa adimentsu baten bitartez turismoaren kudeaketa jasangarria eta kalitatean oinarritua areagotzeko.
- Lurraldera datorren turismo profesionala bultzatuko dugu Kongresu, feria eta topaketa profesional berriak sustatuz.
- Turismoaren alorreko enpresa eta autonomoen artean elkarlana, berrikuntza eta ekintzailatasuna hauspotuko dugu, turismoaren kalitatea eta jasangarritasuna areagotu dadin.
- Turismoaren eragileekin, Udalekin eta eskualdeetako eragileekin lankidetzak indartuko dugu, estrategia bateratuak eraginez.

1.4.3. MERKATARITZA

- Tokiko merkataritzaren profesionaltasuna, lehiakortasuna eta diferentziazioa sustatzea, lurralde guztian zehar modu orekatuan.

- Tokiko denden digitalizazioan eragitea, dela salmentetan, dela erosleekin harremana izateko garaian, dela kudeaketa aurreratuan urrats berriak emateko.
- Ogasunak eta foru administrazioak merkataritzari eskaintzen dion arretaren hobekuntza eta desburokratizazioa.
- Merkataritzaren jarraipena eta belaunaldi berritzea bultzatuko dugu, errelebo prozesuetarako laguntza egokitua eskainiz eta, beren dendak itxi dituztenen eta ekintzaile berrien arteko loturak eraginez, garapen agentziekin elkarlanean.
- Merkatarien lidergopean, sektore honetako profesionalak ere kontziliazio erantzunkidean aurrera egiteko egitasmo esperimentalak hedatzea, herri laborategien bitartez, Beasaingo Herrilab3B proiektuak egin duen moduan.

1.4.4. NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASOGINTZA

- Baserrietan belaunaldi aldaketaren eta ekintzailetasunaren sustapenaren indartzea, Gaztenek Berri egitasmoaren bitartez.
- Baserriar misto profesionalak sektoreari egiten dioten ekarpenaren inguruko azterketa burutzea eta funtzio hori indartzeko neurriak hartzea.
- Landa Lege Berriak ezarritako lan ildoak eta tresnak garatzea, eta legediak Foru Aldundiko politiketan duen eraginera egokitzea.
- Landalurren mugarrien digitalizazioa eta katastroa eguneratzen jarraitzea, aurreko legealdian hasitako ahaleginari eutsiz.
- Lehen sektoreari ikusgarritasuna emateko estrategian sakontzea: komunikazio plangintza integrala eta partekatua, kontzientziazio ekintzak, eta Gure Lurra kongresua bultzatzea.
- Lehen sektoreko ustiapenen eta ekimenen errentagarritasunean sakontzea, diru-laguntzen bitartez sektoreko desafio propioei aurre egiteko.
- Baserriar eta abeltzainen bizi eta lan baldintzak hobetzen eta eguneratzen jarraitzea, abeltzaintza eta baserriko aktibitatea natur ingurunearen babesaren eta etorkizun jasangarriaren eragile den heinean.
- Sektoreko erakunde sarearen azterketa, berrantolaketa eta eguneratzea sustatzea, gainontzeko Aldundi eta Eusko Jaurilaritzarekin elkarlanean.
- Elkarlanean egindako Mendiko larreen kudeaketa jasangarrian sakontu, abeltzain profesionalekin, Udalekin eta ETORLUR-ekin batera.
- Baso kudeaketa jasangarrian sakontzea, sektore honetan I+G erabilera areagotuz.

1.5. LEHIAKOR IZATEKO ETA ONGIZATEA BABESTEKO POLITIKA FISKALA

Ekonomia Ituna eskubide historikoen funtsa eta autogobernuaren oinarria da; halaber, gure erakundeek azkenengo urteotan suertatu direnak bezalako erronkei arrakastaz aurre egiteko tresna da ituna.

Horregatik, hain zuzen ere, euskal administrazioen helburu nagusietako bat izan behar da Ekonomia Itunak aitortzen dizkigun gaitasunak indartzea, zerga-eskumenak behar bezala gauzatzea ahalbidetzeko helburuarekin, bai nazioartean, bai tokiko eremuan. Izan ere, berezko zerga-sistema diseinatzeko gaitasunak eskatzen du euskal foru erakundeek nazioarteko zerga-ordena eraldatzeko prozesu sakonean parte hartzea; zehazki esanda, foru erakundeetako ordezkariak zerga-politikak eztabaidatzen diren nazioarteko foroetan parte hartzea. Aldi berean, herrialde gisa ditugun erronketan, fiskalitate egiten dugun balio-proposamenarekin batera, erreferentziazko herrialdeen fiskalitatea ere aztertu beharko dugu.

Hurrengo urteetarako diseinatzeko den zerga-sistemak honakoari erantzun behar dio:

- Batetik, behar besteko finantza-nahikotasuna sortzea, lurraldeko ongizate maila mantendu eta hobetzeko.
- Bestetik, Gipuzkoa eta Euskadiko jarduera ekonomikoaren lehiakortasuna indartzea eta eustea.

Egungo ongizate estatuari eusten dion funtsezko oinarria industria indartsu bat edukitzea da. Industria indartsua, lehiakorra eta berritzailea, munduari umiltasunez baina anbizioz begiratzen diona. Industria hori gai izan behar da kalitatezko enplegua eta epe luzerako finantziario nahikoa sortzeko, horrela, helburu dugun gizarte ongizateko eredu garatzeko ere. Halaber, horri esker, Europako desberdintasun mailarik txikienetakoa eta per capita errentarik handienetakoa duen lurraldea izatea dugu jomugan.

Fiskalitatea, erakunde maila anitzetako aurrekontuez gain, oinarritzeko ardatza da, aipatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurriak artikulatzeko. Fiskalitatea epe laburrerako aurrekontu premiak finantzatzeko elementua da eta, aldi berean, epe luzera burutu beharreko proiektuak eta erronkak garatzearen bermea ere bai. Une oro bermatuz Euskadiko erakunde arteko arkitektura osatzen duten erakundeen egonkortasuna eta indar ekonomiko finantzarioa. Araudi aldaketak eta proiektuak egikaritzen dituen fiskalitatea, epe luzerako begirada nagusituz epe laburrerako emaitzen aurrean.

Ekonomia Itunak ematen digun eskumenean oinarrituta, politika publikoetan egonkortasuna lehenesten duen fiskalitatea nahi dugu. Baita ere, bere etorkizuneko proiektu pertsonala eta profesionala Euskaditik garatu nahi duten eragileei segurtasun juridikoa ematen dien fiskalitatea.

Laburbilduz, nahi dugu fiskalitateak konfiantza nahikoa sortzea egitura ekonomikoan, Euskadin proiektuak sortu, garatu eta erakartzeko.

Horrekin batera, ekitatearen, progresibitatearen eta pertsona guztiek zergak modu ekitatiboan ordaintzen dituzten bidezko zerga-sistema bat garatzearen ikuspegitik, zerga politiken bitartez jarraituko dugu foru ogasunen jarduera hobetzen. Hain zuzen ere, ahalegin hori hezurmamituko da zuzeneko arretan eta zergadunei beren betebeharrak betetzeko eskaintzen zaien laguntzan. Horretarako, herritarrei arreta eta laguntza emateko kanal guztiak ahalik eta gehien indartuko ditugu eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ematen dituzten aukerak bultzatuko ditugu, gisa horretan zerga-betebeharrak betetzearen zeharkako kostuak murriztuz. Aurrekoarekin batera, gure konpromisoa da zerga iruzurraren aurkako borroka indartzen jarraitzea, solidarioak ez diren praktikak desagerrarazteko, ongizate estatuaren elementu nagusia arriskuan jartzen dutelako, baita gizarte gisa dugun izateko arrazoia ere.

EAJ-PNVk Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga politika garatzeko konpromiso horiek honako egitasmoetan mamituko dira:

- Erabakiguneei eustea. Horren adibide ona dira langileek enpresan parte hartzeko garatutako politikak, batez ere belaunaldi-erleleboko garaietan, erabakiguneei Euskaditik aldentzeko arriskua sor daitekeen une horietan, alegia. Neurri honek garapen nabarmena izan du azken urteotan Gipuzkoan, dela kooperatiben bitartez, dela lan sozietateen bitartez, dela SL., SA. edo bestelako eredu juridikoen bitartez.
- Lurraldean sortzen diren proiektu berriak bultzatzea eta babestea. Eremu honetan, ekintzailetasunak eta barne ekintzailetasunak paper garrantzitsua dute. Eremu honetarako, berebizikoa da administrazioaren lehiakortasuna; izan ere, denbora faktorea funtsezkoa da lurraldean suerta daitezkeen proiektu berriak garatzeko. Proiektuak garatzeko lurralde atsegina eta erakargarria izan behar dugu. Zenbat eta azkarrago garatu ahal izan proiektu berri bat, are aukera gehiago posizio lehiakorra lortzeko merkatu jakin horretan. Horrenbestez, beharrezko baldintza bat da administrazio azkarra eta eraginkorra edukitzea, enpresa garapena errazten duten zerga pizgarriekin.
- Pertsonak eta proiektuak erakartzea. Industria indartsua, lehiakorra eta berritzailea nahi badugu, gaitasunik onenak behar ditugu gure lurraldean. Erakarri behar ditugu atzerrira proiektu zientifiko teknologikoetan lan egitera joan diren pertsonak edo, bere garapen pertsonala eta profesionala lortzeko, Euskadira etortzea erabakitzen duten atzerritarrak. Azkeneko urteotan, eremu hori indartzera bideratutako zerga neurriak ezarri ditugu eta, etorkizunean ere beharrezko neurriak hartuko ditugu gure egitura ekonomikoak profesionalik gaituenak izan ditzan.
- Erronka demografikoa eta herritarren zahartzea, klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa eta digitalari erantzuneko dioten politika fiskalak garatzea.
- Enpresa proiektuen hazkundera, errotzea eta eskalatzea lagunduko duen finantza ekosistema berritzailea eta

dinamikoa indartzea, beti ere enpresen errotzea eta garapena uztartuz.

- Enpresetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko fiskalitatea lantzen jarraituko dugu.
- Enpresen kapitalizazioa indartzeko politika fiskalarekin jarraitzea, garai txarretarako sendoago egon gaitezen.
- Enpresetan ikerketa eta garapena sustatzen jarraitzeko pizgarriekin segitzea.
- Ingurumena enpresen lehiakortasun faktore gisa indartzeko estrategia lantzea.
- Pandemiaren eta Ukrainak jasandako inbasioa hasi berrikan egin bezala, unean uneko zailtasunetara egokitzen den Foru Ogasuna ahalbidetzea, enpresa, autonomo eta negozio txikien likidezia ahalbidetuz.
- Kultur sortzaileen lana babestea, beren errealitateara egokituko den fiskalitate justu eta berritzaile baten bitartez.
- Oinarrizko zientzia ikerketaren mezenasgoaren figura eta horretara bideratutako pizgarri fiskalen ezagutza sustatzea, herritarrak ikerketa zientifikoaren parte izan daitezkeen eta zientziari ekarpen ekonomikoak egiteko antzeko kultura sustatuz.
- Gazteriaren zeharkako emantzipazio politikak sustatuko ditugu, baita fiskalitatearen bidez: alokairu soziala, zerga kenkariak eta etxebizitza bat lortzeko edo diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko laguntzak.

Amaitzeko, aurrekontu publikoak egiterakoan, jarraitu beharrezko funtsezko irizpidea izango da diru-sareren eta gastuen arteko oreka. Epe luzerako ikuspegia da administrazioen bereizgarrietako bat, zer esanik ez foru administrazioaren kasuan. Ekonomia ziklikoa da; hortaz, prest egon behar gara testuinguru ekonomikoak okerrera egiten duenerako. Erakunde-erantzukizunak aurrekontu defizitak eta zorpetzea murriztera eramaten gaitu ekonomia okerragotzen denean.

Laburbilduz, erakundeak indartu behar dira eta baliabide ekonomikoak eta finantzarioak eduki behar dira epe luzerako politika publikoak mantentzeko gai izateko, zehazki, datu ekonomikoak ahultzen direnean. Aurrekoaz gain, legaturik onena utzi behar diogu hurrengo belaunaldiari; hortaz, aurrekontu emaitza arduratsua eta jasangarria izateko konpromisoa berresten dugu. 🌱

2. HELBURUA: Pertsona erdigunean jarrita, gizarte politiketara bultzada berri bat ematea

Pertsona erdigunean jarrita, gizarte politiketara bultzada berri bat ematea, gizartearen zahartzearen eta egungo munduan sortzen diren gizarte premia berrien aurrean, herritar zaugarrienei etxetik ahalik eta gertuen zaintza pertsonalizatua eskaintzeko, berrikuntzan eta komunitatearen partaidetzan sakonduz eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duen zerbitzuen bideragarritasuna bermatuz.

Ez dira nolanhikoak izan azken urte hauek gizarte babesaren ikuspegitik. COVID-19 pandemiaren eta azken urteotako gorabehera ekonomikoen inpaktua handia izan da gurean, mundu guztian bezala. Eragin horren ondorioz, arazo eta errealitate sozial berriak sortu eta areagotu dira, zalantzarik gabe: behar sozio-ekonomikoen areagotzea, pobrezia eta bazterkeria egoerak kronifikatzeko arriskua, gizarte desberdintasunen igoera globala, zaugarritasuna, bakardadea, buruko gaixotasunak... Aldi berean, eraldatze demografiko bete-betean gaude, erritmo bizkorrez zahartzen ari den gizarte bateko parte gara.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lan eta ibilbide sendoa egin du azken zortzi urte hauetan, dagoeneko aurreko hamarkadan aurrekusten genituen eraldatze sozial eta ekonomikoek gizarte babeseko sisteman izango zuten eraginerako prestatu, aurre hartu eta zerbitzu berritzaileak esperimentatzeko. Horri esker oinarri sendoak ditugu gure lurraldean eta aitzindariak gara zaintza eredu pertsonalizatuak eta berritzaileak hedatzeko garaian.

Orain, oinarri sendo horietatik abiatuz, gizarte politiketara bultzada berri bat eman eta Gipuzkoa kalitatezko zaintzaren abangoardian kokatzeko momentuan da. Horrek eskatuko digu, azkeneko urteetan pilatutako esperientziatik eta ikasgaietatik abiatuz, pertsona erdigunean jartzen duen zaintza eredu pertsona babeseko sistema osora hedatzea: oraindik eta gehiago pertsona bakoitzaren behar espezifikoetara egokitu den arreta eredu zabalduz, erakundearen arteko elkarlaneko gobernantzan sakonduz, berrikuntza eta teknologia aurreratua txertatuz, prebentzioan azpimarra jarritz, komunitatearen inplikazioa bilatuz eta zaintza zerbitzuen etenik gabeko ebaluazioa indartuz.

Hori guztia egiteko garaian, gainera, kontuan izango ditugu funtsezkoak diren beste hiru elementu: bakardadea eta buru osasuna bezalako gizarte behar berriei erantzun sendo bat ematea, Gipuzkoako gizarte babeseko eredu oinarri-oinarrizkoa den irabazi asmorik gabeko hirugarren sektore sozialarekin elkarlana indartzea, eta gizarte zerbitzuen epe ertain eta luzeko jasagarritasuna bermatzea.

2.1. PERTSONA ERDIGUNEAN KOKATZEN DUEN ZAINZA EREDU BERRITZAILEA GIZARTE BABESEKO SARE OSORA ZABALTzea

Pertsonak edo erabiltzaileak, behar baten aurrean erakunde bakoitzera jo beharrean, behar duten zerbitzuen arabera,

pertsona bakoitzaren behar espezifikoak erdigunean jarri eta erakundeak ezaugarri horietara egokitu daitezkeen egin beharreko aldaketak sustatzen jarraituko dugu datorren legealdian. Horretarako, aurreko legealdi honetan landutako Gipuzkoa 2020>2030 Agenda gauzatuko dugu, datorren hamarkadarako arreta, zaintza eta gizarte babesaren eraldatze progresiboa eragiteko bideorria, alegia, eta gizarte babeseko kolektibo guztietara iritsiko dena.

Besteak beste, honako ekintza edo lan lerroak gauzatuko ditugu, gizarte zerbitzuen erabiltzaile guztien kasuan –adineko pertsonak, menpekotasuna dutenak, desgaitasun fisikoa edo mentala dutenak, adingabeak eta bazterkeria arriskuan edo egoeran daudenak, alegia–.

- Arreta eta zaintzaren pertsonalizazioaren aldeko apustua, gero eta modu hedatuagoan erabiltzaileen beharrez eta bizimoduari egokitutako arreta eskainiz eta zaintzaren pertsonalizazioa posible egingo duten kudeaketa tresnak inplementatuz.
- Gizarte zerbitzuetan, arreta eta zaintza antolatzeko garaian lankidetzazko gobernantzan sakontzea, ahalegin horretan parte hartzen duten eragile eta erakundearen arteko elkarlana eta koordinazioa areagotzeko duten tresna berriak aktibatuz, gizarte politiketan erabiltzaileek, haien senitartekoek eta profesionalak duten partaidetza areagotuz.
- Berrikuntza txertatu arretan eta zaintzan, adimen artifizialaren bitartez pertsonen bizitza kalitatean onura ekarriko duten programak identifikatuz eta aurrera eramanez, zaintza alorreko profesionalen formazioa eta prestakuntza indartuz eta Gizarte Politikako departamentuaren baitan Berrikuntza eta Ebaluaziorako Unitate bat sortuz.
- Mendekotasunaren eta zaugarritasunaren prebentzioan jauzi bat egitea, zerbitzu guztietara gehituz prebentzioaren enfokea, nahiz autonomia, inklusioa eta zaugarritasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonen babesa. Buru osasunaren arretaren hobekuntza eta nahitaezko bakardadea eta aislamendu egoeren prebentziorako estrategien garapena, kontuan izanda pandemiak alor horietan izan duen eragina eta buru osasunaren alorrak beste arazo batzuekin duen lotura eta transbertsalitatea, bazterkeria, desgaitasuna, adikzioak, bortizkeria matxista, aislamendua eta langabezia, kasu.

- Zaintzaren kalitatea ebaluatzeko neurriak indartzea, zerbitzuen kalitatea egiaztatuko duen Ebaluazio Agentzia bat sortuz eta, horrela, interbentzioen eraginkortasuna neurtzeko ebaluazio eta jarraipen mekanismoak hobetzea. Aldi berean, pertsonen bizitza kalitatea bermatzeko zerbitzuen inspektzioarako neurrien egokitzea. Baita ere, zerbitzu sozialen beharrak aurreratzea, monitorizatzea eta ebaluatzea ahalbidetuko duen jakintza estrategikoa hedatzea.

2.2. GAUR ETA BIHAR, ADINEKO PERTSONEN ETA MENPEKOEN KALITATEZKO ZAINZA BERMATzea

Gizartearen zahartzeak bizi duen erritmoa dela eta, datorren legegaldian ere lehentasunezko gaia izango da adineko pertsonen zaintza, eredu berritzaileak sustatu eta, dela etxean, dela egoitzetan, alor honetan ere garai berrietara egokitutako kalitatezko arreta pertsonalizatua eskaintzen jarraitzeko.

Gero eta urte gehiago bizi gara eta hori, nola ez, berri ona da. Baina, aldi berean, zahartzaroan ere bizitza osasuntsua, aktiboa eta parte-hartzailea eduki nahi dugu. Inguruan dugun gizartearen kide eta partaide izanez zahartu nahi dugu, atzetik datozen belaunaldiekin hartu-emanen, gure herri eta auzoetako bizitzan harremanak mantenduz eta, teknologia eta berrikuntzaren bitartez, gure osasuna eta ingurukoena zainduz eta hobetuz.

Aldi berean, etxean bizi nahi dugu ahalik eta gehien. Horrek, aldi berean, zaurgarritasunaren eta menpekotasunaren prebentzioarako aukerak indartzen ditu. Baina etxean bizitza zahartzen garen heinean, zaintza profesionalizatuen beharrari erantzun diogu, batetik, eta familien ongizateari bideratutako neurri berriak hartuko ditugu, besteak beste. Hemen ere pertsona erdigunean jartzea ahalbidetuko duen arreta bermatuko dugu, zaintza ekosistema lokalak lurralde guztira hedatuz.

Azkenik, etxean zainduak izan ez gaitezkeenean, adinekoen egoitzetan bizitzeko garaian ere etxean bezala bizi nahi dugu. Horretarako, baita ere, dagoeneko abian den egoitza eredu berritzailea zabaltzen jarraituko dugu: elkarbizitza unitate txikiagoekin, zaintza pertsonalizatuekin, berrikuntza areagotuz eta komunitatearekin lotura indartuz. Gainera, gizartearen zahartzeari aurre eginez, gaur eta bihar pertsona orok kalitatezko zaintza pertsonalizatu bat jaso dezan bideorri sendo bat aktibatuko dugu.

2.2.1. ADINEKO PERTSONEN ETA MENPEKOEN ETXEKO ZAINZA PROFESIONALIZATUA INDARTzea

- Etxean bizitza osoan zeharreko zaintzak indartzea, diru-laguntzak, zaintza pertsonalizatu eta berritzailea, babes teknikoa eta komunitatearen partaidetza indartuko dituen estrategia baten bitartez.
- Etxeko zaintza profesionalizatua jasotzen duen adineko pertsonen eta menpekoen kopurua eta portzentajea areagotzea, familiarren zaintzapean edota egoitzetan dauden erabiltzaile kopuruarekin alderatuz.

- Menpekotasun balorazioak egiteko epeak erdira aurreratzea.
- Adinekoen eta menpekoen arreta integrala, integratua, pertsonalizatua eta komunitarioa eskaintzen duten Zaintza Ekosistema Lokalen garapena lurraldeko herrietan hedatzea, Zaintza Herrilab egitasmoa zabalduz.
- Familiako zaintzaileentzako atsedenaldirako programa indartzea.
- Etxeko zaintza jasotzen duten pertsonen eta haien zaintzaileen ongizatea sustatzen duten produktu eta zerbitzu berritzaileen esperientziaz eta inplementazioa.
- Etxebizitza formula berriak lurraldean hedatzea, menpekotasun egoeraren bat duten eta zainketa malguak eta beren beharretara egokituak behar dituzten bikote eta familiei zaintza eta babes berritzailea eskainiz.
- Belaunaldi harremanak eta ezagutza trukea bultzatzen duten etxebizitza eta zerbitzu berritzaileak areagotzea lurraldean.
- Genero ikuspegia etxeko zaintzetan integratzea, familian egiten den zaintzak –bereziki emakumeen ardurapean geratzen denak– ez dezan zaintzaileen garapen pertsonal eta profesionalean desorekarik eragin.

2.2.2. ADINEKO EGOITZETAKO ARRETAREN ERALDATzea, eredu etxekoiago baterantz, berrikuntza erabiltzaileen ongizatearen zerbitzura jarritz:

- Modu progresiboan adinekoen egoitzen arkitektura diseinuak eraldatu, elkarbizitza unitate txikiagoak osatuz eta giro etxekoiago bat sortuz, inguru urbanoan eta komunitarioan erabat integratutako eredurantz aurrera eginez.
- Gutxienez hamaika egoitza berri eraikitzeke proiektuak abiarazi edo gauzatu, honako herri hauetan: Pasaia (Adinberri), Usurbil, Irun (Arbes), Elgoibar, Zarautz, Ordizia, Urnieta, Orio, Azpeitia, Donostia (Intxaurren eta Lugaritz).
- Adinekoen egoitzetan gutxienez 300 plaza berri sortzea hurrengo legegaldian.
- Gipuzkoa 2020>2030 Agendak ezarritako lanari jarraipena eman eta 2040 hamarkada arteko adineko pertsonen zaintza azpiegitura eta zerbitzuen proiektzioa eta aurreikuspenen bideorria garatzea, datozen hamarkadetan adineko pertsonak orok bermatua izan dezan kalitatezko zaintza.

2.3. GIZARTE BABESA, LURRALDE OSOAN ETA ETXETIK AHALIK ETA GERTUEN

Aurreko ataletan dagoeneko nabarmendu den moduan, gizarte babeseke sistema osoan arreta eta zaintza pertsonalizaturako trantsizioa hedatzeko lan egingo dugu. Pertsona erdigunean

jarrita, norbere beharrian eta lehentasunetan oinarritutako zaintzaz ari gara. Kalitatezko arretatik abiatuz, pertsona ororen bizitza kalitatea eta ongizatea zainduko dituen.

Trantsizio horrek, beraz, adineko pertsonen gain, Gipuzkoa osoan, menpekotasuna, desgaitasuna edota bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako gizarte zerbitzuei eragingo die, baita bortizkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta adingabekoei ere. Horrekin batera, pertsona oro berari zuzendutako gizarte zerbitzu espezializatua etxetik ahalik eta gertuen jaso dezan ahalegin berezia egingo dugu datorren legealdian, Gizarte Zerbitzuen Mapa osatuz eta indartuz.

2.3.1 DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO GIZARTE ZERBITZUAK INDARTzea

- Beren etxetik 15 minutura gehienez, bere beharrianetara egokitutako zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea desgaitasuna duen pertsona orori.
- Dibertsitate funtzionalera bideratutako zentro berritzaile baten irekiera.
- Desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta zaintza uztartuko dituzten etxebizitza plazak indartzea.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta eta zerbitzu gune inklusiboak garatzea, pertsona bakoitzak bere gaitasun pertsonalak eta sozialak gara ditzan, komunitatearekin harremanak indartuz eta banakako arretaren eta plangintzaren bidez.
- Desgaitasuna duten pertsonen senitartekoen ongizatea eta atsedena hobetuko duten zerbitzuak indartzea.
- Garun-paralisia eta antzeko mugimen-asaldurak dituzten haurren garapena sustatzea, teknologia berrikuntzen bitartez. Haurrentzako exoeskeleto pediatrikoen tratamendu pertsonalizatuak hedaltzea, indarrean den programa pilotuari jarraituz.
- Teknologia arloan ematen ari diren aurrerapenak alor sozial eta sanitarioarekin konektatzeko ahaleginean, pertsona helduei bideratutako puntako teknologiak aplikatuko ditugu, bakoitzaren beharriari egokitu.

2.3.2. BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDEN PERTSONEN GIZARTE INKLUSIOA LANTzea

- Elkar Ekin Lanean, Gipuzkoako Enplegu Inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatzeko Estrategian sakontzea 2024-2027 aldirako:
 - Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, nahiz lanpostu prekarioak dituzten pertsonen, formazio eta enplegu ibilbide pertsonalizatua eskaintzea, kalitatezko enplegu baten bitartez gizarte txertatu eta bizitza proiektu bat bermatua izan dezaten.
 - Enplegu inklusiboa helburu duten ekonomia sozialeko proiektuen sustapena.

- Gizarteratzeko enpresa berrien sorrera eta gaur egun martxan daudenei babes merkatuko nitxo jakinak identifikatuz eta beren aktibitatea dibertsifikatzeko aukerak garatuz.
- Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen proiektu ekintzaileak sustatzea.
- Enplegu-zentro bereziek eta laneratzeko enpresek eskaintutako produktuak eta zerbitzuak sustatzeko plana, Gizatea gizarteratze- eta laneratzeko enpresen elkartearekin lankidetzan.
- Lurraldeko eragileen aktibazioa eta koordinazioa indartzeko Gipuzkoako Enplegu Inklusiboaren eta Kalitatezkoaren Batzordea dinamizatzea, eragile sozial eta ekonomikoekin elkarlanean. Garapen agentziekin eta Lanbiderekin batera enplegu inklusiboa sustatzeko lankidetzako gobernantzan sakontzea.
- Gipuzkoako Lanaren Behatokiaren bitartez, enplegu inklusiboaren jarraipena egin eta estrategia uneak uneko errealitatera egokitzea.
- Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuen pertsonalizazioa, Gipuzkoako Gizarte Inklusiorako 2022-2026 Planean sakontuz:
 - Gizarte bazterketaren prebentziora bideratutako jarduerak bultzatzea eta arrisku egoeren aurreko erantzun komunitarioa indartzea.
 - Gizartearen sensibilizazioa sustatzea txirotasun, desberdintasun eta gizarte bazterketako egoeren aurrean eta bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen partaidetza sustatzea gizarte politiken garapenean.
 - Gizarteratzeko Gizarte Zerbitzuen sistema publikoa pertsonalizazioaren ikuspegitik finkatzea, eta aurrera egitea Lurraldean Gizarte Zerbitzuen sistemako lehen eta bigarren mailako arreta mailak integratzeko bidean.
 - Lurraldeko eskualde guztietan gizarte inklusioa sustatzeko ekipamendu eta zerbitzuak sustatzea, tokiko eta eskualdeko koordinazio egiturak indartuz, tokiko ekosistemen garapena bultzatuz eta ekimen komunitarioak sustatuz, gizarte bazterketako egoerak prebenitzea eta horiei aurre egitea ahalbidetuko dutenak.
 - Lurraldeko gizarteratzeko politiken artikulazioa eta lankidetzaren gobernantza hobetzea, erantzukizun publikoa bermatuz, eta sarearen prospektiba, ebaluazio, ikerketa, formakuntza eta berrikuntzarako gaitasunak indartzea.
 - Bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden emakumeen beharriari aurre egitea ahalbidetuko duten neurri eta jarduerak espezifikoki ezartzea, eta zerbitzuen diseinuan eta prestazioen genero ikuspegia sustatzea.

2.3.3. INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK BABESTEKO SISTEMAREN PERTSONALIZAZIOAN, PARTAIDETZAN ETA EZ BIKTIMIZAZIOAN SAKONTZEA

- Indarkeriei ematen zaien erantzunaren kalitatea areagotzen duen arreta eredu integral berria hedatzea, etapa guztietan emakumeen parte hartzea, eta birbiktimizazio eza oinarri dituen plangintza batetik abiatuta.
- Larrialdietarako 24 orduko hiru krisi zentro zabalduko ditugu lurraldean banatuta, sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko.
- Indarkeria matxisten biktimen babeserako, egonaldi laburretarako zentro berri bat, arreta pertsonalizatua eta ahalduntzea ardatz izango dituen eta emakumeen egoera ezberdinetara egokitua –umeekin batera edo bakarrik egoteko, ongizatea lantzeko guneak, eta abar–.
- Indarkeria matxisten biktimen babeserako, egonaldi luzeagoetarako zentro berri baten egokitzapena, arreta pertsonalizatua, ongizatea eta ahalduntzea ardatz izango dituen.
- Bortizkeria matxistari aurre egiteko irizpideen eta erabakien koordinazioa indartzea, Gipuzkoako indarkeria matxistari aurre egiteko erakunde arteko mahaiaren bitartez.

2.3.4. ADIN TXIKIKOEN BABES SISTEMAREN PERTSONALIZAZIOA AREAGOTZEA

- Adin txikikoen babeserako harrera familien programa indartzea, bereziki harrera espezializatua areagotuz.
- Adin txikikoen babeserako interbentzio eta eredu berritzaileak garatzea, jatorrizko familiarekin harremana eta lotura areagotuz. Babespean dauden adin txikikoen autonomia, autoestima, komunitatean integrazioa eta orientazioa indartzea.
- Aldundiaren babespean egondako gazteen emantzipazioa lagundu, formakuntza eta lanpostu baterako sarbidea modu pertsonalizatuan landuz.

2.4. GIPUZKOAREN IZAERA KOMUNITARIOARI BULTZADA

Azken urte hauetako zailtasunek, gizarte eta ekonomia mailako gorabeherak, argi utzi dute zeinen garrantzitsua den arazoei komunitate osoaren bultzadarekin eta partaidetzarekin aurre egitea. Hala izan da, esate baterako, pandemiaren ondorioei irtenbidea topatzeko garaian, edota Ukrainak jasandako inbasiotik ihesi zetozen herritarrei harrera egiteko garaian. Bere burua antolatzen duen gizarte solidario bat izatea, zailtasunen aurrean ekimena hartzen duena, oso garrantzitsua da kohesioari eusteko garaian, are gehiago indibidualismoa hedatzen ari den garaiotan.

Komunitate sentipen eta lotura garrantzitsuak dituen lurraldea da Gipuzkoa. Erreparatu besterik ez dago bere gizartegintzako sareari, non milaka boluntariok beren denbora libre eskaintzen duten hurkoaren mesedetan. Komunitatetik sortutako

gizarte babeseko ekimenak ere askotarikoak dira; hirugarren sektore soziala horren lekuko. Baina gizartearen zahartzeak, indibidualismoaren eta kontsumismoaren zabalitzeak, izaera komunitario horren kontrako norabidean eragiten du. Horregatik, ekimen komunitarioa sustatu eta bere onurak ikusarazteko hainbat ekimen martxan jarriko ditugu datorren legealdian.

2.4.1. EKIMEN KOMUNITARIOA SUSTATZEA

- Gizarte babeseko eta zaintzako eredu berrirantzako norabidean, baliabide eta programetan komunitatearen partaidetza sustatzea.
- Gizarte Ekimena Sustatzeko Plana aurrera eramatea, lurralde osoan ekimen komunitarioa oinarri duten ekintzak indartzeko.
- Komunitatearen garapenarekin zerikusia duten lanetan boluntarioen inplikazioa sustatzea.
- Gipuzkoa osoan boluntariotza sustatzeko plana egituratu eta gauzatzea.
- Gizarteko eragileen eta elkarten artean belaunaldi berritzaile sustatzeko plana gauzatzea, horretara bideratutako esperientzia pilotuetatik abiatu eta ikasgaiak gizarte ekimeneko sare osora zabaltzeko.

2.4.2. HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREKIN LANKIDETA INDARTZEA

- Gipuzkoako Elkarrizketa Sozialerako Mahaia sortu eta abiaraztea, hirugarren sektore sozialaren eta erakundearen arteko elkarrizketa eta lankidetzazko gobernanzako organo bezala. Gisa horretan, hirugarren sektore sozialaren partaidetza areagotzeko politika publikoen diseinu eta exekuzioan, hala nola honako egiteko hauetan:
 - Elkarrekin definitzea hirugarren sektore sozialera zuzendutako politiken ildo nagusiak, baita hirugarren sektore sozialeko entitateen eta Foru Aldundiaren artean adostutako gainerako politika publikoak.
 - Bideratzea lurraldeko hirugarren sektore sozialeko entitateen eskaerak eta, horien bitartez, esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateenak.
 - Hirugarren sektore sozialari buruzko gogoeta, ikerketak edo azterlanak burutzea.
- Hirugarren Sektore sozialaren ekimena eta funtzioa indartzea, hainbat ekintzaren bitartez:
 - Hirugarren sektore sozialeko erakunde eta elkarten gizarte oinarria, partaidetza eta belaunaldi berritzaile sustatzeko programa bat diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea.
 - Hirugarren sektore sozialeko erakunde eta elkarten zerbitzu eta egoitzen berrikuntza babestu eta sustatzea. Gizaguneren berritzaile.



- Hirugarren sektore sozialeko erakunde eta elkarten formazio beharrak aztertu eta horretarako formazio plan bat osatzea.
- Hirugarren sektore sozialean bertan ikerketa eta berrikuntza ekimenak sustatzea.
- Lankidetzeta publiko-pribatua indartzea inbertsio handiko proiektuak egiteko garaian, gizarte-ekimenarekiko lankidetzan arreta berezia jarritz.
- Gizarte politiken eremu guztietan –adinekoak, desgaitasuna, adingabeak, gizarteratzea, bortizkeria matxista– ikerketa eta berrikuntza sustatzea eta, aldi berean, nazioartean abian jarritako egitasmo berritzaileenak identifikatzeko mekanismoak garatzea.

2.5. GIZARTE BEHAR BERRIEI ERANTZUTEKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Pandemiaren kolpeak, migrazio fluxuek, ziurgabetasun sozio-ekonomikoak, kultura aniztasunak eta, oro har, mundua bizitzen ari den eraldatzeak gizarte beharrian berriak dakartzate eta, ziur asko, ekarriko dituzte aurrerantzean ere.

Errealitate horietako bakoitzak gizarte politiken ikuspegitik erantzun berri eta espezifikoek beharra ekarriko duela kontuan izanda, ezinbestekoa da gizarte politiken alorreko ikerketa eta berrikuntza mekanismoak indartzea. Helburu honekin, honako ekimen hauek abiaraztea proposatzen dugu:

- Etorkizuna Eraikiz lankidetzazko gobernantza egitasmoaren baitan, gizarte beharrian berriei lotutako ekimen esperimentalak abiaraztea, unibertitateekin eta alor bakoitzeko gizarte eragile edota elkarteekin harremanetan.

2.6. ERAGINKORTASUNA, BIDERAGARRITASUNA ETA ZORROZTASUNA LANTZEA

Datorren legealdiko lan ildo garrantzitsuenetako bat hauxe izango da, modu berezian gizarte politiken plangintza eta garapenean. Izan ere, gizartearen zahartzea eta beharrianak modu nabarmenean igotzen ari diren honetan, funtsezkoa izango da etorkizuneko sistemaren jasagarritasuna lantzea, sistemaren zorrozatasuna kontrolatzea eta hobetzea, injustiziarik egon ez dadin, eta gizarte politika eraginkorrak egitea benetako beharrei ahalik eta egokien erantzuteko. Gaur eta bihar, gizarte zerbitzuen eta jasagarritasuna bermatu ahal izateko.

Izan ere, sistemaren bermatzaile den herri-erakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berezko ardura nagusi du sistema bera etorkizunean bideragarri izan dadin bermatzea. Hori lortzeko, sistemak ezinbestean eraginkorra izan behar du, modu egokian erantzuten dielako gizarte beharrei; zorrotza izan behar du, gizarteak eskuzabaltasunez emandako baliabideak modu justu eta ekitatiboan inbertitzeko; eta etorkizunari begira bideragarria izan behar du, hala ez izateak sistema osoa kolokan jar dezakeelako. 🌱

3. HELBURUA: Demokrazian eta lankidetzazko gobernantzan sakontzea

Demokrazian eta lankidetzazko gobernantzan sakontzea, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bitartez Gipuzkoan abiarazitako lankidetzazko gobernantza ereduan aurrera egiteko; administrazioa desburokratizatu, gizartera gerturatu eta herri politiken diseinuan gipuzkoarren partaidetzari bidea emateko, eta euskal erakundeak eta autogobernua babesteko.

Globalizazioak nabarmen mugatu du egitura politikoen eraldaketa-ahalmena. Herri edo komunitate politiko baten garapena baldintzatzen dute, egitura politikoetatik harago, beste egitura batzuek eta eragile ekonomiko eta sozial askok. Konplexutasun horri gehitu behar diogu gizartea murgilduta dagoela gizabanakoan oinarritutako kontsumo-gizarteen logikan. Egoera horrek iraganean ezagutu ditugun gobernantza klasikoaren baldintzak gaintzera garamatza; espazio publikoa birdefinitzera, egitura publikoak eta sozialak txertatuz, legitimitate demokratikoan sakontzeko eta politika publikoetan eraldatzeko gaitasuna irabazteko.

Gipuzkoak lankidetzazko gobernantzaren alde egin du azken bi legealdietan, etorkizunera begirako desfioei aurre egiteko. Ariketa horrek berak, urratsez urrats, lurraldeko politikagintza eraberritu du eta, lehenago eztabaida amaiezinak zeuden lekuan, elkar ulertzea eta elkarlana ekarri ditu. Etorkizuna Eraikiz da Foru Aldundiaren lankidetzazko gobernantza egitasmoa. 2016an martxan jarritakoa eta azken urteotan nabarmen garatu dena. Berari esker, lortu dugu Gipuzkoaren esperientzia nazioarteko erreferentzia bilakatzea lankidetzazko gobernantzan. Gainera, tresna kolektiboak sortu ditugu, egungo eta etorkizuneko desfioei aurre egiteko.

Lankidetzazko gobernantzak bi helburu nagusi ditu: batetik, politika publikoen deliberazio-prozesuan gizarte antolatua txertatzea, politika publiko demokratikoagoak eta eraginkorragoak gauzatzeko; eta, bestetik, herritarrek komunitate politikoan sartzea, eztabaida-prozesuetan parte har dezaten sustatuz.

EAJ-PNVk betidanik egin izan du herritarren elkarlanean jarduteko hautua. Ahalegin horretan, euskal erakundeek entzuten eta herritarren partaidetza sustatzen jakin izan dute, transparentzian eta kontu ematean bidegile izan dira. Hori da Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasua. Datorren legealdi honetan ere, ardura eta eredugarritasun horri heldu eta zerbitzu publikoen kalitatea, eraginkortasuna eta zorroztasuna sustatuko dugu. Horrekin batera, Etorkizuna Eraikizen lan lerroetan sakontzen jarraituko dugu.

3.1. BUROKRAZIA GUTXITZEA, GOBERNU ONEAN SAKONTZEA ETA GIPUZKOARRIN PARTAIDETZA SUSTATZEA

Datorren legealdian jarraituko dugu 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak sustatzen. Izan ere, ekintzaren hamarkadaren tarterik erabakigarriena hastear dago eta, hortaz,

politika publikoak aipatutako agenda horretatik eraikiko ditugu. Izan ere, egungo desfioek besteak beste, klima ekintzarekin lotutako erronkek eta ingurumen erronkek, arazo ekonomiko eta sozialekin batera, zeharka eragiten dute foru eskumen askotan. Beraz, azkartu egingo dugu 2030 Agendaren tokiko ezarpena, Urkullu lehendakariak bultzatutako NOW ekimenarekin bat eginez.

- Jarduera publikorako kodigo etikoak nahiz gardentasuneko protokoloak etenik gabe egokitzea eta garatzea.
- Interes Taldeen Erregistroa zabaldu eta indartzea, Foru Aldundiaren transparentzia eta eredugarritasunean urrats berri bat emateko.
- Baliabide publikoen erabilera egokia eta neurrikoa bermatzeko jarraipen eta kontrol sistema indartzea.
- Nazioarteko gobernu onari buruzko irizpide eta gomendio aurreratuenak jarraitzea eta betetzea.
- Foru Aldundiaren arreta eta zerbitzu guztiei eragingo dien Burokrazia Arintzeko Plana garatu eta gauzatu, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak eta izapideak erosoagoak eta azkarragoak izan daitezen.
- Gipuzkoako Eskola Irekia. Lurraldeko elkarte eta eragileen formazio eta elkar-trukerako gunea, gaitasunak hobetu eta gobernantza publikoan hartzen diren erabakietan duten eragin ahalmena handitu dezaten.
- Agintaldi osorako Partaidetzazko Programa garatu eta implementatzea.
- Herritarren Batzarren esperientzian sakontzea, egungo eta etorkizuneko desfioei buruzko deliberazio prozesuetan herritarren partaidetza areagotzeko eta Aldundiaren politika publikoak herritarren ekarpenekin aberastu eta hobetzeko.
- Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuak sendotu eta areagotzea, aurrekontuen tramitazioan herritarren zeresana eta ekarpenak batu ahal izateko.
- Mugaz gaindiko aurrekontu parte-hartzaileak burutzea, Iparraldeko erakundeekin elkarlanean.
- Herritarren partaidetza kultura hedatzeko eta indartzeko online eta aurrez aurreko komunikazio ekintzak lantzea.

- Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruan antolatutako aurrekontuak garatzen eta lantzen jarraitzea.

3.2. LANKIDETZAZKO GOBERNANTZARI ETA ETORKIZUNA ERAIKIZ EGITASMOARI BULTZADA BERRI BAT

Gaur egun, aldaketa ekonomikoak, sozialak eta politikoak oso azkar ari dira gertatzen. Izugarri eragiten diote gure herrialdearen eta gure gizartearen izaerari, baina orobat sortzen dituzte errealitatea eraikitzeko baldintza eta denbora berriak. Hau da, azkar egokitzen ez diren komunitateek dekadentzia dute patu; eraldaketa azkarra eta sistemikoa egiteko gaitasuna duten herrialdeek, berriz, aurrera egingo dute, eta garapen ekonomikorako eta gizarte-kohesiorako baldintzak sortuko dituzte.

Testuinguru honetan, etorkizuna irabaztea da aldaketak egiteko gaitasuna irabaztea. Hau da, eraldatzeko gaitasuna gobernantzaren egituraren erdigunean jartzea. Eta, horrela, herrialdearen berrikuntzaren ezaugarri nagusi bihurtzea. Etorkizuna Eraikizek norabide horretan dihardu lanean buru-belarri azken sei urte hauetan eta EAJ-PNVren konpromisoa da lankidetzazko gobernantza eredu horretan aurrera egitea, lurraldeko herritar eta eragile guztiarekin elkarlanean. Ekimen berriak sustraituz, orain arte egindakoak ebaluatuz eta maila guztietan elkarlana sustatuz.

Era berean, gazteen partaidetza indartzeko mekanismoak indartuko ditugu, tokiko politikak definitu, ezarri eta ebaluatzeko. Horrela, gazteak ahaldundu eta herri politiken benetako protagonista bilakatu daitezten eragiteko ahalegina egingo dugu.

- Etorkizuna Eraikizen ekosistema guztiarekin elkarlanean, lankidetzazko gobernantza eredu aitzindari honen inguruko gogoeta eta azterketa partekatu, ondo egiten denari eutsi eta hobetu litezkeen gauzak hobetzeko.
- Lankidetzazko gobernanzako munduko aditu eta gainontzeko esperientziekin hartu-eman eta kontrastea zabaldu.
- Foru Aldundiaren egituraren baitan, lankidetzazko gobernantza departamentu guztietako praktika eta lanetan txertatzea.
- Esperimentazioa eta lankidetzazko oinarri duten herritarren proiektuak sustatzen jarraitzea eta horien ondorio nagusiak politika publikoetan txertatzea.
- Arantzazu Lab Berrikuntza Laborategiaren lan larriak garatzen jarraitzea, lankidetzazko gobernantzan eta berrikuntza sozialean sakontzen segin dezan.
- Etorkizuna Eraikizen baitan, herritarren partaidetza eta gizartearen entzute aktiboa areagotzeko ekimenak gauzatzea.
- Gipuzkoako unibertsitate sarearekin elkarlana sendotzea, lurraldearentzat estrategikoak diren etorkizuneko gaietan jakintza eta ikerkuntza txertatu dezaten.

- Etorkizuneko gogoeta egin eta eztabaidatzeko eragile ezberdinen foroak sortu eta landuko dira, Etorkizuna Eraikiz Think-Tankaren lanari jarraipena eman.

- Nazioartekotze estrategia baten bitartez, Gipuzkoarentzat arlo eta gai estrategikoetan munduan aurreratuenak diren esperientzietatik ikasi eta haiekin harremanak sendotzen jarraitzea.

3.3. GIPUZKOAKO UDALERRIEKIN ETA EUSKAL ERAKUNDEEKIN ELKARLANA

Lankidetzazko gobernantzaren oinarri nagusietako bat da gainontzeko erakundeekin lankidetzazko hartu-eman estutzea, etenik gabeko kontraste horretan erabaki eraginkorrenak hartu ahal izateko. Tokiko herrigintzan daukaten funtzioa eta gure lurraldearen erakunde diseinua dela eta, Foru Aldundiaren eta Udalen arteko harreman eta elkarlana sendotzea ezinbestekoa da, lankidetzazko gobernantzaren bitartez.

Aldi berean, euskal lurralde garen heinean, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko ordezkariarekin elkarlanean, datorren legealdiko erronka da harremanak indartzea eta elkarlana efektiboago egitea bultzatuko dugu. Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta, modu berezian baita ere, Iparraldeko erakundeekin lankidetzazko aktiboki sustatuko dugu. Desafio komunei erantzun partekatuak eman ahal izateko eta, baita ere, herritarren ongizatean eragina duten proiektuak sustatzeko. 🌱

4. HELBURUA: Klima aldaketari aurre egin eta etorkizun jasangarri bat eraikitzea

Klima aldaketari aurre egitea, komunitate, udalerrri eta lurralde mailan eragingo duen estrategia sistemiko baten bitartez: energia trantsizioa sustatuz eta berriztagarriak hedatuz, ekonomia zirkularra eta birziklapena indartuz.

Europa eta mundu osoa bezala, ingurumenaren ikuspegitik desafio handia izango dugu datozen hamarkada honetan Gipuzkoan. Klima aldaketari aurre egin eta haren ondorioak ahalik eta mugatuena izan daitezen lan egitea lehen mailako lehentasuna izango da EAJ-PNVrentzat ere. Horretarako, ezinbestekoa izango dugu produkzio sistemak, mugikortasuna eta gizarte ohiturak eraldatu eta egokitzea, besteak beste. Guztietan ere, ekonomia eta gizarte deskarbonizatu baterantz aurrera egiteko.

Norabide horretan, EAJ-PNVren proposamenek Europaren Akordio Berdearekin eta Euskadiko Akordio Berdearekin egiten dute bat. Ekonomiaren garapenerako eta ongizateko eredu jasangarri baterantz jauzi bat egiteko momentua da, aldi berean jasangarritasuna ekonomia ehunaren lehiakortasunerako faktore bilakatzearekin bat. Horrek berekin dakar energia efizientzia bultzatzea, berriztagarrien aldeko apustua bizkortzea eta ekonomia zirkularra sustatzea, maila guztietan.

EAJ-PNVk uste du nahitaezkoa dela klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko politikak eta neurriak irmoki bultzatzea. Politika horiek arrisku klimatikoak identifikatu beharko dituzte; etorkizuneko belaunaldiak jasan litzaketan ingurumen kalte konpongaitzak saihesteko neurriak ezarri beharko dituzte eta naturan oinarritutako konponbideak eskaini beharko dituzte.

Horrekin bat, hondakinen kudeaketari dagokionez, gizarte sentsibilizazioan jauzi bat eman eta birziklatze tasek gora egiten jarrai dezaten lan egiteko momentua da. Dagoeneko lurraldeko hondakinen kudeaketarako baliabide sarea eraikita, ekonomia zirkularrean, gaikako bilketan eta birziklatzean aurrera egingo dugu, gainontzeko erakundeekin elkarlanean.

4.1. BIRZIKLATZEAN, EKONOMIA ZIRKULARREAN ETA HONDAKIDEN KUDEAKETA JASANGARRIAN AURRERA EGITEA

Urtetako gatazkak eta eztabaida antzuak gaindituta, azken urteotan hondakinak jaso eta kudeatzeko sistema moderno eta aurrerakoi bat garatu dugu Gipuzkoan. Dagoeneko abian daude gure lurraldean zaborren gaikako bilketa, ondorengo berziklapena eta kudeaketa posible egiten duten sistemak eta azpiegiturak –GHHKPO 2019-2030ean jasotzen direnak, alegia–. Horri guztiari esker, gaur egun hondakinak modu jasangarrian kudeatzeko gaitasuna du Gipuzkoak eta dagoeneko birziklapen tasetan lurralde aurreratuenetako bat gara. Prozesu horretan guztian, gainera, lehengaiak berreskuratuz eta energia ekoizteko gai gara gaur egun.

Datozen urteetan, oinarri sendo horretatik abiatuz, birziklapenean eta ekonomia zirkularrean jauzi bat emateko garaia izango da eta horretan jarriko du ahalegina EAJ-PNVk.

- 2030erako birziklapen tasa % 70era iritsi dadin lortzeko baliabideak jartzea, bilketa eta sailkatze sistemen ahalik eta optimizazio handiena bultzatuz, eta herritarren sentsibilizatorako ekintzak indartuz.
- Zabor gutxiago sortzeko bidean, herritarren kontsumo produktuetan eta enpresa ehunaren produktu zein ekoizpenean ekodiseinua eta zirkulartasunaren kultura sustatzea.
- Lurraldeko bide azpiegituren eraikuntzan berziklatutako lehengaiekin egindako asfaltoak erabili ahal izateko berrikuntza eta ikerketa garatzea.
- Lurraldeko hondakinen garraioan diharduten ibilgailuetan mugikortasun jasangarriago baterantzako trantsizioa bultzatzea.
- Ekonomia eta I+G+B ildo berriak sustatzea lurraldeko enpresetan, birziklatutako lehengaietatik abiatuz produktu berritzaileen eta jasangarrien ekoizpena sustatzeko eta materialen kontsumo eraginkorra egiteko.
- Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin elkarlana sendotu, elikagaien xahutzea ahalik eta gehien ekiditeko.
- Ekonomia zirkularren alorrean, enpresa ehunaren elkarlan eta eraldatze proiektuak sustatzea, produktu eta zerbitzuen zirkulartasuna garatuz, aukera-hobiak identifikatuz eta negozio ereduak ekonomia zirkularrerantz bideratuz.
- Bioekonomiari eta ekonomia zirkularri lotutako oinarri teknologikodun enpresa berrien sorrera sustatzea.
- Lurzoru industrialak leheneratu eta deskutsatzeko prozesua biziagotuko dugu.
- Neurri handiagoan txertatuko ditugu gure kontratazioan erosketa publiko eta pribatu berdeko politikak.
- Natura-ondarea babesteko jarduketak bultzatuko ditugu, ondarea kontserbatze aldera. Horretarako, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatu, jasangarritasunez erabili, hobetu eta leheneratzeko betekizunak jasoko ditugu gure politika guztietan.



4.2. ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNA.

Lurralde industrialia gara eta, gainera, energiaren erabilera intentsiboa egiten duten enpresa ugari ditugu gurean. Horregatik, karbono isurketetan neutraltasuna lortuko duen ekonomia eta gizarte bat lortu nahi badugu, ezinbestekoa dugu gure industriaren baitan energia eraginkortasuna sustatzea eta, baita ere, energia berriztagarrien sorreran jauzi bat egitea.

Aldi berean, gipuzkoarren etxe eta auzoetan ere trantsizio energetiko hori ematea garrantzitsua da. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko, batetik, baina baita ere familia eta norbanakoen familien ekonomia babesteko ere. Izan ere, autokontsumoa eta energia komunitateak sustatzearekin bat, herritarrek babesten ari gara energiaren prezioen balizko gorakada eta gorabeheretatik.

Horregatik, energia propioa sustatzearen alde egingo dugu determinazioz, Gipuzkoaren energia dependentziaren murrizteko

eta modu oneko energia iturriak bermatzeko. Berriztagarrien aldeko apustu irmoa eginez, dela haize eta eguzkia energiarena, dela hidrogenoarena, geotermiarena, itsasotik eta biomasatik sortutako energiarena, hori guztia lurraldearen ingurumen balioekin bateragarri eginez.

- Ekiola egitasmoaren bitartez, udalekin, Jaurlaritzarekin eta Mondragon taldearekin elkarlanean, eguzki energia probesteko kooperatiben sorrera sustatzea.
- Tokiko energia komunitateen sustapena, lurraldeko herri eta auzoetan energia berriztagarrien sorrera komunitarioa sustatzeko.
- Energia berriztagarrien sorkuntzarako tamaina txiki, ertain eta handiko planta edo eremuen sorrera sustatzea, gainontzeko euskal erakundeekin lankidetzan.
- Hidrogenoaren Euskal Estrategiarekin lerrokatuta, erregai berde honen inguruko teknologia eta industria garapena sustatzea.
- Gipuzkoako enpresa sarean energia eraginkortasuna sustatzeko ahaleginean bidelagun izatea. Enpresa txiki eta ertainetan energia aurrezpen eta eraginkortasunari buruzko azterketak egiten diren moduan, azterketa horiek merkataritzako, lehen sektoreko eta mikroenpresetako profesioaletara hedatzea.
- Foru administrazioaren egoitzetan energia efizientzia areagotzea, energia berriztagarrien sorrera sustatzeko plangintza eguneratzea eta martxan jartzea.
- Naturklima fundazioaren eskutik, Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea, klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeke eta aurreikusteko, ondoren lurraldeko elkarte, eragile eta herritarrekin batera, ondorio horiek arintzeko eta egokitzeke estrategiak eta ekintzak elkarlanean garatzeko.
- Herritarrek trantsizio energetikoan parte hartzea ahalbidetzen duten tresnak eta sistemak bideratuko ditugu.

5. HELBURUA: Emakumeen eta gizonen berdintasun erreala gauzatzea

Emakumeen eta gizonen berdintasun erreala gauzatzea, gizarte justu eta berdinzaleago bat egiteko, emakumeak bizitza pertsonal eta profesionalean zigortzen dituzten estereotipo eta desorekak gaindituz eta bortizkeria matxistarik gabeko lurraldea eraikiz.

Gizonen eta emakumeen berdintasunerantzako bidean asko aurrera egin badugu ere, oraindik asko dugu egiteko. Berdintasun erreala gauzatzea beharrezkoa baita, Gipuzkoan pertsonak orok bere bizitzan ongizate osoa lortu dezan. Dela bizitza proiektu bat eraikitzerakoan, dela gizarte bizitzan, dela ibilbide profesional bat garatzeko garaian... Berdintasuna ezinbestekoa da, izan ere, gizarte justuago, kohesionatuago eta modernoago bat egiteko garaian.

Horrez gain, gure lurraldearen garapen jasangarrirako elementu garrantzitsua da berdintasuna. Izan ere, ezagutza eta pertsonen talentua gizarte baten garapenaren erdi-erdian kokatzen diren honetan, enpresek, erakundeek eta elkarteek ezin diote uko egin gizartearen % 50ari. Gipuzkoak ere ez. Horregatik, emakumezkoen ahalduntzean eta eremu sozioekonomikoan berdintasunean aurrera egiteko baldintzak sortzean lan egingo dugu datorren legegaldian.

Gure gizartean egiturazkoa den desberdintasunaren ondorio gogorra da bortizkeria matxista. Ezinbestekoa dugu bortizkeria matxistaren prebentzioan indarra jartzea, etorkizuneko Gipuzkoa emakumeen aurkako biolentziarik gabeko lurraldea izan dadin. Berdintasunerako politika integralak sustatzen jarraitu behar dugu, eskolan, kalean, enpresetan, administrazioan... berdintasun erreala gauzatzeko.

Gizon eta emakumeen berdintasunerantz eman beharreko eraldatze horretan, gazteengan eragiteak izugarriko garrantzia du. Ez daitezen genero estereotipoak beren artean erreproduzitu, berdintasunean eta hezkidetzan oinarritutako balioak garatu ditzaten eta, ondorioz, etorkizuneko gizartean berdintasuna egiturazko errealitatea bilakatu dadin.

5.1. GOBERNU ONEAN SAKONTZEA, GIPUZKOA BERDINZALEA ERAIKITZEKO

Berdintasunerako politikak sustatzeko lurralde aitzindaria izan da Gipuzkoa. Administrazioaren bultzada etengabeari eta handiari esker, gipuzkoar herritarren konpromiso sozial gero eta handiagoari esker. Berdintasunaren aldeko ahalegina foru gobernuaren erdigunera eramanez, Foru Aldundiaren gobernu onean sakontzen jarraituko dugu eta, Gipuzkoa berdinzalea eraikitzeko garaian, erakundearen eredugarritasuna indartzen segiko dugu.

- Diputazioaren baitan eta lurraldeko erakunde sisteman berdintasuna sustatuko duten egiturak, mekanismoak eta praktikak indartzea ahalbidetuko duen gobernantza ereduak sendotzen jarraitzea.

- 2020-2023 Berdintasuneko Foru Planaren gauzatzea eta ebaluazioa sustatzea, eta datorren legegaldirako plan berria diseinatzea, berdintasun politikari bultzada berri bat emateko.
- Gipuzkoako Foru Aldundian eta lurraldeko udaletan, berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekiko eta talde feministekiko harremanetan lankidetzazko gobernantza eredu bat sustatzea.

5.2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA

Komunitate gisa aurrera egiteko, pertsona orok ongizatea izan dezan eta gizartean parte hartu dezan, ezinbestekoa dugu emakumeen ahalduntzea, beren ikusgarritasuna eta esparru guztietan parte hartzea sustatzea. Herritar guztien ongizate osoa sustatzeko garaian funtsezko elementua delako eta, baita ere, lurralde berdinzale bat eraikitzeko ezinbesteko baldintza delako. Ahalduntze hori sustatzeko garaian erakunde eredugarria eta aitzindaria izan behar du Foru Aldundiak, eta horrela izaten jarraitu dezan eragiteko konpromisoa hartzen dugu.

- Eremu guztietan Gipuzkoaren eraikuntzan eta garapenean bidegile izan diren emakume aitzindarien ereduak aitortzea eta gizarteratzea, gizarte osorako eredu izan daitezen.
- Emakumeen elkarteetan, emakumeen etxeen eta ahalduntzeko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa. Gipuzkoako Emakumeen Etxeen funtzioa aztertzeke lana gauzatu eta Emakumeen Etxeen eredu partekatatu definitu eta gizarteratzea.
- Kultura, kirola eta bestelako ikuskizun eta ekitaldietan emakumeen protagonismoa sustatzea, estereotipoak eraldatu eta gizarte osorako eredu izan daitezen.

5.3. BERDINTASUN EKONOMIKOA ETA KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA SUSTATZEA

Eremu sozioekonomikoan aurrera egin badugu ere, oraindik ere nabarmenak dira emakumeen ibilbide profesionalak eta ongizate ekonomikoa baldintzatzen dituzten desorekak eta oztopoak. Horregatik, eremu ekonomikoan desberdintasunak sorrarazten dituzten egiturazko ereduak eta estereotipoak eraldatzen jarraitzeke konpromisoa berritzen dugu. Gisa

horretan, enpresa eredu berdinzaleetan sakontzeko, kontziliazio erantzunkidean aurrera egiteko, emakumezkoek pairatzen duten soldata arrakala gutxitzen joateko eta ekonomiaren alorreko erabaki guneetan emakumeen presentzia indartzeko.

- Enpresa Erantzunkideen Sarea indartzea eta zabaltzea, berdintasunarekin eta kontziliazio erantzunkidearekin konprometitutako enpresen esperientzia trukea indartu eta ekimen berritzaileak martxan jartzeko.
 - Beasaingo Herrilab3B herri laborategiaren esperientziari jarraituz, kontziliazio erantzunkidea sustatzeko esperientzia pilotuak Gipuzkoako lurraldean zabaltzea.
 - Zaintza lanak aitortzea eta haien balioa gizarteratzea, bizitzaren jasagarritasuna eta gizartearen ongizatera begira duten garrantzia dela eta.
 - Elkar-Ekin Lanean egitasmoaren esparruan, gizarte bazterkerian edo egoeran egoteko arriskua duten emakumeen lan munduratzeko indartzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.
 - Emakumeak, eta bereziki emakume gazteak, zientziara eta mundu teknologikora hurbiltzea bultzatuko duten neurriak sustatzea.
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen esparruan, emakumeen ahalduntzea eta lidergoa sustatzeko esperientzia berritzaileak abiaraztea.
- Bortizkeria matxista mota berrien ikerketa sustatzea. Ohitura sozial berriek eta gizarteko harreman digitalek bortizkeria matxista mota berrien sorrera ekarri dute eta horien inguruko ikerketa bat burutuko dugu, ondoren beharrezko prebentzio eta arreta neurriak diseinatzeko.
 - Maila guztietan, gizonezkoak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko neurriak sustatzea. 🌱

5.4. BORTIZKERIA MATXISTARIK GABEKO LURRALDEA

Beharbada indarkeria matxista da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren erakusgarri gordinena, maila jasan ezineta jarraitzen baitu bere burua pertsonen komunitate gisa errespetatzen duen gizarte batentzat. Indarkeria mota hori gero eta ageriagoa den arren eta gizarte gisa erantzuteko agian inoiz ez bezalako indarra dugun arren, urrats berriak eta indartsuak eman behar ditugu bortizkeria matxistari aurre egiteko garaian. Prebentzio neurriak eta arreta zerbitzuak hobetuz (ikusiz gizarte babeserako proposamenen atala) eta, baita ere, belaunaldi gazteenei eredu eta balio berdinzalea transmitituz.

- Indarkeria matxista jasan duten biktimen erreparazio eskubidearen aldeko urratsak ematea.
- Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta ematean esku hartzen duten erakundeetan eta erakunde horien artean koordinazio eraginkorra ahalbidetzea.
- Bortizkeria matxistak gizartean sortzen duen gaitzespena areagotzen jarraitzeko ekimenak martxan jartzea.
- Gizartearen eta, batez ere, gazteen sentsibilizazioan eragitea, eredu eta portaera berdinzaleak zabalduz eta biolentzia matxistaren oinarrian dauden joera matxistak azaleratuz.

6. HELBURUA: Euskararen erabilera indartzea

Euskararen erabilera indartzea bizitzako alor guztietan, batez ere esparru sozioekonomikoan eta erabilera sozialean, euskalgintzarekin elkarlana, gizarte aktibazioa eta berrikuntza ardatz hartuta.

Euskararen biziberritzean urrats handiak eman ditu gure lurraldeak, Euskadi osoak bezala, azken hamarkada hauetan guztietan. Mundu mailan erreferentzia gara hizkuntza gutxitu baten susperraldia arrakastaz gauzatu duen hizkuntza komunitate gisa. Baina baditugu desafioak ere. Euskal hizkuntzaren ezagutza mailak nabarmen aurrera egin badu ere, euskararen erabilera soziala ez da modu berean hazi. Hainbat esparrutan, eremu sozioekonomikoan edota mundu digitalean, kasu, asko dago egiteko.

Gure bizitzaren zati gero eta handiago bat mundu digitalean ematen dugu, gaur egun. Kultura eta entretenimendurako kontsumo ohiturak ere, geroz eta gehiago, pantaila bidez egin ohi ditugu, are eta gehiago belaunaldi gazteenek. Horri guztiari gehitu behar zaio, gainera, Gipuzkoako gero eta gizarte aniztasun handiagoa duela; kanpotik etorrita gure artera bizitzera eta lan egitera etorri diren gero eta gipuzkoar berri gehiago ditugun heinean, euskararen transmisioa eta erabilera bermatzea, euskara gizartearen kohesionatzeko hizkuntza bilakatzeko, lehen mailako desafio bilakatzen dira.

Datorren legealdian desafio horiei guztiei erantzun diegu Foru Aldunditik eta horretarako azken zortzi urteotan jarritako norabideari eutsiko diegu. Hiru ardatz nagusiren bitartez euskararen biziberritzean eta hizkuntza berdintasunean aurrera egiten ahalegin guztia jarriko dugu: gizarte aktibazioa, lankidetzak eta berrikuntza izango dira iparra markatzen duten koordinatuak. Hiru oinarri horien inguruan, indar eta energia berriz hauspotu nahi dugu euskara biziberritzeko lana.

Euskararen inguruan are eta gizarte aktibatuagoa, oraindik eta elkarlan estuagoa, gero eta jarrera berritzaileagoa. Horiek izango dira datorren legealdirako bideorria.

6.1. FORU ALDUNDIAN EUSKARARI BULTZADA, LAN HIZKUNTZA GISA

Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen %97k dagoeneko betetzen ditu bere lanpostuak eskatzen dituen hizkuntza eskakizunak. Langileen hizkuntza gaitasunak ia % 100ean bermatzen diren heinean, beraz, eguneroko lanean euskara lehentasunezko lan hizkuntza izan dadin neurri positibo berriak sustatzeko momentua da. Laneko hizkuntza ohiturei buruz langileekin gogoeta partekatua egin eta, pixkanaka baina geldialdirik gabe, Foru Aldundiko lanean ere euskara berdintasunez eta lehentasunez erabili ahal izateko baldintzak sortu asmoz.

Hala dagokio Foru Aldundiari, gainontzeko erakundeetan, eragilean eta gizarte osoaren aurrean jokabide ereduagarria izateko ardura

daukalako. Baina, baita ere, Gipuzkoan hizkuntza berdintasuna bermatzeko bidean, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko ardura eta betebeharra daukalako. Betebehar hori modu aktiboan bermatzeko konpromiso irmoa izan dugu eta izango dugu.

- Euskaraldiaren azken edizioetan izandako ikaspenetan oinarrituz eta Foru Aldundiaren baitako hizkuntza ohituren azterketari jarraituz, Aldundia Arigune proiektua abiaraztea, urteko 365 egunetan foru erakundea bere osotasunean euskaraz sano eta berdintasunez lan egiteko eremu bilakatzeko.
- Hizkuntza teknologien erabilera indartzea, Aldundiak herritarren eskura jartzen duen edukien guztien (testuak nahiz ikus-entzunezkoak) itzulpena bermatzeko eta, horrela, euskarazko edukien sorkuntza eta herritar guztien hizkuntza eskubideak uztartu ahal izateko.
- Foru Aldundiaren eta udalen arteko elkarlana indartzea, lankidetzako gobernantzaren bidez, euskara lan hizkuntza izan dadin abian jarritako esperientzia aurreratuak partekatu eta ekimen berritzaileak identifikatzeko.

6.2. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATzea, BERRIKUNTZATIK ETA ELKARLANETIK

Biziberritze prozesuari bultzada berri bat emateko, ezinbestekoa dugu euskararen erabilera sozialean arreta jartzea eta, gainera, abian jartzen ditugun ekimenak eraginkorrak izatea. Lehenago esan dugun moduan, ezagutzak modu nabarmenean aurrera egin badu ere, hizkuntzaren erabilera daukagulako desafio nagusietako bat.

Horregatik, bestelako inertzia gaitzitu eta egitasmo berritzaileak sustatzeak berebiziko garrantzia izango du, batetik. Euskaraldiak erakutsi digun moduan, baita ere, erakundeetan eta euskararen alorreko eragilean arteko elkarlana ere funtsezkoa izango da. Ezin ahaztu, ezta ere, euskara erabiltzearen garrantzia barneratuta eta aktibatutako gizarte bat beharrekoa dugula, ahalegin honetan. Datorren legealdian ere, hiru ardatz horietan eragingo du EAJ-PNVk, euskararen erabilera indartu eta esparru berrietara eramateko helburuarekin.

- Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Laborategiaren bitartez, euskararen biziberritzean eragin eraldatzailea izango duten ekimen berritzaileak eta esperimentalak sustatzea, euskal erakundeekin, euskararen eta berrikuntzaren alorretako elkarte eta eragileekin elkarlanean.



- Gipuzkoa Arigune bulegoa martxan jartzea, lurralde osoa euskaraz berdintasunez eta modu erosoan hitz egiteko espazio bilakatu dadin urrats berriak emateko, herritar bakoitzaren hizkuntza hautuak bateragarri eginez eta euskararen erabilera soziala sustatuz.
- Eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera indartzeko egitasmo esperimentalak martxan jartzea lurraldeko enpresetan, alor horretan Gipuzkoan dagoeneko garatu dugun ezagutza baliatuz.
- Lurraldeko enpresetan hizkuntzaren kudeaketa aurreratua garatu eta euskararen erabilera sustatzeko eredu arrakastatsuen errekonozimendua eta ezagutza hedatzeko neurriak martxan jartzea.
- Gazteek sare sozialetan eta modu informalean egiten duten kontsumo ohituretan euskararen erabilera sustatzea, Hi Gaztel egitasmoa lurralde osoko nerabeengana zabalduz.
- Ikus-entzunezkoen alorrean euskarazko eduki berritzaileen produkzioa sustatzea, 2de0 ikus-entzunezko laborategiaren bitartez. Euskarazko bideo-jokoaren sorrerarako egitasmo pilotu bat martxan jartzea.
- Euskararen biziberritzean gakoak izan daitezkeen gai eta errealitateen inguruko ikerkuntza sustatzea.
- Munduko gainontzeko hizkuntza gutxituekin elkarlana eta esperientzia trukea indartzea, euskararen biziberritzean bidea urratu dezaketen egitasmoak gurera ekartzeko.
- Euskara ikasleen ahalegina diruz laguntzen jarraitzea, euskara ikastea doakoa izan dadin. Euskara ikasi nahi duten pertsonentzako baliabide berriak eta berritzaileak lantzea, alorreko eragileekin elkarlanean. Herritar oro euskararen gutxieneko ulermen mailara iristeko estrategiak garatzea eta hedatzea. 🌱

7. HELBURUA: Mugikortazun jasangarrian eta konektatuen jauzi bat ematea

Mugikortasun jasangarrian eta konektatuen jauzi bat ematea, eskualde guztietan garraio publikoa hobetu eta erabilera indartzeko, eta errepide sare seguru, iraunkor eta adimentsua garatzeko.

Garraioa da Gipuzkoan atmosferara isurtzen dugun CO₂ guztiaren % 47aren erantzulea, gure lurraldeak garraio bideen ikuspegitik daukan kokagune estrategikoa dela eta, hein handi batean. Errealitate hau kontuan izanda, beraz, mugikortasunaren jasangarritasunean urrats berriak emateko anbizioa eta determinazioa du EAJ-PNVk, berrikuntzatik eta etorkizunera begira aurrera egiteko atal honetan ere.

Horretarako, lurraldeko herri eta hirien arteko mugikortasunean, nahiz inguruko lurraldeekin ditugun konexioetan, mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egingo dugu. Horretarako, eskualde guztietan autobus bidezko garraio publiko eraginkorra bermatuko dugu, zerbitzu berriak garatuko ditugu eta garraio sistemen interoperabilitatean sakonduko dugu.

Aldi berean, Eusko Trenen zerbitzua Donostian lurperatzeko lanak gauzatzearekin eta Abiadura Handiko Trenaren obraren amaiera gerturatzearekin bat, aro berri bat zabalduko da Gipuzkoaren mugikortasunean. Garraio publikoaren intermodalitatean jauzi berri bat emateko moduan izango gara eta, horrekin batera, herritarrei aukera berriak eskaini ahal izango dizkiegu modu eraginkorrago eta jasangarriago batean mugitzeko.

Bide azpiegiturek ere garrantzi berezia dute lurraldearen garapen iraunkorrean eta, nola ez, mugikortasun jasangarrian. Horregatik, azpiegitura horiek ekonomiaren lehiakortasuna sustatzeko baliabide izan daitezten saiatuko gara, batetik. Bestetik, garraio jasangarria bultzatzeko apustuak egingo ditugu eta bide azpiegitura sare adimentsu, jasangarri eta efizientea sustatuko dugu datorren legealdian.

7.1. GARRAIO PUBLIKO JASANGARRIARI BULTZADA BERRI BAT

Gizartearen deskarbonizazioan sakontzeko gure gizartearen egiteko nagusietako bat da mugikortasun jasangarrian urrats berritzaileak ematen jarraitzea, gisa horretan aldaketa klimatikoaren aurkako ahaleginari gure ekarpena egiteko. Azken urte hauetan garraio publikoaren alorrean azpiegitura eta zerbitzuak –Abiadura Handiko Trena, Lurraldebus, MUGI txartela etab.– sortu eta antolatzen lan handia egin dute lurraldeko erakundeek.

Gainera, garraio publikoa gizarte kohesionatu eta berdinzale baten giltzarrietako bat da. Lurraldean mugitzeko, ikastera nahiz lan egitera joateko, kultura eta aisialdiaz gozatzeko, aukera berdintasuna bermatzeko ezinbesteko zerbitzu publikoa da. Osagai horretan sakondu eta garraio publiko eraginkorra bermatzeko ekarpena egiten jarraituko dugu, beraz.

Datorren legealdian, MUGI txartelaren prestazioak digitalizatu eta oraindik gauzatzeke dauden azpiegiturak amaitzeko garaia izango da, batetik, eta garraio publiko jasangarriari bultzada berri bat emateko momentua, bestetik. Autobus zerbitzuak, trena eta bizikleta izango dira apustu horren ardatzak, etorkizuneko Gipuzkoan modu eraginkor, garbi eta osasuntsuago batean mugitzeko aukera emango dietenak herritarrei. Mugikortasun berriaren paradigmatik ere –konektatua, autonomoa, konpartitua eta jasangarria– ekarpen handiagoa egin daiteke norabide horretan eta horretan saiatuko da EAJ-PNV buru-belarri.

- MUGIren aplikazioa eraberritu, aplikazioaren bidez txartela momentuan bertan kargatu ahal izateko.
- MUGI birtuala abiarazi, erabiltzailea erdigunean jartzen duen sistema berri baten bitartez, Gipuzkoako garraio publiko guztietan txartel fisikoaren eraman beharrik gabe bidaiatu ahal izateko –mugikorra, erloju adimentsua edo tableta erabiliz, hala nola–.
- Euskadiko beste lurraldeetako garraio publikoetan, MUGI txartela erabiltzeko aukera areagotzea: Bizkaiko garraio publiko guztietan eta Iparraldeko eta Nafarroako autobus zerbitzuetan.
- Pasai Donibane eta Pasai San Pedro lotzen dituen itsasontzi bidezko garraio publikoa MUGI sisteman sartzeari, egunero zerbitzu hau erabiltzen duten herritarren mesedetan.
- Gipuzkoako landa ingurune eta herri txikiak biztanleen garraio publiko zerbitzuak hobetu asmoz, mugikortasun adimentsu eta konektatu bidezko autobus garraio zerbitzu aitzindaria martxan jartzea.
- Gipuzkoako bailara guztietan autobus bidez garraio publiko eraginkor eta aurreratu bat sustatzea.
- MUGIren sistema tarifarioaren berrazterketa, ohiko erabiltzaileak eta kolektibo zaugarrien mesedetan antolatutako deskontuak areagotzeko.
- Hiriarteko autobus eta tren zerbitzuek hiri eta herri barnean mugitzeko eskaintzen duten aukera indartu, herri barneko bidaiak guztiek herribusen tarifa izan dezaten.
- Lurralde buseko autobus flotaren berritzea bultzatzea, ibilgailu jasangarrietara eraldatzea gauzatzeko –mixtoak, elektrikoak, hidrogeno bidezkoak–.

- Gipuzkoarron aisialdirako garraio publikoaren erabilera indartzea, horretarako propio antolatutako zerbitzuak eskainiz.
- Gipuzkoarron gizarte kontzientzia areagotzea, garraio publikoa erabiltzeko ohiturak indartuz, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen bitartez.
- Irun-Brinkola Aldirikoan zerbitzua antolatzeko eskal erakundeok dugun eskuduntza defendatzea eta zerbitzu honetan beharrezko hobekuntzak eta modernizazioa defendatuz, lurraldearen mugikortasunean eta milaka herritarren bizitzan funtsezko garraibidea den heinean.
- Donostiako Erriberan, Euskotreneko eta Renfeko zerbitzuen intermodalitatea sustatuko duen geltokia eraikitzea.
- Gaueko garraio publikoa indartu, autobus zerbitzu gehiago eskainiz eta Gipuzkoako lurralde osoan Euskotreneko gaueko tren zerbitzua lortzeko lan eginez.
- Garraio publikoaren osagarritasuna hobetzeko balizko neurrien azterlan sakona bultzatzea, geltoki intermodalaren eta Abiadura Handiko Trenaren iritsiera kontuan izanda, etorkizuneko garraio publiko jasangarrian beharrezko hobekuntza planteatu eta lantzeko.
- Herritarren mugikortasun ohiturak aztertzeke ikerlan bat burutu, kontuan izanda mugikortasun pertsonalerako azken urteotan sortu diren ibilgailu berriak, batez ere patinete elektrikoak.

7.2. BIDE AZPIEGITURA SEGURU, ADIMENTSU ETA JASANGARRIAK

Azken bi legegaldietan lurraldearen modernizazio eta lehiakortasunerako ezinbestekoak ziren hainbat azpiegitura aurrera eramateko gaitasuna eta eraginkortasuna izan du EAJ-PNVk gidatutako foru gobernua. Horren lekuko, Gipuzkoako gaitasun handiko biribilgunea osatu izana edo aspalditik geldirik zeuden hainbat obra gauzatu izana –Deba-Mutriku berritzea, Donostiako 27. Poligonora sarbide berria, AP-8ko Irungo Oinaurreko lotune erdia, Azkoitia eta Urretxu tartean bide segurtasuna hobetzeko lehen fasea burutzea, Elgeta eta Kanpazar arteko errepidea zabaltzearen obra lizitatzea, Kanpazar eta Arlabango errepide zabalketa eta konponketa sakonak, etab.–. Horren ondorioz, Gipuzkoako punta-puntako azpiegiturak ditu, lurraldearen kokapen estrategikoari egokitutakoak.

Testuinguru horretatik abiatuz, bide azpiegitura garapen handien garaia gauditua dugu Gipuzkoan. Hemendik aurrera, errepideen hobekuntza obrak segurtasuna, eraginkortasuna eta iraunkortasuna hobetzean kokatuko da EAJ-PNVren lehentasuna, errepide bidezko mugikortasunean giltzarri diren hainbat guneetan egin beharreko interbentzioekin batera. Horretaz gain, Gipuzkoako gaitasun handiko bideak digitalizatu, jasangarriago egin eta errepide adimentsu bilakatzeko proiektua abiaraziko dugu, gainontzeko eskal erakundeekin elkarlanean eta, modu berezian, Iparraldeko eta Frantziako erakundeekin elkarlanean.

7.2.1. BIDE AZPIEGITURA BERRIAK ETA HOBKUNTZAK

Gipuzkoako errepide sarean giltzarri diren puntuetan, berrikuntzak egin eta gidarientzat seguruago eta erosoagoak diren azpiegiturak sortu:

- AP-8an hirugarren erreie bat eraikitzeke beharrei buruzko azterlan bat egin eta, gidarien segurtasunean eta trafikoaren erosotasunean eragin positiboa eduki dezaketen lekuetan, hirugarren erreien eraikuntza planifikatu.
- Urretxu-Azkoitia (GI-631) errepidearen eraberritzea osatzea, helburu hori betetzeko proiektuan falta diren bi faseak gauzatu, gidarien erosotasuna eta segurtasuna areagotuz.
- Donostiako saihesbidean (GI-20) Marrutxipiko lotune berria eraikitzeke lanak burutu, hiriko sarbideetako trafiko arintzeke eta Donostialdeko trafiko osoko erosotasunean eragiteke.
- Andoainen N-I eta A-15 arteko lotune berria eraiki, gune horretan sortzen diren pilaketei konponbide bat emateke, ingurumenarekin errespetuzkoa den irtenbide baten bidez. Proiektu berean, trafikoaren zaratak herritarren ongizatean duen inpaktu negatiboa saihestuko dugu inbertsio handia suposatuko duten hainbat soluziorekin.
- Zarauzko saihesbideke obrak egitea, herrigunetik trafiko ateratzeko eta industriaguneetako sarbideak hobetzeko.
- Beasain-Durango korridorea gauzatu eta trafikoaren segurtasuna areagotzeke, Arrasate eta Elorrio artean N-636 errepidea eraberritzeke alternatibean azterlana gauzatzeko, balizko aukerak sakon aztertzeke parametro guztiak kontuan izanda, barne direla ingurumen inpaktuak, oztopoak, konponbiderik egokienak, eta egin beharreke inbertsioak.
- Gipuzkoako lehen eta bigarren mailako sareke azpiegituretan beharrezko berrikuntza eta mantentze lanetan inbertsioak handitzeke azterketa egin, lehentasunak ipini eta datozen hamar urteetan lurraldeke bide azpiegituren sarea hobetzeko plangintza egitea.
- Lurraldeke industria gune eta enpresek dituzten beharrak aztertzea eta, beharrezkoa den lekuetan, sarbideetan, hobekuntzak gauzatzeko.
- Donostian, N-Ietik Zubietako Eskuzaitzeta industriagunerako lotunearen (Allerrun) berritzea burutzea.

7.2.2. BIDE AZPIEGITURA ADIMENTSUAK ETA JASANGARRIAK

Gipuzkoako Biribilgune Adimentsua eta Jasangarria plangintza landu eta abian jarri, gaitasun handike errepideen efizientzia energetikoa, jasangarritasuna eta digitalizazioan aurrera egiteke:

- Gaitasun handike errepideetako argiteria LED bidezko zabaltzen jarraitu eta burutu, N-I errepidean egin dugun bezala.

- A-15eko tunelak berritzen jarraitu, segurtasun neurriak, adimen artifizialaren erabilera zehatzagoa eta energia eraginkortasun handiagoa izan dezaten gidari guztien onetan Europako zuzentarauetara egokituz eta bide segurtasuna bermatuz.
- Sareko hainbat puntutan argi energiarekin pizten den eguzki argiteria instalatu.
- Errepideetan birziklatutako lehengaiekin egindako asfaltoak erabili ahal izateko berrikuntza eta ikerketak egitea, horretarako proiektu pilotuak garatuz.
- Garraio jasangarria sustatzea, ingurumen ikuspegitik jasangarrienak diren ibilgailuei eta garraio publikoari peajeetan deskontuak aplikatuz eta energia nahiz erregai jasangarriak errenergatzekeko puntuak instalazioa sustatuz.
- Gaitasun handiko errepideen kudeaketan adimena txertatzea eta ITS bidezko komunikazio sistemak instalatzea, gidarien erosotasuna eta segurtasuna hobetzeko.
- Gipuzkoako errepideetako zarataren mapa eguneratzea eta ekintza plana gauzatzen jarraitzea, beharrezko den lekuetan zarataren aurkako panelak instalatuz.
- Gipuzkoa osoan autoa konpartitzen duten gidarientzako aparkaleku berriak egiteko azterketa egin eta eraikitzea.
- Lurraldeko Bidegorrien Plan sektorial berria diseinatu eta abiarazi, herritarrekin partaidetza prozesu bat garatuz eta gaur egun bete gabe dauden hutsuneak osatuz. Oinezkoen bideak bultzatzea eta eraikitzea, udalekin elkarlanean.
- Bizikletaren erabilera sustatzea herritarren eguneroko garraio bide gisa, batez ere lanerako joan-etorrietan.
- **Gipuzkoa Living Lab** proiektua hedatzea, errepide adimendunen mugaz gairik eremu esperimental bat sortuz, errepideetan garraio adimenduneko, bide-segurtasuneko eta energia-eraginkortasuneko zerbitzu eta teknologia aurreratuak garatu daitezkeen:
 - Ibilgailuen substantzia kutsatzaileen unean uneko isuriak neurtzeko eta kontrolatzeko sistema baten instalazioa, modu aitzindari eta esperimentalean, etorkizunean ibilgailuek igortzen duten poluzio errealean oinarrituz tarifakazio bidezkoagoa eskaini ahal izateko.
 - Tarte zailtan edo ikuspen gutxiko tarteetan zikloturistak ibiltzen diren errepideetan bide segurtasuna hobetzeko esperientzia pilotua. Gaintzurizketan egindako azterlanetik abiatuz, sistema hau lurraldeko lehentasuneko puntuetan instalatzeko plana diseinatzea eta garatzea.
 - AP-8 eta AP-1 errepideak bide teknologia berrien proba banku gisa egokitzeko eta ekipatzeko mugaz gairik proiektua. Korridore osoan 25 detekzio-



eta komunikazio-gailuren instalazioa gauzatu eta, ondoren, mugikortasun autonomo eta konektatuko mugaz gairik banku proba erreala antolatzea.

- Errepide adimendunei buruzko ikerketa eta berrikuntza proiektuak sustatzea, gainontzeko erakundeekin, enprekin, unibertsitateekin eta berrikuntza zentroekin batera.

8. HELBURUA: Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sarea sendotzea

Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sarea sendotzea, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko, ekonomiaren lehiakortasunean eragiteko eta enpresa txiki eta ertainetan digitalizazioa eta berrikuntza sustatzeko.

Herri baten garapenean gero eta garrantzia gehiago hartzen du gaur egun berrikuntzak eta garapen teknologikoak, ekonomiaren lehiakortasunerako faktore nagusietako bat delako eta, beraz, herritarren ongizatean ere ondorio positibo esanguratsuak eragiten dituelako. Horren jakitun, azken hamarkadetan EAJ-PNVk gidatutako gobernuek I+G+b sarea indartzearen aldeko apustu garrantzitsua egin dute.

Erakundeen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko zentroen arnas luzeko ahalegin jarraiari esker, Gipuzkoa berrikuntzaren lurraldea da. Punta-puntako ikerketa guneak eta zentro teknologikoak ditugu lurralde osoan eta, haien lanari esker, gure enpresek ezagutza aurreratua izaten dute beren proiektu eta zerbitzuak garatzeko garaian.

Hala ere, zientziaren eta berrikuntzaren aldeko apustuak etenik gabeko ahalegina eskatzen du. Zer esanik ez, bizi ditugun garaiotan. Izan ere, abian dauden eraldatze teknologiko-digitalak, eraldatze berdeak eta zaintzaren eraldatzeak, arrakastaz gauzatu nahi baditugu behintzat, eskatzen dute berrikuntza gaitasun handia. Horregatik, EAJ-PNVk Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea sendotzen jarraitzeko konpromisoa berresten dugu datorren legealdirako, ezagutza zientifiko aurreratua sortzeko, ekonomiaren lehiakortasunean eragiteko eta enpresa txiki eta ertainetan digitalizazioa eta berrikuntza sustatzeko.

Gainera, pandemiak behin berriro ere ikusarazi digun moduan, zientzia eta arrazoimena funtsezko oinarriak dira herri baten bizikidetzarako eta garapen demokratikorako. Eta, nola ez, unean uneko zailtasunei ahalik eta berme zabalarenarekin erantzuteko.

8.1. GIPUZKOA, ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZA AURRERATUAREN LURRALDEA

Askotan, zientziaz eta berrikuntzaz hitz egiten dugunean, burura etortzen zaizkigu azpiegitura zientifiko handiak, laborategiak eta aurrerapen teknologikoak. Horiek guztiak garrantzi handikoak dira, inondik ere, baina gaur egungo gizartearen erreparatu beharreko beste bi elementu garrantzitsu ere badaude: pertsonak eta berrikuntza ez teknologikoa.

Berrikuntza teknologikoan oso ongi kokatutako lurraldea bagara ere, gure gaitasunak kamutsagoak dira berrikuntza ez teknologikoan. Kudeaketari, prozesuei, zerbitzuei edota antolakuntzari buruz berritzea kosta egiten zaigu eta hor daukagu hobekuntza lerro nagusietako bat, foru gobernutik eraldatzen saiatu beharrekoa. Bestetik, pertsonak eta haien

talentua sustatu beharrean gaude alor honetan ere, indarrean ditugun eraldatzeetan arrakastaz aurrera egiteko talentudun pertsonak behar baititugu.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarean inbertsio berriak sustatzea eta enprekin elkarlanean burututako berrikuntza proiektuak sustatzea.
- Gipuzkoan bikaintasunez egindako oinarriko zientzia sustatzea, hainbat alorretan. Donostia International Physics Center (DIPC) bikaintasuneko ikerketa-zentroa handitzeko eraikin berria egiteko proiektuaren garapena babestea.
- Goi mailako ikertzaile eta talentuaren erakarpen eta errotzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea indartzeko. Zientzialarien ibilbide profesionalak bultzatuko ditugu epe ertain eta luzera, Fellows Gipuzkoa eta Ikerbasque-ren arteko lotura eta osagarritasuna finkatuz.
- Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Gipuzkoan teknologia kuantikoen garapen polo bat hezurramitu dadin ekarpena egitea. Teknologia kuantikoak gure industrian izan ditzaketen aplikazioak ikertu eta enpresei lagunduko diegu berauek aplikatzen, eta eremu disruptibo honetan oinarritutako enpresa proiektu berriak sustatu.
- Emakume zientzialarien lana eta ibilbide profesionala sustatzea, emakumeak taldeko lider postuetan sar daitezen, emakumeak buru dituzten ikerketa taldeak gara eta hazi daitezen, eta emakumeek koordinatutako proiektuak eta jarduerak gauza daitezen. Alor honetan esperientzia pilotuak martxan jartzea.
- Emakumeek zientziari eta berrikuntzari egiten dioten ekarpena gizarteratzea eta, alor honetan ere, berdintasun planak sustatzea ikerkuntza eta teknologia zentroetan.
- Alorreko ikerkuntza zentro eta erakundeekin elkarlanean, Gipuzkoan terapia aurreratu egiten den ikerkuntza sustatzea, etorkizuneko ekonomia sektore gisa.
- Sportek Hub, kirolari aplikatutako teknologia berritzaileen huba sendotzea, lurraldean, ekintzailetasun teknologikoa eta kirol produktu eta zerbitzuetako berrikuntza sustatuz.
- Gipuzkoako erakargarritasuna bultzatuko dugu nazioarteko ikerlari eta talentuari begira. Nazioarteko ikertzaile eta talentua Gipuzkoara erakartzeko plana bultzatuko dugu.



8.2. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAN BERRIKUNTZA ETA DIGITALIZAZIOA SUSTATZEA

Gipuzkoaren berrikuntza gaitasunak indartu nahi baditugu, zalantzarik gabe, teknologia eta ezagutza aurreratua enpresa txiki eta ertaintetara (ETE) transferitzeko bideak biderkatu beharrea gaude, azken horiek baitira ahalegin horretan zailtasun gehien dutenak. Era berean, ETEek ere berrikuntza ez teknologikoan aurrera egin dezaten modua egiteko momentua da, batez ere digitalizazioaren trena aprobetxatu dezaten.

Horregatik, hurrengo legealdian EAJ-PNVk arreta berezia eskainiko dio enpresa txiki eta ertaintetan berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeari. Horrek, gainera, lurralde osoko eragileak aktibatzea eskatuko du. Esfortzu partekatu horretan ere lankidetzan jarduteko determinazioa dugu.

- Enpresa txiki eta ertainek digitalizazioan lehen urratsak emateko ibilbide egokituak eskaintzea, eskualdeetako garapen agentziekin elkarlanean, kasu bakoitzean hasierako diagnostia egin eta proiektu egingarri diseinatu eta antolatuz.
- Enpresa txiki eta ertaintetan berrikuntza sustatzeko estrategia garatzea, digitalizazioaren alorrean planteatu bezala, kasu bakoitzean hasierako beharrak identifikatu eta ondoren proiektua egingarri bat diseinatu eta antolatuz.
- Zentro teknologikoen elkarlana sustatzea lurraldeko enpresa sarearekin, bereziki ETEekin, teknologia eta soluzio

berriak transferitu eta ekonomia sarearen lehiakortasuna indartzeko.

- Etorkizuneko industriasektoreetan elkarlanean gauzatutako proiektu berritzaileak sustatzea: mugikortasun jasangarria eta adimentsua, silver economy, zibersegurtasun industrialra, ekonomia zirkularra, gastronomiari lotutako digitalizazioa, teknologia kuantikoak, adimen artifiziala eta terapia aurreratuak.
- Etorkizuna Eraikizeko erreferentzia zentroetan enpresa txiki eta ertainei zuzendutako ekintzak garatzea.

9. HELBURUA: Kultura demokratikoan oinarritutako lurralde anitza eta inklusiboa

Kultura demokratikoan oinarritutako lurralde anitza eta inklusiboa eraikitzea, giza eskubideetan oinarritutako memoria eta elkarbizitza indartzeko, eta pertsona orori berdintasuna eta bizitza proiektu aske eta orekatu bat eskaintzeko.

Pertsona erdigunean jarrita, gizarte kohesionatu eta demokratiko gisa Gipuzkoa hazi arazi nahi dugu. Horrek etenik gabeko lana eta esfortzua eskatzen du, jakinda handiak direla munduan kontrako norabidean eragiten ari diren korrante ideologikoak. Muturreko populismoak, ezker ala eskuin, gizartean gatazka eta tentsioa sortzen saiatzen dira etenik gabe, modu horretan herritarrak zatitu eta demokrazia bera ahultzeko. EAJ-PNVk, bere historian betidanik egin izan duen bezala, demokraziaren, Giza Eskubideen, bakearen eta elkarbizitzaren aldeko balioak defendatuko ditu datorren legegaldian ere.

Horretarako, Gipuzkoan eta Euskal Herrian ezinbestekoa dugu kultura politiko demokratiko bat garatzea. Horrek eskatzen du, alde batetik, ETAren terrorismoak eta motibazio politikoko beste indarkeriak gure herrian utzitako zauriei erreparatzea, pixkanaka sendatzen joan daitezten. Erakundeok ardura berezia dugu puntu honetan. Indarkeria eta terrorismoaren biktima guztiei zor diegun justizia, memoria eta erreparazioa bultzatzea dagokigu, gainontzeko erakundeekin elkarlanean. Bestalde, Giza Eskubideetan eta balio demokratikoetan oinarritutako bizikidetzak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, baita ere.

Elkarbizitza eta aniztasun politikotik harago, bizikidetzak demokratikoaren eta gizarte kohesioaren beste oinarri nagusietako bat da aniztasunaren eta diskriminazio ezaren balioa. Izan ere, gaur egungo Gipuzkoan nabarmen hazi da etnia, jatorria, gaitasun eta sexu orientazioari lotutako aniztasunaren aitortza eta defentsa. Aniztasun horrek balio berriak eranstean dizkio gure lurraldeari eta, hori horrela, foru erakundeari dagokio gurean berdintasun eta diskriminazio eza bermatu daitezten lan egitea.

Lehentasun horiek gauzatzeko, nola ez, lankidetzazko gobernantzaren aldeko apustua egingo dugu. Eusko Jaurlaritza, Batzar Nagusiak eta udalak, memoria historikoa eta hurbilekoa sustatzen duten elkarteak eta adituak, unibertsitatea, giza eskubideen eta aniztasunaren alorreko eragileak... guztiekin elkarlanean kultura demokratikoa sustatzen jarraitzea izango da helburua.

9.1. GIPUZKOAN KULTURA POLITIKO DEMOKRATIKOA ERROTZEAK

Lurralde eta herri bezala, jomugan izan behar dugu sistema demokratiko sendo eta zorrotza eraikitzea, Giza Eskubideen defentsan oinarria duena. Gatazkak ez dira desagertuko, baina kultura politiko demokratiko batek bermatzen du etorkizuneko erronkei eta eztabaidei era demokratikoan

erantzuten diegula. Urte luzeetan biolentziak mugatu du ekimen soziala eta politikoa, gure herrietan ez zegoen debate politiko normalizaturik indarkeriak, beldurrak eta inposizioak elkarrizketa normalizatua baldintzatzen zuelako. Elkarbizitzan asko hobetu badugu ere, elkarrizketarako eta kultura politikorako ditugun mugak oraindik hor daude eta, beraz, konfiantza sendotzea, askatasuna, ezberdin pentsatzen duenarekiko errespetua eta Giza Eskubideak sustatu behar ditugu gipuzkoar gizartearen baitan.

Kultura demokratiko horrek hainbat ardatz ditu. Horietako nagusiak, EAJ-PNVren iritziz, izan behar dute biktimei zor zaien errespetua eta memoria, Giza Eskubideen defentsa eta gizarteratzea, eta bizikidetzak demokratikoa. Atal honek garrantzia handia hartzen du egungo Europako testuinguruan, non autoritarismoaren eta muturreko ideologiaren mehatxua gero eta presentago dagoen.

- Gipuzkoako udalerrietan aniztasun politikoa, elkar ulertzea eta elkarbizitza sortzeko elkarrizketarako topaguneak azken hamarkadan izandako ibilbidearen inguruko testigantza jaso eta gogoeta bultzatu, ikasgaiak aztertu eta Bizikidetzak Lantzen egitasmoa beste herri batzuetara eramanez.
- Terrorismoak eta motibazio politikoko beste indarkeriek eragindako biktimen inguruko hurbileko memoria errekonozitzea eta lurralde osora zabaltzea, azterlan eta sentsibilizazio ekintzen bidez.
- Giza eskubideen urraketaren inguruko gogoeta eta azterketa akademikoa sustatu, alor bakoitzeko eragile eta adituen partaidetzarekin.
- Gipuzkoarren kultura demokratikoa aztertzeko 2018an argitara emandako ikerlana berri, gai honetan izan dugun eboluzioa aztertzeko.
- Gazteen artean kultura demokratikoa sustatzeko egitasmo parte-hartzaileak sustatzea, unibertsitateekin elkarlanean.
- Memoria historikoan sakontzen jarraitzea, elkarte memorialistekin elkarlanean, arreta berezia eskainiz datozen legegaldian emakumeek frankismoan zehar jasan zuten errepresioari.
- Gure lurraldean memoriaren leku izan daitezkeen guneak identifikatzeko azterlana, lankidetzazko gobernantzaren bidez definitu ahal izateko leku hauen definizioa eta diseinuari.



hizkuntza, kultura, sexu orientazioa, genero identitatea, etnia, erlijioa, ideologia eta gaitasun funtzionala.

- Pertsonak eta herritarrak aniztasunera begira aktibatzen jarraitzea, alor honetan ere Gipuzkoa eredu eraiki asmoz.
- Gizarte zibil antolatuekin eta aniztasunaren alorreko beste eragile batzuekin maila anitzeko lankidetzazko gobernantzarantz aurrera egitea.
- Erakundeon arteko eta eragileekiko koordinazioa indartzea aniztasunaren eta giza eskubideen eremuan, Gipuzkoako Aniztasun Sarearekin elkarlanean.
- Koexistentziatik bizikidetzara pasatzeko, pertsonen eta eragile guztien arteko interakzioa positibo handiagoa eragitea eta gizarteko esparru guztietan gizatalde edo kolektibo hauen parte hartzea sustatzea.
- Migrazioen inguruko sentsibilizazioa indartzea, erakusketa eta gizarteratze lanen bitartez.
- Gure lurraldetik igarotzen diren migratzaileen duintasuna, Giza Eskubideak eta ongizatea ziurtatzeko zerbitzu eta baliabideak eskaintzea, gainontzeko erakundeekin elkarlanean.
- Gerra eta bestelako egoera larrietatik ihesean Gipuzkoara datozen errefuxiatuei babesa eman eta gure gizartean integratzeko baliabideak eskaintzea, gainontzeko erakunde eta eragileekin elkarlanean. 🌍

9.1. ANIZTASUNA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Aniztasunak aberastu eta indartu egiten gaitu XXI. mendeko gizartean. Baina aldi berean, gizarte gero eta anitzagoa izanik, gure buruari galdetzen diogu: nola erantzun behar die Gipuzkoak gure artean ditugun pertsona eta errealitate anitzi? Galdera horren erantzuna konplexua da, baina EAJ-PNVren erantzuna da, finean, lurraldearen izaera komunitarioa sendotu eta bizikidetzan sakondu behar dugula. Horrela bakarrik lortuko dugu gure lurraldean eskubide berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea; horrela bakarrik lortuko dugu gizarte desberdintasunei aurre egitea.

Lurralde irekia eta modernoa gara, baina erne jarraitu behar dugu gure gizartearen ezaugarri diren bizikidetzan, kohesioa eta elkartasuna desagerrarazi nahi dituzten diskurtso populistak bistartzeko.

- Gipuzkoako herritarren arteko integrazioa, diskriminaziorik eza eta bizikidetzan sustatzea, edozein dela ere jatorria,

10. HELBURUA: Kultur sorkuntza babestu eta sustatzea

Kultur sorkuntza babestu eta sustatzea, eskaintza eta kontsumoa indartuz, gure kultura propioetik munduari ekarpena egiteko eta gazteen artean bereziki euskarazko edukien kontsumoa areagotzeko.

Pertsona politika publikoen erdigunean jartzen dugula diogunean, ezinbestekoa dugu kulturaren eta sormenaren gaia mahai gainean jartzea. Pertsonen garapenerako eta askatasunerako oinarritzko behar eta elementua delako kultura. Munduan kokatzen laguntzen digulako, tokiko eta mundu zabaleko errealitateak eta arazoak ulertzen laguntzen digulako eta bizitza bera bizigarriago egiteko aukera eskaintzen digulako.

Herri baten garapenean eta ongizatean ere muineko gaia da. Euskal Herriaren izaeraren beraren bihotzean kokatzen dira euskara eta euskal kultura. Gure kultura eta hizkuntzak oinarri sendoak ematen dizkigu mundu zabaleko errealitate anitzekin solasean aritzeko eta, horrela, kultura globalari gure ekarpena egiteko.

Gogoeta horretatik abiatuz, datorren legealdian kulturaren alorrean apustu integrala egiteko determinazioa du EAJ-PNVk. Ahalegin horretan, lehentasun nagusia izango da diziplina anitzetako sortzaileen lanari eta sormen industriei babesa eta bultzada bat ematea. Bestetik, baita ere, kulturak berekin duen izaera komunitarioari bidea ematen jarraituko dugu: hau da, kulturaren garapenean eta sorkuntzan parte hartzen duten elkarte eta herritarren partaidetza eta sorkuntza sustatzeko lan egingo dugu. Kultura izan dadila, alegia, herri ekimenaren ondorio eta helburu.

10.1. KULTUR SORKUNTZA BABESTU ETA INDARTZEA

Beste hainbat alorretan egin bezala, COVID-19aren pandemiak gogorarazi digu zeinen garrantzitsua den kultur sorkuntza herritarren ongizaterako eta herriaren garapenerako. Baina, aldi berean, argi geratu da zeinen hauskorra den sorkuntza, ekoizpena eta kudeaketa ogibide duten profesionalen egoera. Talentu handiko sortzaileak ditugu Gipuzkoan, diziplina anitzetan, baina talentu horrek eskatzen du babesa eta bultzada. Herri erakundeon eta, baita ere, herritarren atxikimendua.

Datorren legealdian, EAJ-PNVk buru-belarri lan egingo du kulturaren sektorean eman dadin krisiaren ondorengo susperraldia. Gizartearen eta ekonomiaren alorrean ematen ari diren eraldatzeak baliatzea, sortzaileen alde egiteko, euskarazko sormena eta kontsumo ohiturak hedatuz, sorkuntza, ekoizpena, kulturaren eskaintza eta kultura ondarearen transmisioa indartuz.

Hori guztia, gainera, lankidetzazko gobernantzaren eskutik, gainontzeko euskal erakundeekin, elkarte profesionalekin eta sektoreko eragileekin elkarlanean egingo dugu. Guztion artean lehentasun berriak identifikatu eta osagarritasuna bilatuz.

- Etorkezuna Eraikizen baitan, kulturgintzari eta sortzaileei zuzendutako gogoeta eta esperimentazio espazio berri bat sortzea, Gipuzkoaren etorkizuneko kultura politikak elkarlanean definitzeko.
- Kultur sortzaileen lana babestu, beren errealitate eragokituko den fiskalitate justu eta berritzaile baten bitartez.
- Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Udalen arteko osagarritasuna sustatu, EAEko Kultura 2028 Plan Estrategikoan ezarritako ardatzak gidalerro gisa hartuta.
- Kultur sorkuntza eta ekoizpena suspertzeko, kulturgileen profesionalizazioa indartzeko eta kultura eta sormen industriak garatzeko programak indartuko ditugu.
- Foru Aldundiak sostengatzen dituen kultura hedatzeko programetan gero eta bertako talentu gehiagoren presentzia sustatzea.
- Euskal kulturari, euskal identitateari eta euskal pentsamenduari buruzko ikerketa, gogoeta eta transmisioa sustatzea, Jose Migel Barandiaran eta Joxe Azurmendi katedren lana eta jarduna elkarlanean sustatuz.
- Euskarazko edukien kontsumo ohiturak indartzeko sensibilizazio kanpainak garatzea, kulturzaletasuna indartuz.
- Koldo Mitxelena Kulturunea eraberritzearekin bat, irakurzaletasuna, arrazoimena eta pentsamendu kritikoa sustatzeko programa berriak abiarazi.
- Pertsona orori kultur edukien kontsumoa eta gozamaña bermatu, kultur eskaintza inklusiboa sustatuko duten egitasmo berritzaileak sustatuz.
- Ondare materiadun eta materiagabea kudeatu, babestu eta herritarren artean zabaltzeko programa berriak abiarazi.

10.2. KULTUR BALIABIDE ETA PROGRAMAZIOAREN OSAGARRITASUNA INDARTZEA

Azken hamarkadetan Gipuzkoan kulturaren alorreko azpiegitura sare garrantzitsua garatu da. Mota eta izaera anitzeko aktibitateak eta eskaintza hartzeko prest dagoen sarea da. Datorren legealdian sare honen guztiaren dinamizazioa eta osagarritasuna sustatzeko ahalegin berezia egingo dugu.



- Lurraldeko kultur baliabideen maparen azterketa egin, baliabideen osagarritasuna bilatu eta hobetzeko lehentasunak ezartzeko.
- Lurraldeko museo sarearen digitalizazioa sustatzea.
- Tabakalerako ekosistema kulturala indartzen jarraitzea bertako eragileekin elkarlana sustatuz.
- Koldo Mitxelena kulturunearen egokitze eta berritzea gauzatzea, liburutegi digitala eta gune kultural aurreratua bihurtuz.
- Txillida-Lekurako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea, horretarako esperientzia pilotu bat abiatuz.
- Lurraldeko ondarearen ezagutza sustatzea herritarren artean, digitalizazioak eta errealite areagotuak eskaintzen dituen aukerak probestuz.
- Lurraldeko ondarea bertakoen zein turisten artean ezagutzera emateko promozioko estrategia hobetzea eta indartzea, publikoaren ikuspegitik inklusiboago eginez. 🌱

11. HELBURUA: Bizitza ohitura osasuntsuen alde egitea

Gipuzkoarren bizitza ohitura osasuntsuen alde egitea, gipuzkoar guztiak modu orekatuan lan eta bizi gaitezen, buru osasuna, bakardadea eta adikzioena bezalako errealitateen prebentzioan sakonduz, kirola eta ariketa fisikoa egiteko ohiturak zabalduz.

COVID-19ak utzi duen beste ondorio sozial nabarmenenetako bat da bizitza osasungarriaren aldeko kontzientziaren areagotzea herritarren artean. Egungo bizimoduak berekin dakarren estresa eta buruko osasun arazoaren gorakada herritarren kezka nagusien artean kokatu dira. Ondorioz, herritarren eskaeren artean gero eta gehiago jasotzen ditugu espazio irekietan ariketa fisikoaz eta aisialdiaz gozatzeko beharrezana, kontziliazio erantzukidea eta bizitza orekatua, osasun fisikoa eta buru osasuna zaintzeko nahia, norberaren barne oreka bilatzeko premia.

Ongizatearen ikuspegi zabal horrek eskatzen du herritarren ikuspegi integral bat eta, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuduntzetatik ere ongizate osoaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du EAJ-PNVk. Horretarako, berariar abian jarritako ekimen berriak sustatuko ditugu, alor honetan diharduten erakunde, eragile eta elkarteekin elkarlanean.

Atal honetan, bizitza ohitura osasuntsu eta orekatuen alde apustu egingo du Aldundiak, dela kirolaren alorrean, dela elikadura osasuntsuaren alorrean. Ulertuz pertsonak gizarte bizitzan, ingurukoekin harremanetan, lortzen dugula ongizate emozionala. Eta, baita ere, eguneroko estres eta pantailetatik urrun, naturarekin kontaktuan egoteak orekatzen gaituela gure buruarekin eta gure ingurunearekin.

11.1. ONGIZATE EMOZIONALA ETA BURU OSASUNAREN ALDEKO APUSTUA

Gizarteko kezka nagusien artean kokatu dira, lehen esan bezala, pertsona guztien ongizate emozionala eta buru osasuna. Are gehiago indibidualismoaren zabalkundearen ondorioz, gizartearen gorabeherei eta norbere arazo indibidualei aurre egiteko garaian, herritarrok inguruan babesten gaituen babes humano pertsonala mehetzen ikusten dugunean.

Horren guztiaren aurrean, EAJ-PNVk errealitate sozial emergente berri hauei garrantzia berezia emango die datorren legealdian. Foru Aldundiak dituen eskuduntzetatik gure ekarpena egiteko arazo horien prebentzioari eta arretari, beti ere gizarte ekimena eta erantzun komunitarioa indartuz eta pertsona erdigunean izango duten zerbitzu eta egitasmo berriak martxan jarritz.

- Gipuzkoarron ongizate osoa sustatzeko lurralde estrategia diseinatu eta abian jartzea, herritarren ongizate emozionala, buru osasuna eta bizitza osasuntsua eta orekatua sustatzea helburu izango duena.

- Adinberri fundazioarekin eta lurraldeko udalekin elkarlanean, adineko pertsonen artean nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko lurralde estrategia abiaraztea, bakarrik bizi diren herritarren gizarte eta komunitate loturak indartuz.
- Buru osasunaren errealitatea eta bere prebentzioaren inguruko sentsibilizazioa indartzea, alorreko elkarte eta gizarte eragileekin elkarlanean.
- Buruko gaitzak dituzten pertsonentzat –adingabeko, gazte eta heldu– gizarte babeseko zerbitzu berritzaile eta pertsonalizatuak abian jartzea, osasun mentalaren problematika konplexuaren aurrean Osasun sistemarekin eta bere zerbitzuekin koordinatuz, hirugarren sektore sozialeko erakundeekin, eta komunitatearekiko konexioa landuz.
- Gaixotasun dualaren inguruan –buruko gaitzen bat eta adikzioen bat simultaneoki–, egoera lazgarri hori bizi duten herritarrentzako eta senitartekoentzako arreta zerbitzu integrala garatzea Debagoienan. Zerbitzuaren emaitzak aztertuta, lurralde osora antzeko esperientziak zabaltzea aztertzea.
- Haur, nerabe eta gazteen artean pantaila eta sare sozialen erabilera orekatuaren aldeko prebentzioa sustatu, gizarte sentsibilizazioaren bidez, haur eta gazteen ongizatearen eta garapenaren mesedetan.
- Zaintza lanetan berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea sustatzea, Erantzunkide Sarearen bitartez eta kontziliazio erantzukidea sustatzeko herri laborategiak antolatuz.
- Zahartze aktibo eta osasuntsuaren aldeko lurralde estrategia garatu eta hedatzea.

11.2. KIROLA, ARIKETA FISIKOA, ELIKADURA JASANGARRIA ETA OSASUNTSUA

Ongizate osoa sustatzeko daukagun tresna nagusietako bat da, zalantzarik gabe, kirolaren eta ariketa fisikoaren sustatzea, gaztetxo, heldu eta adinekoen artean. Aldi berean, ongizatearen beste oinarrietako bat elikadura osasuntsua izaki, atal honek ere garrantzia handia hartzen du.

EAJ-PNVk kirola, ariketa fisikoa eta elikadura osasuntsua herritar guztiengana gerturatzeko eta herritar guztien eskura



jartzeko lan egingo du. Neurri berritzaileak abian jarri eta, alor horietan guztietan lanean diharduten elkarte eta eragileekin lankidetzan sakonduz. Aldi berean, lurraldeko kirol talde eta elkarteekin elkarlan estuan jarraituko du, Gipuzkoako kirola eta kirolzaleak babestuz eta, bereziki, neska eta emakumezkoen kirola sustatuz.

- Kirolaren balio positiboak indartzeko estrategia partekatua indartzen jarraitzea.
- Gizon eta emakumeek adin tarte ezberdinetan kirola modu orekatuan eta berdintasunez egin dezaten sustatzen jarraitzea.
- Haur eta gazteen heziketarako oinarrizko kirol jarduera indartzen jarraitzea, goi mailako lehiara bideratu gabe. 🌱

- Gipuzkoako urtegien inguruan ibilbide osasungarriak egokitu eta garatzea, herritarrek ingurune naturalean ariketa egiteko guneak egokituz.
- Lurraldeko eskualde bakoitzean ibilbide irisgarri eta sentsorialak kokatzeko guneak identifikatu, diseinatu eta egokitzea, Arantzazutik Gomiztegira eraikitako bidearen adibideari jarraipena emanez.
- Lehen sektoreko eragileekin eta baserritarrekin elkarlanean, elikadura osasuntsuaren aldeko apustua lotu elikadura jasagarria eta tokikoa sustatzeko estrategiarekin.
- Gizarte babeseko baliabideetako erabiltzaileen artean, bakoitzak bere neurrian, kirola eta ariketa fisikoa sustatzeko ekimen berriak abian jarri.
- Bizikletaren eta bidegorri sarearen erabilera indartzea, mugikortasun jasagarriaren eta bizitza osasuntsuaren aldeko sentsibilizazio lana indartuz.
- Kirol elkarte eta klubekin elkarlana indartzea haien eginkizunetan lagunduz eta belaunaldi aldaketa, finantziario eta hainbat beharrei erantzuteko programak garatuz.

12. HELBURUA: urrealde oreka berdea, herri txiki eta landa ingurunearen geroa bermatzeko

Lurrealde oreka berdea, herri txiki eta landa ingurunearen geroa bermatzeko, lehen sektore bizi baten alde eginez, basoen kudeaketa jasangarria garatuz eta natur inguruneak eta biodibertsitatea zainduz.

Gipuzkoan harro gaude gure lurraldeaz, gure paisajeaz. Mendeetan zehar baserritarren lanaren eta zaintzaren emaitza da gure inguruko natura. Gaur egun, ingurumenaren eboluzioari eta aldaketa klimatikoari lotutako kezka bultzatzen gaitu orekaren aldeko posizio batera. Gipuzkoarrok mendiaz eta naturaz gozatu nahi dugu, baina ondorengo belaunaldiek ere gozatu dezaten nahi dugu, baso osasuntsuak nahi ditugu eta tokiko elikadura jasangarria indartu nahi dugu.

Horregatik guztiagatik, aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egin eta natur ingurunea babesteko ahalegin hori antolatzen garaian, abiapuntu garrantzitsu bat kontuan izan behar dugu Gipuzkoan. Gure lurraldearen azaleraren zati handi bat, handiena, landa ingurunean eta herri txikietan kokatzen da. Baserritarrak eta herri txikietako biztanleak dira gaur egun ere, beraz, Gipuzkoaren azalera berdea zaintzearen eta mantentzearen arduradunak.

Lurrealde orekatua da Gipuzkoa. Desafioak desafio, orohar, herri txikien, landa ingurunearen arteko kohesioari eusten jakin dion lurraldea. Faktore garrantzitsua da hori gizarte kohesioaren ikuspegitik. Baina, esan bezala, berebiziko garrantzia du baita ere paisajearen, landa eta natur ingurunearen ikuspegitik. Landa ingurune, herri txiki eta lehen sektore dinamiko bat ezinbestekoa dugulako gure ingurumena, paisajea eta biodibertsitatearen babeserako.

Horregatik, orain arte egin bezala, EAJ-PNVk landa ingurune bizi baten aldeko apustuari eusteko konpromisoa du, baserriko ustiapenen errentagarritasuna eta belaunaldi berritzea sustatuz, basoen kudeaketa jasangarria aurrera eginez eta herri txikietako biztanleen ongizatearen alde eginez. Azken batean, lurralde oreka berde baten aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa dugu.

12.1. ELIKADURA JASANGARRIA SUSTATZEA

EAJ-PNVk datorren legealdian lehen sektore bizi eta aurreratu bat aldeko ahaleginari eutsiko dio, baserritarrekin eta alorreko eragileekin elkarlanean, tokiko elikagaien ekoizpena indartuz eta, horrela, herritarren elikadura jasangarria sustatuz. Horretarako, baserritar eta abeltzainen lana babesten eta indartzen jarraituko dugu, horiek gizartearen eskutan produktu eskuragarriak, osasungarriak, eta tokiko ezaugarria dutenak produzitu ditzaten.

- Baserritarrek Zerbitzu Ekosistemikoetan egiten duten ekarpenaren neurtzea, unibertsitateekin eta ikerketa


zentroekin batera, hobari fiskalak ezartzeko aukera aztertu asmoz. Zerbitzu Ekosistemiko hauen inguruko sentsibilizazioa areagotzea.

- Etorkizuna Eraikiz lankidetzazko gobernanzako egitasmoaren baitan, elikadura jasangarria indartzeko lurralde misioa garatzea, tokiko ekoizpena babestu eta indartzeko neurriak hartzeko, KMO produktuak sustatuz eta, Udalekin elkarlanean, Gipuzkoako Azoken Sarea hobetzeko dinamikak sortuz.
- Baserria CO2 xurgatzaile plana abiaraztea, ixurketen gaur egungo azterketa bat egin eta berauek gutxitzeko neurriak eta pizgarriak jarritz.
- Lehen sektoreko aholku kontseilu baten sorrera, lankidetzazko gobernanzaren bidez landa inguruneari lotutako gaiak partekatu eta gogoeta eremu bat sortzeko.
- Baserrien eskualdatze plana diseinatu eta dinamizatzea, sektorean belaunaldi berritzea indartzeko.
- Baserrietan belaunaldi aldaketaren eta ekintzailetasunaren sustapenaren indartzea, Gaztenek Berri egitasmoaren bitartez.
- Berrikuntza eta teknologia lehen sektorera gerturatzeko esperientzia aurreratuen trukaketa bizkortzea.

12.1. MENDIA, NATUR INGURUNEA ETA BASOAK

Lurrealdearen % 60 zehar estalia izanik, behar-beharrezkoa da basoen kudeaketa jasangarria aurrera egitea. Horretarako, basoen jabea errespetatuz, bultzada publiko berri bat proposatzen dugu baso jabe txikien jarduna errazteko eta, modu berean, lurraldeko basoen papera indartzeko CO2 xurgatzaile gisa eta bioekonomiaren alorrean duten garrantziaren ikuspegitik.

Honekin guztiarekin lotuta, babestutako natur ingurunean eta, oro har, ingurunearen eta biodibertsitatearen babesean urratsak ematen jarraituko dugu. Eremu urbanoetako eta landa inguruneetako herritarrek naturarekin harremanean modu orekatuan bizi daitezten. Mendiarekin eta naturarekin gozatzeko gogoari bidea emanez, baina aldi berean ingurumenaren kontserbazioan aurrera eginez, ondorengo belaunaldiek ere goza ahal izan dezaten. Gure paisajea eta izaera errespetatuz, klima aldaketaren aurkako neurriak ahalbidetuz, eta elikadura osasungarria eta tokikoa produzitzeko aukerak garatuz.



eta ekonomiak eskatzen dituen zerbitzu eta azpiegiturak lurralde osoan berdintasunez hedatuz eta orekatuz. Landa ingurunean eta herri txikietan ekonomia aktibitate berria sortu dadin baldintzak sortu eta dagoeneko dauden aukerak sendotzea izango da gure egitekoa.

- Herri txikietan banda zabal ultra azkarraren zabalkundea gauzatu ostean, lurraldeko landa ingurune osora zabaltzeko urrats berriak ematea.
- Baserri bideen inbentario bat egin eta digitalizazioa sustatzea, beren mantenua eta kudeaketa erraztea.
- Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin elkarlanean, Gipuzkoako landa ingurunekeko ur edangarri sarea aztertu, beharrak identifikatu eta arazketa plana gauzatea.
- Gerora begirako biziraupena kolokan izan dezateketen herrietan, biztanlegoaren gaztetzea sustatzeko modu onean eraikitako etxebizitza berrien sustapena.
- Baserritik bizi diren baserritarrei, beren teilatu eta baserri alboan eguzki panelak jartzen laguntzeko egitasmoa landu eta gauzatu.
- Landa auzo eta herrietako biztanleen mugikortasuna asetzeko, mugikortasun adimentsu eta autonomoaren bitartez garraio sistema publiko berritzaile bat esperimentatu
- Gipuzkoako landa ingurunean auzolanaren figura eguneratu eta egokitu egungo legedira, auzolan ekimen berriak sustatuz. 🌱
- Basotik Fundazioaren bitartez, Gipuzkoako basoen zaintzan jauzi kualitatiboa egitea, kudeaketa profesional, homogeneo eta iraunkorra eskainiz, dagoen zatiketari eta abandonuari aurre egiteko, lurraldeko basoetako CO2 hustubide ahalmena hobetuz eta basogintzaren sektorearen errentagarritasuna indartuz.
- Baso sektorea indarberritu eta prestigiatzeko plana diseinatu eta aurrera eraman.
- Natura 2000 sarearen zaintza eta babesa indartzea, dagozkien araudi berritzeak gauzatu. Euskal erakundeekin eta tokian tokiko baserritar eta abeltzainekin elkarlanean, babestutako eremuen kudeaketa jasangarria indartu, natur ingurunearen kudeaketaren eta kontserbazioaren protagonista nagusi direla kontuan izanda.
- Ehiza jasangarriaren funtzioa aitortu eta babestu, zenbait espezieren populazioa kontrolatu eta lurraldearen oreka berdeari eutsi ahal izateko.
- Mendiko larreen kudeaketa berregokitzea eta indartzea, abeltzainekin elkarlanean.

12.2. HERRI TXIKI BIZIAK ETA AURRERATUAK

Lurralde oreka berdea gauzatzeko bidean, ezinbestekoak dira landa ingurune bizi bat eta herri txiki dinamikoak, non belaunaldi berriek ere bere bizitza proiektuak ongizate eta erosotasun osoz eraikiko dituzten, gaur egungo gizarte bizitzak

Aurrera, batera!
Gipuzkoa
Mira al futuro

